



Social Representations of Emerging Infectious Diseases: from scientific knowledge to everyday thinking. The effect of the mass media

Nahia Idoiaga Mondragon

2016

Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea



**SOCIAL REPRESENTATIONS OF
EMERGING INFECTIOUS DISEASES:
from scientific knowledge to everyday
thinking.**

The effect of the mass media

NAHIA IDOIAGA MONDRAGON
Supervisor: Lorena Gil de Montes Echaide
DOCTORAL THESIS
April 2016

**Department of social psychology and methodology of the behavioral
sciences, Faculty of Psychology, University of the Basque Country
(UPV/EHU)**



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

OSASUN IZURRITEEN GIZARTE IRUDIKAPENAK: jakintza zientifikotik egunerokotasuneko pentsamendura.

NAHIA IDOIAGA MONDRAGON

Zuzendaria: Lorena Gil de Montes Echaide

DOKTORETZA TESIA

2016 Apirila

**Gizarte-Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila,
Psikologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea
(UPV/EHU)**

Lan honetako azala eta ataletako-azalak Zuriñe Burgoa Comunión-ek eginak dira.

Financial support:

This thesis was funded by a pre-doctoral fellowship from the Department of Education of the Basque Government (BFI-2011-112).

Maddi, Beñat eta Peliri,
pozak eta tristurak denon artean
partekatuz bizitzen erakusteagatik.



ESKER ONAK

Doianua: *Habanera.*

1) Tesi honi bukaera eman nahi diot bertsotan, horrela eskertu nahirik bai laguntza urteotan. Fakultatetikan hasi beharra esker onetan, lehenik noski Lorena giltzarri prozesu hontan. Nigan konfidantza jarriz beti, une guztieta, askatasuna emanez burututako lanetan. Hausnarketa -eztabaida iturri zara benetan, lan hau plazerra izan da zurekin elkarlanetan.

3) Esker Potoloa baita hemen nire lagunei, distantziak ahaztaraziz ondoan daudenei. Telefono dei batekin beti pozten nautenei, babesia behar demean ondoan ditudanei. Bihotzez maite ditudan emakume apartei, zerrendatzea nahi nuke leku emanez guztiei, baina zorioneko ni zaretelako larre(g)i. Tesian baita bizitzan lagundi nauzueei

2) Joxe zuk piztu zenidan ikerketarako grina, beti erronkak ezarriz gidari eskerrezina. Departamentuko kide denak izendaezina, denak neska denak gazte eredu hobe ezina. Bekadun lagun denei Larraitz zaitut ahazezina. Mirariri zu izan zaitut hemen ordezkaezina, bidaikide izan dudan bihotzeko lagunmina zugandik nik ikasi dut ezina ekinez egina.

4) Familiari eskerrak noski ni maitatzearren. Eskerrikasko amama larrei arduratzearren. Eskerrak ama eta aita beti hor egotearren, bizitzan inspirazio, eredu izatearren. Egunez egun laguntzen apart alegintzearren, maite zaitut behar beste esan ez dizuedan arren, hemen doa mila aldiz faltan ez geratzearren. Eskerrikasko naizen hau izaten erakustearren

5) Sarri konparatu dira
tesia ta erditza,
nire kasuan batera
egin a dute bidea.
Urteotako onena
Maddi ta Beñat sortzea,
baita Peli bidailagun
ondoan edukitzea.
Bizipozik handiena
daukat zuek maitatzea,
amatasunaz gozatu
nik izan dut bai zortea.
Plazerra da bizitza hau
zuekin partekatzea.
Munduko Cum Laude onena
dut zuen irribarrea

Eskerrak bihotz bihotzez baita Zuriñe Burgoari tesi honen azala
oparitzeagatik eta baita beste guztiagatik ere!

*“Reserve your right to think, for even to think
wrongly is better than not to think at all”*

Hypatia of Alexandria

(Mathematician, astronomer, philosopher and professor, considered the
first woman scientist and an empowered woman)

EDUKIAK


SARRERA.....	1
Zergatik dira osasun izurrite berriak funtsezko ikergai gaur egungo gizartean?.....	3
Osasun izurrite berriak	6
Osasun izurriteen arriskua gizarte postmodernoan	10
Osasun izurriteen arriskua gizarte irudikapen bidez ulertuaz	18
Ikerlan honen jomuga eta giltzarri nagusiak.....	25
Tesiaren alderdi epistemologikoa	30
Kapituluen gainbegiratua	34
OSASUN IZURRITEAK KOMUNIKABIDEETAN.....	37
1. Kapitulua: Komunikabideek osasun izurriteak plazaratzeko duten era (<i>framing</i>) eta honen isla gizartean	39
JAKINTZA ZIENTIFIKOTIK EGUNEROKOTASUNEKO PENTSAMENDURA KOMUNIKABIDEEN BIDEZ	81
2. Kapitulua: Nola eraikitzen da arriskuaren irudikapena?.....	83
3. Kapitulua: Komunikabideen diskurtsoaren eragina osasun izurriteei buruzko gizarte irudikapenen edukian (english)	101
OSASUN IZURRITEEI BURUZKO KONTSENTSUZKO UNIBERTSOAK	121
4. Kapitulua: Osasun izurriteen esanahiaren transformazioa: komunikabide tradizionaletatik sare sozialtara (english).....	123
5. Kapitulua: Osasun izurriteen gizarte irudikapenak egunerokotasuneko pentsamenduan (english)	147

ONDORIOAK.....	165
Osasun izurriteei buruzko gizarte irudikapenak: edukia.....	168
Osasun izurriteei buruzko gizarte irudikapenak: prozesua	174
Komunikabideak osasun izurriteen gizarte irudikapenak eraikitzeko oholtza gisa	177
Osasun izurriteen identitateak.....	185
Osasun izurriteen aztarna arriskuaren gizartean.....	187
Mugak eta etorkizuneko iker lerroak.....	191
Tesian plazaratutako ekarpen nagusien laburpena	194
ONDORIOAK (english)	199
ERREFERENTZIAK	229

CONTENTS

INTRODUCTION (euskeraz)	1
Why investigate Emerging Infectious Diseases in today's society ?	3
Emerging Infectious Diseases.....	6
The risk of EID in the post-moder society.....	10
Social representations as a tool to understand the risk of EID	18
Objectives and main keys of this research	25
Epistemological aspect of the doctoral thesis.....	30
Overview of the chapters.....	34
EID IN THE MASS MEDIA.....	37
Chapert 1: Mass media framing of EID and their reflection in the society (euskeraz)	39
FROM SCIENTIFIC KNOWLEDGE TO EVERYDAY THINKING THROUGH THE MASS MEDIA	81
Chapter 2: How is constructed the risk representation?(euskeraz)	83
Chapter 3: The effect of the mass media discourse in the content of social representations of emerging infectious diseases	101
CONSENSUAL UNIVERSES ABOUT EMERGING INFECTIOUS DISEASES.....	121
Chapter 4: Transformation of the meaning about emerging infectious diseases: from traditional media to social networks.....	123
Chapter 5: Social representations of emerging infectious diseases in everyday thinking	147
DISCUSSION (euskeraz)	165

DISCUSSION.....	199
Social representations of EID: Contents.....	202
Social representations of EID: Processes.....	208
The mass media as a platform to construct social representations of EID	210
EID identities	218
Traces of EID in the risk society.....	220
Limits and lines of research for the future	223
Main contributions.....	226
REFERENCES	229



SARRERA |

Zergatik dira osasun izurrite berriak funtsezko ikergai gaur egungo gizartean?

XX. mende hasieran medikuntza eta zientzia mailan egoniko ikerkuntza garapenek, ordura arte guztiz suntsitzale kontsideratzen ziren hainbat gaixotasunen (polioa, tuberkulosia, e.a.) eustea edo kontrolatzea ekarri zuten. Honenbestez, era honetako gaixotasun epidemikoak betiko desagertu zirelako ustea zabaldu zen gizartean. Halere, azken urteetan azaleratutako ondorio larridun gaixotasun infekziosoeik, besteak beste HIES-ak, behi eroen gaitzak, Arnas Aparatuko Sindrome Larriak (SARS), txori gripeak, H1N1 txerri gripeak edota ebolak eragin sakona izan dute gizartean, izurriteei buruzko pentsamoldea errrotik aldaraziaz (Washer, 2010). Izan ere, osasun izurrite berri hauek gizakiaren biziraupenerako erronka nagusi gisa hautematen dituzte bai osasun arduradun eta politikariek eta baita mundu mailako ikerlariek ere (Morens, Folkers, & Fauci, 2004; Osterholm, 2005). Ondorioz erantzuna jada globala da, 80. hamarkadatik hona herrialde gehienek osasun izurriteei erantzuteko programa publikoak garatu dituzte eta nazioartean koordinatutako erantzun eta ikerketa sistemek bultzada publiko nahiz pribatua dute.

Arrisku medikuez gain, gaixotasun infekziosoen inpaktu psikologiko zein sozialak eztabaideazinak dira. Haistik, ikerketa lerro zabalak abiarazi dira gizarteak osasun izurriteen jatorri eta ondorioak nola definitzen dituen eta nola aurre egiten dien aztertzeko. Halere, oraindik ez da behar beste ikertu pertsonek gaixotasun hauek beraien eguneroko bizitzako pentsamenduan nola integratzen dituzten, ezta gertaera sozial gisa nola barneratzen dituzten ere. Honenbestez, ikuspuntu horretatik ere, osasun izurriteak aztertzea premiazkoa da. Izan ere, gizarteak gaixotasun infekzioso berriak ulertzeko duen era kolektiboa hainbat fenomeno

Social Representations of EID

sozialen giltzarria izango da, gaixotasunarekiko kontzientzia hartzearen mailak erdietsiaz, agintariekiko sinesgarritasun edota sinesgarritasun falta bultzatuaz, osasun publikoari buruzko gomendioak jarraitza bermatuaz edo guzti horrekin, erantzun edo jokaera kolektiboa zehaztuaz (Bangerter, Green, & Gilles, 2011).

Halaber, gaixotasun infekziosoek jasotako estaldura mediatiko zabala gizartean berau ulertzeko duen nahi eta borrokaren adierazle da. Azken urteetako osasun izurrite nagusiek -besteak beste ebolak (2014-2015) edota txerri gripeak (2009-2010)- mundu mailako komunikabideen arreta bereganatu dute zenbait eztabaidagai pil-pilean jarriaz; esate baterako animalietatik gizakietara egoniko transmisioa, janari kutsatuaren arriskua, medikamendu antibiralen eskuragarritasuna eta salerosketa edota izurriteei aurre egiteko orduan farmazeutiken eta gobernuen rola. Gainera, lanketa guzti hauetan nahiko ohikoa izan da komunikabideetan diskurtso sentsazionalista erabili izana irudi alarmistarekin batera (hildakoen argazki gordinak, maskara edota babes trauekin lotutako beldur mezuak etab.). Guzti honen eraginaz, azken izurriteetan ohikoa bihurtu da iritzi publikoko sektore esanguratsuek gobernuburu, osasun arduradun (batez ere Osasun Mundu Erakundea bezalakoak (OME)) edota industria farmazeutikoari gaixotasun infekziosoez baliatuz interes partikularrak hobestea leporatu izana. Ondorioz, zenbait analista politikoren iritziz, osasun agintariekiko gizarteari duen konfiantza larriki gainbeheratua izan da eta premiazkoa du lehenbailehen berreraikitza (Larson & Heymann, 2010).

Halatan, osasun izurrite berriei interakzio konplexu eta sarritan kontraesankorrik sor ditzakete ondorengo gizarte eragileen artean (Bangerter, Green, & Gilles, 2011): 1) arriskuaren kalkulu abstraktuetan oinarritutako organizazio anizkoitz, osasun publikoko sare eta politikoen plangintzan, 2) diskurtso mediatiko konkretu, sentsazionalista eta irudietan

oinarritutakoan (Dudo, Dahlstrom, & Brossard, 2007) eta 3) erantzun publikoan, zein beldur, autoritateekiko sinesgarritasun falta edota konspirazio pertzepzioen artean mugitzen den. Beraz, izurriteetan autoritateen erantzuna, komunikabideek pandemiei buruz eginiko estaldura eta pertsonek azaleratutako gaixotasun berriak ulertzeko eta familiarizatzeko duten era elkarlotzen dituen gizarte fenomenoa ikertzeko beharra sumatu du komunitate zientifikoak eta hori da preseski tesi honen funts nagusia.

Azkenik, osasun izurriteen gaiari berari buruz esan beharra dago pentsamendu kolektiboa ulertzeko gertaera emankorrik direla, gizarte aldaketa azkarra bultzatzen duen krisi egoera dakartelako beraiekin. Ondorioz, osasun izurriteei, gertaera berri eta mehatxagarri gisa, kolektiboki zentzua emateko beharra abiarazten da (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002). Gainera, osasun izurrite berrieik plazaratzen duten erronkaren bidez gizarte modernoko ikerkuntza medikuaren mugak agerian geratzen dira (Bangerter, Green, & Gilles, 2011), gaixotasun orori zientziaren bidez beti aurre egin diezaiokegula zalantzan jarriaz. Beraz, gizarte psikologian eta bereziki Gizarte Irudikapenen Teorian oinarrituz pertsonok gure eguneroko bizitzan osasun izurrite berriak nola barneratzen ditugun aztertzeko ordua da.

Ikergaien barneratzeko lehenik eta behin sarrera honetan aztergai ditugun osasun izurrite berriak zer diren erdietsiko dugu, gero gizarte postmodernoaren testuinguruau kokatuko ditugu eta baita tesi honetako marko teoriko nagusi izango den Gizarte Irudikapenen Teoriaren barnean kokatuko ditugu. Sarrera orokor horrekin bukatu ostean tesi honetako jomuga eta giltzarri nagusiak eta alderdi epistemologikoak plazaratuko ditugu. Bukatzeko tesi honen kapituluen gainbegiratu txiki bat burutuko dugu.

Osasun izurrite berriak

1989an EEBBetako Osasun Institutu Nazionalak buruturiko kongresu baten ildotik medikuntza lerro berri bat sortu zen, zeinek ordura arte zientzialariek zein gizartea izandako osasun izurriteak ulertzeko era aldatu zuen. Lerro berri hau “azaleratzen eta berrazaleratzen diren gaixotasun infekzioso” (*emerging and re-emerging infectious diseases*) gisa izendatu zen eta ordura arte osasun izurriteak kontrolpean zeudela uste zutenen ideia baikorren bukaera ekarri zuen. Osasun izurriteak ulertzeko eraren aldaketa sakon honek arduradun politikoetan, komunikabideetan zein gizarteko pentsamoldean eragin nabaria izan zuen, guztien agendan osasun izurriteak puntu garrantzitsu gisa kokatuaz.

Aipaturiko kongresuak sortutako mugarririk historikotik aurrera, medikuntzak, behin eta berriz, azaleratzen diren gaixotasun infekziosoak definitu nahi izan ditu. Lehenengo definizio osatuetako bat, EEBBetako Osasun Institutuak plazaratu zuen 1992an argitaratutako txostenean:

“.... Klinikoki egoera anitzak dira, zeintzuek gizakietan duten intzidentzia nabarmenki handitu den... Agerpenaren arrazoia agente berri baten sorrera, orain arte identifikatu gabe zegoen gaixotasun baten identifikazioa, edota ingurunean gertatutako aldaketa batek sortutako zubi epidemiologikoa izan daiteke... Agerpen, edo hobe esanda berragerpenak, intzidentzia gutxitua zuen gaixotasun baten piztea definitzeko ere balio du. Nahiz eta beste edozein gaixotasun infekziosotan bezala agente infekziosoek rol garrantzitsua jokatzen duten, beste iturburu batzuk ere eragin nabarmena dute kasu hauetan (Lederberg, Shope, & Oaks, 1932, p.34).”

Eskuarki, osasun izurriteak berauek sortzen dituzten mikrobioen (birus, bakteria, etab.) arabera klasifikatzen dira baina aipaturiko txostenean

osasun izurrite berri hauek elkarren artean lotuta dauden eta “agerpen” iturburu diren faktore sorta baten bidez deskribatu ziren. Izan ere, izurrite berrien atzean dauden faktore komunak bateratu nahian, adituak sortzen dituzten agenteetatik haratago joan behar izan ziren eta osasun izurrite hauen agerpenarekin eta zabalkundearkin lotutako faktore sozial anitzagoak kontutan hartu behar izan zituzten. Hauek dira beraiek aipatutako faktoreak:

- Pertsonen demografia eta portaera: Munduko demografian azken urteetan egondako aldaketek eragin sakona dute. Adibidez, garapen jario berriko herrialdeetan batez ere ematen ari den pertsonen hazkuntza gaixoen zabalkunde iturri izan daiteke. Izan ere, herrialde anitzetan eremu landatarrak utzi eta hirietara mugitu da nabarmenki biztanleria, hiriburu eta zenbait auzotako dentsitatea leporaino hasiz. Ondorioz, oinarrizko osasun eta osasun publiko falta nabarmenak dira.
- Teknologia eta industria: teknologiak eta industriaren garapenak ere gaixotasunen zabalkundean eragin dezakete. Besteak beste, medikuntzan frogatutako teknologia berriean egoniko errakuntzengatik edota janaria sortzeko metodo berrien garapenak sortutako arriskuagatik.
- Garapen ekonomikoa eta lurren erabilera: Osasun izurrite berrien hiru laurden inguru, bereziki birusek sortutakoak, ez dira berriki sortutako patogenoak, zoonotikoak dira, hau da, jada existitzen dira beste animalia batzuetan (Morse 1992; Taylor, Latham & Woolhouse, 2001). Honenbestez, garapen ekonomikoa aitzakiatzat harturik lur landatarren erabileran burutzen ari garen aldaketek gaixotasun zoonotikoen arriskua bereziki handitzen dute.

Social Representations of EID

- Bidaia eta nazioarteko komertzioa: Gaur egungo mugimendu zabalkunde modernoak ez du aurrekaririk historian bere bolumen, abiadura eta helaraz erraztasunagatik. Pertsona, animalia eta gauzen mugimendu masibo honek bai birus eta baita beste zenbait faktore genetiko ezezagunen nahasmena eta barrejadura dakar (Wilson, 1995).
- Aldaketarekiko mikrobioen egokitzapena: Mikrobioak beraiek ere garapenak eragindako aldaketak dituzte. Aldaketa hau mikrobioen bariazio normalagatik sor daiteke, bereziki mutazio maila altua dutenetan. Baina, baita antibiotiko eta bestelako medikamenduen erabilerak sortutako garapen selektiborako presioagatik, antibiotikoenkiko erresistenteak diren birus berriak sorraraziaz.
- Osasun publikoa bermatzeko neurrien gainbehera: Gainbehera honen ondorio nagusienetariko bat txertatzeen bidez kontrolpean zeuden gaixotasunen berragerpena izan da.

Txosten honen ekarpenek komunitate zientifikoaren, politikarien eta gizartearen arreta erakarri zuten, osasun izurriteak mehatxu gisa birdefinituz. Honenbestez, osasun izurriteak jada lehenaldiko gauza ez zirela eta kontutan hartu beharreko mehatxuak zirela baieztagatzen zuen jarrera mundu guztien zehar arin hedatu zen, bai erakundeetan barna baina baita gizarte kontzientziatan ere. Honen adibide dugu esate baterako Osasun Mundu Erakundeak espresuki izurrite mota hauek lantzeko dibisio bat sortu izana, gaia osasunaren aldeko estrategia orokorraren erdigune bihurtuaz (King, 2002).

Honenbestez, azken hiru hamarkadetan Estatu Batuetako gaixotasun kontrolerako zentroak 20 gaixotasun infekzioso kutsagarri baino gehiago identifikatu ditu (Satcher, 1995), besteak beste Ebola virusa, Hartutako

Immuno Eskasiaren Sindromea (GIB/ HIES), C hepatitisa, Arnas Aparatuko Sindrome Larria (SARS, bere ingeleseko itzulpenagatik), Behien entzefalopatia espongiformea (behi eroen gaixotasuna), txori gripea edota txalet gripea. Gaixotasun hauen artean batzuk adibidez HIES-a edota Brasilgo sukar pupurikoa aurkikuntza berriak izan dira, hau da, ez ziren ezagutzen aldez aurretik mundu mailan. Beste batzuk ordea, munduko parte batzuetan existitu izan diren arren, azken urteetan beste herrialde edo kontinente batzuetan ere azaleratu dira, adibidez Asian mendeetan zehar ezagunak izan diren Hantaan birusak. Era berean, ebola bezalako sukar hemorragikoak ere aspaldidanik ezagutu izan dira baina behin eta berriz azaleratuz doaz herrialde azpigaratuetako pobreziatik haratago, beste testuinguru batzuei ere eraginaz (Farmer, 1999).

Honenbestez, mundu postmodernoan azaleratzen eta berrazaleratzen diren gaixotasun infekziosoen eraginak ez du soilik komunitate zientifikoaren arreta bereganatu. Komunitate honen erantzunarekiko era paralelo batean gizarte mailan ere osasun izurrite berri hauekiko interesak izugarrizko gorakada izan du. Izan ere, tesi honetan sakonki azalduko dugun bezala azaleratzen diren gaixotasun infekziosoa esfera zientifikotik haratago zabaldu dira, bereziki komunikabideek gaiari buruz egindako estalduraren bidez (Washer, 2010), pertsonon eguneroko pentsamoldean txertatuaz.

Osasun izurriteen arriskua gizarte postmodernoan

Arriskuak gizartean duen eragina ikerketa esparru oparoa izan da, bai ikuspuntu antropologikotik eta baita soziologikotik ere. Mendebaldeko gizarte garaikidean arriskuek pertsonen arreta itsutzen dute bai antropologoen (Douglas, 1986, 1990) eta baita soziologoen (Beck, 1992; Giddens, 1991) aburuz. Nahiz eta ikerketa eta teknologia berrikuntzek maiz naturaren gainetik gaudela pentsatzera garamatzaten, jendartean orain arteko muga guztiak hausten dituen arrisku sentsazioa ari da errotzen (Joffe, 1999). Izan ere, pertsonek geroz eta jakintza oparoagoa dugu arriskuari buruz, batez ere komunikabideen bidez elikatua, eta horregatik arriskuarekiko kontzientzia behin eta berriz pizten zaigu gizartean inguratzen gaituzten irudi eta hitzen bidez.

Beck-en arriskuaren gizartea

Ulrich Beck soziologo alemaniarrak Arriskuaren Gizartea terminoa sortu zuen gizarte garaikidea kontzeptualizatzeko (Beck, 1992, 1999a, 2006). Beck-en aburuz, pertsonek gizarte landatar aurremodernoetan edota lehen industria gizarte modernoetan zituzten arriskuekin konparatuz, gizarte garaikidean bizi ditugun arriskuen izaera ezberdina da. Izan ere, gaur egun arriskuekiko dugun kontzientzia nabarmena adituekiko edota agintariekiko konfiantza faltarekin uztartzen da, ziurgabetasun eta larritasun aroa sortuaz, eta ondorioz pertsonengan herstura piztuaz (Beck, 1992).

Beck-en iritziz, arrisku gizartea ez da fenomeno postmodernoa. Hau da, modernitatearen zentzuarekin ez dakar erabateko hausturarik, baizik eta arriskuaren gizartearren bidez mundu modernoa mundu modernoagora edo modernitatearen bigarren arora garatzea. Izan ere, premodernitate garaian

arriskuak (izurrite, uholde etab.) jainkoak edo naturak ekarritako gertaera fatalistatzat definitzen ziren. Lehen industrializazio aro modernoa, XIX. eta XX. mende hasieran, arriskuak lantegiek edota lan munduko beste zenbait zorizko gertaerek zekartzaten eta bereziki zonalde edota pertsona talde batzuei zuzenduta zeuden. Arrisku garaikideak berriz, adibidez berotze globalak sortutakoak, modernitatearen hausnarketatik eratorritakoak dira, zientziak edo teknologiak sortutakoak diren heinean zientzialari edota adituei eurei eskatzen zaielarik berauen arrisku maila epaitzeko zereginak.

Beck-ek proposatutakoaren arabera, arriskuaren gizarteko arriskuek hiru ezaugarri nagusi dituzte. Lehenik eta behin ez dute mugarik eta ez daude zonalde jakin batera zedarrituak, honenbestez beraien kausa zein ondorioak ezin daitezke leku geografiko zehatz batetara mugatu. Arrisku berrian bigarren ezaugarria kalkulaezintasuna da, hau da, beraien ondorioak zientifikoki era zehatz batean kuantifikatzea ezinezkoa da. Azken ezaugarria konpentsa ezintasuna dugu. Modernitatearen lehenengo aroetako arriskuak konpentsagarriak ziren, hau da, istripuak gerta zitezkeen baina onurek konpentsatzen zitzuten. Baina orain, arrisku berriak gertatutakoan, hau da, finantza sistema mundiala kolapsatu denean, klimaren aldaketa atzeraezina denean, talde terroristek suntsiketa masiboko armak dituztenean, jada ez dago zer konpentsatu. Horregatik konpentsazio logikak jada ez du balio eta prebentzioak ordezkatu du. Izan ere, arriskuak prebenitzea da Arrisku Gizartearen helburu nagusia, baita oraindik azaleratu ez diren arriskuak ere (Beck, 2008).

Beraz, arriskua ikertu duten beste zenbait adituk ez bezala, Beck-en arriskuaren definizioan (1996) ez du arriskuaren kontrol bat bilatzen: “Arriskuaren gizartea kontzeptuak gizarte modernoaren garapen fase bat deskribatzen du, zeinetan berrikuntza momentuak sortutako arrisku sozial,

Social Representations of EID

politiko, ekologiko eta indibidualek gizarte industrialeko babes instituzionalen kontrola saihesten duten (p. 27)”.

Beck-en lana mendebaldeko Alemaniako mugimendu berdean errotzen da, honenbestez, bere lanetan arrisku gizartea ingurugiro hondamendiei lotutako arriskuez arduratzen da batik bat, adibidez, 1986ko Chernobylgo (Ukrainia) istripu nuklearraz. Halere, Beck-entzat arriskua ez da hondamendiaren sinonimo, hondamendira aurreratzea baizik. Arriskua erreal bihurtzean jada ez du arrisku gisa definituko, hondamendi gisa baizik. Beck-ek arriskuak, gertaera mehatxagarri bezala definitzen ditu. Irudikatze teknika gabe, forma sinboliko gabe, komunikabide gabe etab. arriskuak ez dira ezer ere ez. Beste era batean esanda, berdin dio gu geu “objektiboki” beste mundu batzuk baino seguruagoa den munduan bizi garen; suntsitze eta hondamendiak aurresatenean badira horrek arriskuan oinarritutako ekintza bultzatuko baitu jendartean (Beck, 2006).

Esan bezala, Beck-ek bere lana ingurugiroari lotutako adibideetan oinarritu zuen arren, arriskuaren gizartearren ereduak osasun izurrite berriek edo azaleratzen diren gaixotasun infekziosoek sortutako arriskua azaltzeko ere balio du. Izan ere, lehenik eta behin osasun izurriteetan sortutako arriskuak jada ezin daitezke eremu geografiko batetara zehaztu. Pertsonen nahiz beste eratako baliabideen (janari, produktu, etab.) nazioarteko mugimendua eta mundu modernoan ditugun bidaiatzeko erraztasunak gaixotasunen zabalkunde azkarra ahalbidetu du orain arte ezezaguna izan den maila batean. Bigarrenik, zenbait osasun izurrite berriren sortasun denboraldia luzea da, adibidez HIES-arena edota behi zoroena, beraz beraien ondorioak kalkula ezinak dira, eta are gehiago, historikoki txarto kalkulatuak izan dira. Azkenik, konpentsazioak ere ez du zentzurik osasun izurrite berrietan, behin ebola Afrika mendebaldean zabalduta egonik eta milaka pertsona kutsatuta ezer gutxitarako balio du konpentsazioak,

baliozkoa den estrategia bakarra prebentzia da, jendearen kutsatza ekiditeko prebentzia. Berdin HIES-aren kasuan ere, berari aurre egiteko estrategia nagusia prebentzia kanpainen bidezkoa izan delarik.

Honenbestez, Beck-en arabera gizartea osasun arloko mundu modernoko proiektu utopikoko itxaropenak bete ez direlaz konturatzean arriskua eta ziurgabetasuna nagusitu dira osasun izurriteekiko. Komunikabideek ere gako garrantzitsua jokatu dute jarrera honen garapenean Beck-en aburuz. Izen ere, osasun izurrite berrien estaldurak, bereziki HIES-aren ostean, gizarte garaikidearen hersturak azpimarratzen ditu. Herstura hauek bi iturri nagusi dituzte, lehenik teknologiaren (beroziki biomedikuntzaren) ustezko gaitasun eza osasun izurrite berrieik plazaratutako mehatxua eusteko, eta bigarrenik globalizazioak sortutako gaixotasunen zabalkuntza erraztasuna.

Douglas eta arriskua gizartean

Antzeko ikuspuntu batetatik Mary Douglas-ek (1966, 1992) ere mundu postmodernoan arriskua landu zuen. Bere aburuz arrisku modernoak edo gizartek haiei aurre egiteko duen era berriak antzekotasun nabarmenak ditu gizarte primitiboetako erarekin.

Douglas-ek mahaigaineratzen du zenbait arrisku beste batzuk baino gehiago azpimarratzen direla, beraien seriotasun “objektibotik” at. Izen ere, bere lana korronte Durkheimdarrean kokatuko genuke, non arrisku errealen edo berehalakoentzako irudikapen kolektiboen balio kulturala talde solidaritatea mantentzeko gaitasuna dela argudiatzen den, indibiduoentzako taldeari hautemandako arriskutik babesteko helburu komunak emanaz. Gainera, Douglas-en ustez, mehatxuaren kausa kanpotarrengan (gure taldeak ez direnak) edota elite pribilegiatuengen bilatuz, eta beraiei ordura arteko bizi era aldatzearen errua atxikiaz, pertsonek hersturei irteera

Social Representations of EID

aurkitzen diete. Arriskuak *self*-aren eta besteen artean mugak mantentzeko balio duela uste zuen Douglas-ek, azpimarratuaz talde konkretu bat mehatxatzen zuen arriskuaren erruduna bilatzeko joerek berebiziko erabilera politikoa zuela (Douglas, 1992; Douglas & Wildavsky, 1982).

Era berean, globalizazioak sortutako interkonexioak arriskuak lehen zeudena baino hurbilago daudela sentitzen garamatzala uste du Douglas-ak. Beraz, osasun izurrite berriei dagokienez Douglas-ek plazaratutako gizartearentzako mehatxu baldintza guztiak beteko lituzkete. Hainbat ikerlanek baiezttatu dute osasun izurriteen sorreraz eta zabalkundeaz besteen talde bat (Joffe, 1999; Joffe & Staerkle, 2007) edo arduradun politikoak (Washer & Joffe, 2006) erruduntzat jo ohi direla eta mundu globalizatuaren aterkiipean gaixotasun infekzioso berriek muga fisikorik ez dutela hauteman dela.

Komunikabideak arriskua gizarteratzeko tresna gisa

Komunikabideak elementu gakoa izan dira gizartean arriskuaren kontzientzia erro dadin. Komunikabideen biziraupena audientzia erakartzeko duten gaitasunaren araberakoa da, ondorioz arriskuaren izaera erakargarriaz baliatzen dira maiz jendearen arreta erakartzeko. Horrela, berehalako arriskuak albiste bilakatu nahian, alarma mailak sarritan handietsi ohi dira. Izan ere, arriskuak komunikabideentzako bereziki baliagarriak dira, gertaera faltan ere albisteak sortzeko gaitasuna baitute (Gregory & Miller, 1998). Hau da, nahikoa da arriskuren bat gerta litekeela uste izatea edota arriskuak ulertzeko erak komunitate zientifikoan eztabaidea sortzea berau albiste izan dadin.

Gainera, gizarte postmodernoan informazio jarioaren globalizazio geroz eta azkarragoa ematen ari da. Komunikabideak dira mundu mailako herrialde gehienetan arriskuei buruzko informazio iturri nagusiak, baita

osasun izurrite berriei buruzkoak ere. Beck-ek baieztatzen zuen bezala, komunikabideen bidez adituen iritziak filtratzen dira, ondoren *self-aren* eraikuntzaren hausnarketan txertatzeko. Komunikabideen globalizazioaren gakoak internet eta CNN, BBC World edota Al-jazeera bezalako 24 orduako telebista zerbitzuak izan dira, zeintzuek osasun izurrite berriak gizartearentzako mehatxu handien barnean kokatzeko ezinbesteko izan diren (Washer, 2010). Hau da, 90. hamarkadatik aurrera, interneten zabalkuntzarekin bat, komunikabideek osasun izurrite berriei emandako estaldura nabarmenki handitu zen, pertsonen pentsamendu kolektiboan garrantzia hartuz mundu guztiaren barrena.

Komunikabideek osasun izurrite berriei buruz egindako estaldura zabala dela ez dago zalantzan jartzerik, baina zein eragin du estaldura honek gizartean? Beck (1992, 1999a, 2006) eta Douglasek (1966, 1982, 1992) baieztatuko luketen bezala, nazioarte mailan izurriteek garrantzia hartu izanak pertsonen herstura maila handitzen du? Edota arrisku diskurtso mugagabeak pertsonak gogaitzen ditu gaiaz txanda paso egitera eta distantzia hartzera bultzatuaz eta gaitzak beraiekin lotuta egotea pentsaezin bihurtuaz?

Era berean, zalantza sorta horri beste bat gehituko lioke Douglas-ek: Nork erabakitzetan du zein izurrite den albiste? Eta zein irizpidetan oinarritzen da erabaki hau? Adibidez, 2014ko maiatzean OME-k poliomielitis-agatiko nazioarteko intereseko osasun publikoko larrialdia deitu zuen baina gaiak apenaiz izan zuen oihartzunik komunikabideetan. Urte berdineko abuztuan berriz OME-k ebola-gatiko nazioarteko intereseko osasun publikoko larrialdia deitu zuen, hileetan zehar komunikabideen arreta guztiz erakarriaz, bereziki ebolak mendebaldeko zenbait herritar kutsatu zituenean. Izan ere, hor dago komunikabideen estaldura maila aurresateko gako nagusia, komunikabideen ikusle, entzule

Social Representations of EID

edo irakurleen profil demografiko bera (zuri, klase ertain, heterosexual, mendebaldeko etab.) duten pertsonentzat izurritea mehatxu kontsideratzea (Washer, 2010). Urrutiko herrialde azpigaratuetan jasaten diren gaixotasun infekziosoeik, zeintzuek bertako herritarrei eragiten dieten, intereseko bihurtzen dira soilik kanpotarrak edo goi elite sozialetako jendea ere kutsatzen hastean, ebola kasu. Gainera izurritea norbere herrialdera edo mendebaldera geroz eta gehiago hurbiltzen den heinean, orduan eta estaldura handiagoa izango du (Washer, 2010). Behin agenda mediatikoan sartuta komunikabideek gaixotasuna mendebaldearentzako ulerkor bihurtuko dute metafora ezagunen bidez (zientzia fikzioa, misterio, hilketa, militar, edota apokalipsi metaforak) (Moeller, 1999).

Halaber, arreta publikoa zein arriskuk erakartzen duten eta zergatik komunikabideek arrisku konkretu batzuk aukeratzen eta plazaratzen dituzten ere aztertu da (Kitzinger & Reilly, 1997). Zeren eta komunikabideak ez dira mundu berri arriskutsuaren isla arazle hutsak eta arriskuek ez dituzte besterik gabe erakartzen. Izañ ere, badaude zenbait faktore komunikabideek arrisku zehatz batzuekiko duten interesa baldintzatzen dutenak: kazetariaren jakintza (zenbait kazetarik ulertzeko zailak suertatzen zaizkien gaiak baztertzen dituzte), albistearen balioa gertaera erreala bezala publikoaren amu bihurtzeko, interes gizatiarra (zu izan zintezke / ni izan nienteke faktorea deitzen diotena) eta lobby, aditu talde edota politikariekin sortutako presioa (Kitzinger & Reilly, 1997).

Honenbestez, eta orain arte esandako guztiaren batura gisa, azaleratutako eta berrazaleratutako gaixotasun kutsakorren kategoriaren arrakastak bi gako baditu gizarte mailan. Hasteko, gizartean arriskuek beraiek sortutako orbainak, arriskuaren gizartea abiaraziz. Bigarrenik, estaldura mediatikoa, gaia agenda sozial, politiko zein mediatikoen erdian kokatuaz. Ondorioz, osasun izurrite berrieik edota baita beraien mehatxu

soilek ere, arriskuaren diskurtsoa plazaratzen dute jendaranean. Beraz, pertsonek nahitaez kolektiboki arrisku diskurtso hori barneratu beharko dute osasun izurrite berri hauen adiera kolektibo bat sortuaz. Prozesu konplexu bezain interesgarri honetan barneratzeko lanabes aproposak ditugu preseski ondorengo puntuan landuko ditugun gizarte irudikapenak.

Osasun izurriteen arriskua gizarte irudikapen bidez ulertuaz

Gizarte irudikapenak arriskuak ulertzeko lanabes gisa

Serge Moscovici psikologoak sortutako Gizarte Irudikapenen Teoriak (GIT) (1961, 1984, 1988), pertsonen egunerokotasuneko pentsamendua ulertzeko ikuspuntu osatua eskaintzen digu. Gainera, gizarte irudikapenen teoriaren bidez gertaera berriekiko pertsonek sortzen dituzten ideiak ulertu nahi dira. Azken finean, gizarte irudikapenen aztergai nagusia pertsona talde ezberdinek ordura arte mundua ulertzen den bezala, aldatuko duten gertaera edo arrisku berriei (osasun izurrite bat, guda nuklear bat) zer nolako azalpena ematen dieten eta nola barneratzten dituzten lantza da.

Honenbestez, GIT-aren oinarrizko planteamendua arrisku egoerak ulertzean pertsonek egindako akatsak bilatzen dituztenen guztiz kontrakoa da (Slovic, 2000). Hau da, teoria kognitibo gehienetan pertsonek arriskuak ebaluatzeako orduan akatsak burutzen dituzte arrisku objektibotik urrunduaz. Horregatik, ikerlari askok akats hauen neurketa dute jomuga eta berauek konpontzeko erremedioak bilatzen dituzte (Wynne, 1995). Arriskuak kategorizatzeko heinean “egia objektiboa bilatzen” da, “benetako gertakarietan” oinarriturik. Gizarte Irudikapenen Teoriaren arriskuaren ikuspuntua guztiz bestelakoa da, pertsonek arriskua hautematean garrantzitsuena ez da beraiek duten informazioaren zehaztasuna. Arriskuaren irudikapenak gizarte talde ezberdinei beraien buruak eta talde identitateak mehatxutik babesteko balioko die. Hau da, arriskuari identitatea babesteko motibaziotik esanahia ematen zaio, eta ez zertan arrazionaltasun gorennetik (Joffe, 1999).

Sarritan Gizarte Irudikapenen Teoria psikologia sozialean oparoki erabilia izan den Arriskuaren Anplifikazioaren Sozialaren Teoriarekin (Kasperson et al., 1998; Pidgeon, Kasperson, & Slovic, 2003) lotua edota baita bat egina ere izan da. Arriskuaren Anplifikazio Sozialaren aburuz hainbat faktore psikologiko, sozial, kultural eta instituzionalek gertaera arriskutsuekin duten elkarrekintzaren bidez arriskuaren pertzepzioa handitu edo gutxi dezakete (Renn, 1991). Honela, berez nahiko garrantzia gutxi duten zenbait arriskuk gizartean ardura eta beldurra sor dezakete (arriskuaren handitzea), eta aldiz larriagoak diren beste arrisku batzuk konparazioan arreta gutxiago jaso dezakete (arriskuaren gutxitzea). Adibidez, gripearren aurkako txertoek edukitzeak gizartean ardura bizia sortzen du, baina etxeetan gas radoi hondakinak egotea ez da gizartean arrisku bezala hautematen. Zenbait gertaerek berebiziko arrisku hautematea sortzearen arrazoia anitzak izan daitezkeen arren, teoria honen arabera komunikabideen gaiaren estaldura masiboak, arriskuaren helmenean adituen arteko akordio gabeziak, gertaeraren dramatizazioak edo ikuspuntu katastrofistak, arduradun politikoengan konfiantza faltak eta komunikabideek mehatxua irudikatzeko erabilitako sinbolo edo kontzeptuek azpimarratu beharreko garrantzia dute arriskuaren handitzean. Honenbestez, GIT-ak Arriskuaren Anplifikazio Sozialaren teoria ere osa dezake pertsonek komunikabideek plazaratutako irudi, sinbolo eta kontzeptuak nola ulertzten dituzten azaltzen baitu.

Halere, aurretiaz aipatu dugun bezala, Gizarte Irudikapenen Teoriak arriskua ulertzeko duen era ez da hertsiki Arriskuaren Anplifikazio Sozialaren teoriak duena. Izan ere, esan bezala, Gizarte Irudikapenen Teoriaren aburuz fenomeno berri batekiko arriskua sozialki eraikitzen da. Pertsonek mehatxuari esanahi konkretu bat ematen diote eta honen oinarripean baloratzen dute bai beraien buruarentzako, baita

Social Representations of EID

ingurukoentzako eta baita gizartearentzako orokorrean ere suposa dezakeen arrisku maila. Beraz, gizarte irudikapenen ikuspuntutik arriskuak ez dira handiak edo txikiak, ezta errealkak edo gezurretaakoak ere, arriskuen irudi eta esanahi kolektiboek emango baitiote gizartean garrantzia.

Gainera, Gizarte Irudikapenen Teoriak pertsonen arteko komunikazioa ere gailentzen du pertsonen barneko informazio prozesaketaren gainetik, irudikapenak eraikitzeo orduan. Baita talde identifikazioa ere bakarkakoaren gainetik ideiei forma emateko orduan. Hau da, pertsonak elkarrekintzaren bidez, eta bereziki bai pertsona arteko eta baita komunikabideen bidezko komunikazio lanen bidez, gertaera edo arrisku berriei forma ematen diete. Baino ez soilik banako gisa baizik eta talde bateko partaide gisa ere, horregatik ideiak komunak eta partekatuak dira, taldean eraikitzen baitira.

Komunikabideen diskurtsoaren eragina arriskua jakintza zientifikotik egunerokotasuneko pentsamendura transformatzean

Gizarte Irudikapenen Teoriak arrisku berriak, hala nola, osasun izurrite berriak nola interpretatzen diren eta egunerokotasunean nola barneratzen diren azaltzen dute. Hau da, teoria honen iker galdera nagusiena osasun izurriteen gisako fenomeno mehatxagarriak unibertsio zientifiko edo reifikatutik (*refined universe*) egunerokotasuneko pentsamendu edo kontsentsuzko unibertsoetara (*consensual universe*) nola eraldatzen diren aztertzea da (Joffe, 2003). Horregatik, Moscovicik gizarte irudikapenak zientzia bere hedapenean zeharreko eraldatzearan aztertzeko lanabes gisa definitu zituen (Moscovici, 1998). Gaur egungo gizartean komunikabideek berebiziko garrantzia dute jakintza maila zientifikotik egunekotasuneko pasatzean. Izan ere, jendeak normalean osasun izurriteak bezalako gertaera mehatxagarriak komunikabideen bidez ezagutzen ditu lehenik eta behin

(Joffe, 2003). Alabaina, komunikabideek ez dira zientzialari, jakintsu edo botere esferek jakintza horri buruz plazaratutako ideien errepikatzaile hutsak. Komunikabideek, audientzia erakarri nahian arriskuei garrantzia berezia eman edo kentzen diete (*Agenda Setting* teoria (McCombs, 1981)) eta marko edo eskema interpretatibo konkretu bidez azaltzen dituzte (Framing-teoria (Entman, 1993)), arriskuaren diskurtsoak sinplifikatuaz eta sentsazionalizatuaz erantzun eta erruduntasunei buruzko eztabaidak abiaraziaz (Joffe, 2003).

Hau da, GIT-ren arabera, gertaera berriaren irudikapenaren erroak beronen interpretazio zientifikoan daude eta adituen unibertso horretatik jakintza komunera edo pertsonen egunerokotasunera komunikabideen lanaren bidez transmititzen dira batik bat (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002). Halere, premisa honek galdera nagusi bat plazaratzen du: Nola txertatzen da egunerokotasuneko pentsamenduan edo kontsentsu unibertsoetan komunikabideek transformatzen duten jakintza zientifikoa? Gizarte psikologiak errotik ukatu du komunikabideek audientzian efektu zuzena eta aldebakarrekoa dutela. Hau da, besteak beste pertsonen esperientzia pertsonalak, talde identitateak, uste politikoek edota kritikarako gaitasunak komunikabideetako edukia barneratzeko era baldintzatuko dute (Corner, 1991; Joffe & Haarhoff, 2001). Alabaina, gertaera mehatxagarri berriak egunerokotasuneko pentsamenduan txertatzeko unean komunikabideen diskurtsoak duen eragin eta garrantzia ez dago nahikoa operazionalizatua ez psikologia sozialean ezta bertatik kanpo ere (Wagner, Valencia, & Elejabarrieta, 1996). Tesi honetako zenbait artikulutan erabilia izan den *framing*-aren ikuspuntu teoriko eta metodologikotik, ondorio berbera hau azpimarratzen da burututako ikerketa gehienetan (Muñiz, 2007). Igorleak ez du berak bakarrik mezuak barreiatutako esanahia determinatzen; mezuaren eta barreiaduran presente

diren aldez aurreko ikuspuntuen arteko interakzioa baita. Honenbestez, gizarte irudikapenen inguruko ikerlanek oinarrizko aztergaitzat dute baita ere komunikabide-gogamen lotura (Joffe, 2003) kontsentsuzko unibertsoak eraikitzeko bidean berebiziko garrantzidun hodi baitira.

Osasun izurrite berriak gizarte irudikapenen ikuspuntutik

Gizarte Irudikapenen Teoriak psikologia sozialaren aterkipean pertsonek gizarteko fenomeno berriak nola barneratzen dituzten azaltzen du (Moscovici, 1961) eta, honenbestez, lanabes aproposa da pertsonek osasun izurrite berriei nola aurre egiten dieten erdiesteko (Joffe, Washer, & Solberg, 2011). Izan ere, gizarte irudikapenek arrisku berriak ulerkorrago bihurtzeko bidean forma anitz har ditzakete, besteak beste banakoaren gogamenaren edukia (Raudsepp, 2005). Bertan gizarte irudikapena pertsonek azalduriko ideia etaemozioen taldea izango da (Wagner, Duveen, Themel, & Verma, 1999) faktore soziokultural, historiko eta taldeko ideologiek indartua. Oinarri honen eraginez, gizarte irudikapenak adostasuneko entitateak dira kultura edota talde bakoitzaren barnean eta horregatik balizkoak dira talde bakoitzak kolektiboki gertaerak, besteak beste osasun izurriteak, nola barneratzen dituzten erdiesteko.

GIT-aren arabera, pertsonek arrisku berri bati aurre egin behar diotenean berauek erreferentzi historikoetan eta kultura garaikideko sinboloetan oinarrituz eraikitzen (hau da, irudikatzen) dituzte (Joffe, Washer, & Solberg, 2011). Mehatxu berria bi prozesuren bidez asimilatzen da, horrela ulerkorrago bihurtuz. Lehenengo prozesuari “aingura” deritzo (Moscovici, 1984), non antzinako antzeko fenomenoak aukeratzen diren gertakari berria ainguratzeko. Lehenaldiko aingura horien aukeraketak eragingo du gertaera berria larri edo onuragarri gisa hautematea (Joffe, 1999; Washer, 2006). Adibidez, HIES-a eta “plaga” hitzaren artean

egindako loturak bere larritasuna potentzialki handitu zuen, nahiz eta “gay plaga” bezala izendatu izanak talde horretatik at zeudenak gaixotasunaz libre zeudela pentsatzera eraman zituen. Beste adibide bat, 2009-2010 urteetako txerri gripe pandemia eta 1918-1919 urteetako gripe pandemiaren artean egin ziren loturak ditugu. Izan ere, txerri gripea milioika pertsona hil zituen gripe horrekin lotzean, bere larritasun irudia nabarmenki igo zen. Aldiz, urteroko ohiko gripearekin lotu izan balitz, bere larritasun irudia askoz txikiagoa izango litzatekeen. Honenbestez, aingura prozesuak ez du soilik osasun izurrite berriaren larritasuna erdiesten, izurrite berria lehenaldian gertatutako beste gaixotasun infekziosoezin ere lotzen du. Ondorioz, aingurak eragin sakona du pertsonen kontzientzian erantzun emozionala bultzatuaz (Joffe, Washer, & Solberg, 2011).

Gertaera berria asimilatzeko beharrezko den bigarren prozesua “objektibizazioa” dugu (Moscovici, 1961, 1984). Objetibizazioan pertsonek beraien egunerokotasuneko sinbolo eta metaforak erabiltzen dituzte gertaera berriei zentzua topatzeko. Hau da, objetibizazioaren bidez fenomeno abstraktuak, adibidez bakteria infekzio bat, ulerterrazago bihurtzen dira entitate konkretuago batean islatuz. Objetibizazioak era anitz izan ditzake (Moscovici & Hewstone, 1983). Hasteko, fenomeno berria konkretuago bihur daiteke irudien bidez. Adibidez, ebola izurritea Afrikako edo zientzia fikziozko zenbait irudirekin lotu izan da, era honetan mendebaldeko biztanleak gaixotasunarekiko distantzia hartuaz eta urrutiko zerbaite bezala hautemanaz (Joffe & Haarhoff, 2002). Bestalde, gaixotasunak objektibizatzeko banako edo talde konkretuetan ere sinboliza daitezke. Adibidez, estatubuarrek Arnas Aparatuko Síndrome Larria (SARS) txinatar izatearekin lotutako gaixotasun gisa sinbolizatu zuten, EEBB-ak gaixotasunaren sorretarik urrutiratuaz (Eichelberger, 2007). Ondorioz, objektibizazio prozesuak, eta bereziki aukeratutako irudi edo

Social Representations of EID

sinboleok, *self-a* fenomeno berriatik urrunzeko edo beraietara hurbiltzeko ere balioko du.

Honenbestez, eta aurreko guztia bateratuaz, aingura eta objektibizazioak osasun izurrite berrieik *self-arentzako* duten larritasun maila zedarrituko dute. Honela, arriskua urrutiko lurralte eta pertsonekin lotzen bada, larritasun gutxiko gisa hautemateko aukera gehiago izango ditu. Halere, kontutan hartu behar dugu baita komunikabideak objetibizazio lanabes garrantzitsu ditugula gizarte modernoan. Aipatu dugun bezala, arrisku gizartearren barnean eta komunikabideen arrisku diskurtsoaren eraginez, gaixotasunen globalizazio ikuspuntua geroz eta indar gehiago hartzen ari da. Urrutikoa jada ez dago hain urrun, alde batetik nazioarteko bidaien erraztasunei esker, eta bestetik, herrialdeetako mugak jada fisikoak ez izanik ez dutelako balio gaixotasunetatik babesteko. Halatan, mehatxuarekiko identifikazioa prozesu konplexua dela kontutan izan behar da eta mehatxua inguratzen duen sinbolizazioa sakonki aztertu beharra dago pertsonek kalte ditzaketela hautematen duten edo ez xedatzeko (Joffe, Washer, & Solberg, 2011). Ondorioz, bai aingurapenak, lotura historikoen bidez, eta baita objektibizazioak ere, sinbolo garaikideekiko loturen bidez, arriskuek sortutako mehatxuaren irudikapena ahuldu edo indar dezakete (Joffe, Washer, & Solberg, 2011).

Ikerlan honen jomuga eta giltzarri nagusiak

Eskuartean dugun doktoretza tesiak osasun izurrite berriak gure eguneroko pentsamoldetik nola ulertzen eta gizarteratzen ditugun aztertuko du Gizarte Irudikapenen Teorian oinarrituaz. Horretarako, ikuspuntu psikosozial bat jarraikiz, azaleratutako gaixotasun infekziosoak gure gizarteko eguneroko bizitzan eta pentsamenduan duten eragina izango da ikerlan honen jomuga nagusia.

Osasun izurriteen eragin soziala erdiesteko hainbat giltzarri aztertu behar direla ondoriozta dezakegu orain arte landutako sarreraren bidez. Lehenik eta behin pertsonak ditugu, baina guk ez ditugu pertsonak banako gisa aztertuko, ezta masa gisa ere. Pertsonak gizartean barneratutako talde gisa aztertuko ditugu. Izan ere, talde bakoitzak bere ezaugarri, testuinguru, zein gertakari historikoek baldintzaturik eraikiko baitu osasun izurrite berrien gizarte irudikapena, eta honela integratuko baititu beraien eguneroko bizitza eta pentsamenduan.

Bigarrenik, komunikabideak ere kontutan izan beharko ditugu, izan ere nabarmenki azpimarratua izan da diskurtso mediatikoaren garrantzia osasun izurrite berrien irudikapen kolektiboak eraikitzeko unean. Alde batetik, ezbairik gabe komunikabideek izurriteak era ulerkorrago batean plazaratzea ahalbidetzen dute. Bestetik, ordea, komunikabideek plazaratutako arriskuari buruzko diskurtsoak, beraien ulermena erraztu ordez, sentsazionalizatu eta lausotu egiten ditu, arriskuaren gizartea indartuaz. Beraz, komunikabideak eta haien diskurtsoa osasun izurriteetako elementu gako bezala aztertu behar dira, beraiek baitira nolabait gaixotasunaren jakintza zientifikoa pertsonekin eta pertsonak bizi diren gizartearekin lotzeko lanabes nagusienetariko bat.

Social Representations of EID

Izan ere, gizartea bera da, gure kasuan mendebaldeko gizartea, da osasun izurriteetako hirugarren giltzarria. Nabarmenki, bai pertsonak eta baita komunikabideak ere gizartearen barnean daude, baita autoritate zein industriak ere, baina gizartea guzti horren batura baino gehiago da. Haatik, arriskuaren gizartean bizi baldin bagara, Beck-ek proposatutako gisara, gizartea bera ere elementu aktiboa da osasun izurriteen gizarte irudikapenak eguneroko bizitzan integratzeko orduan. Era berean, pertsonen gizarte irudikapenek eta diskurtso mediatikoek ere gizartean eragin zuzena izango dute. Beraz, hiru giltzarriak lotuta daude haien artean eta bata besteak gabe ezin daiteke ulertu.

Honenbestez, ikerlan honek hiru oinarrizko galdera erantzutea du funts nagusitzat:

1) “Zein gizarte irudikapen ditugu osasun izurrite berriei buruz?”

Lehen galdera honen bidez, osasun izurrite berriak eguneroko pentsamenduan nola ulertzen diren erdietsi nahi dugu. Horretarako, Gizarte irudikapenak erabiliko ditugu, osasun izurriteak bezalako gertaera mehatxagarriak gure eguneroko bizitzan barneratzeko gakoak diren lanabesak baitira. Gainera, irudikapen kolektiboek osasun izurrite ezberdinaren artean loturak ezartzea baimentzen digute, honenbestez egungo izurriteak iraganekoekin lotzetik haratago etorkizuneko izurriteekiko aurreikuspenak ere egitea ahalbidetuz.

Gainera, gizarte irudikapenak bi eremutan aztertzeko beharra dago, alde batetik eduki mailan eta bestetik baita prozesu mailan ere. Eduki mailan osasun izurriteak gure gizartean nola ulertzen diren aztertzea da gure xedea, zein eduki konkretu dute?, zein aktore edo parte implikatuk dute garrantzia osasun izurriteetan?, badaude osasun izurrite guztien artean

partekatuak diren ideiak edo errepikatzen diren eredu edo patroi kolektiborik?.

Prozesu mailan berriz, jomuga gizarte irudikapenen sorrera eta eraldatze prozesua aztertzea litzateke. Prozesu honetan noski aingura eta objektibizazioa giltzarri izango dira. Baino gainera, ikerlan honetan osasun izurrite berriei buruzko irudikapenak fenomeno sozial zabalagoekin bat aztertu beharreko elementu gisa ulertzen dira, besteak beste talde identitateak, talde arteko aurreiritzia edota desberdintasunak. Honenbestez, osasun izurriteekiko gizarte irudikapenen esanahien eraikuntza prozesuak ezin ditzakegu unibertsal gisa ulertu, testuinguru sozial zein kulturalak nabarmenki baldintzatuko baititu. Halatan, osasun izurriteei buruzko gizarte irudikapenen eraketa eta eraldaketa prozesuan zein eragin konkretu dute talde identitateek?, gizartearren eraldaketak berak ere aldarazten du osasun izurriteak irudikatzeko era?

2) “Zein da osasun izurrite berriei buruzko diskurtso mediatikoaren eragina gizarte irudikapenen eraikuntzan?”

Bigarren ikergaldera honen xeda diskurtso mediatikoaren edukia eta eduki horrek gizarte irudikapenen abiarazle eta eraldatzaile gisa duen garrantzia aztertzea da. Edukiari dagokionez, eduki konkretuak, hau da komunikabideen diskurtsoan landutako gaiek bere garrantzia dute, noski, baina baita eduki horretan errepikatzen diren eskema interpretatiboak dauden azterteak ere. Beraz, eduki azterketa horretan galdera hauen erantzuna erdietsiko da: zein da komunikabideek osasun izurrite ezberdinei buruzko estalduran landutako edukia?, eduki konkretuaz gain badago diskurtso horretan marko edo eskema interpretatibo mediatiko komunik?, edukia errepikakorra da izurrite guztietañ, edo aldatzen doazen elementuak

Social Representations of EID

ditu?, osasun izurrite baten barnean ere denboraren poderioz bai edukia eta baita marko interpretatiboak aldatzen doaz? eta hala bada zergatik?.

Bestalde, komunikabideen eraginaren prozesuaren azterketa burutzeko eduki mediatikotik abiatuz, irudikapen kolektiboen azterketara jo behar dugu. Horretarako alde batetik, bi elementu gako hauen artean ezaugarri komunak bilatz, eta bestaldetik, prozesuaren eraginaren beraren implikazioak maila sakonagoan aztertuaz. Hau da, zein elementu komun dituzte osasun izurrite konkretu bati buruzko gizarte irudikapenek eta momentu horretako diskurtso mediatikoak?, diskurtso mediatikoaren eragina zein alorretara zabaltzen da, hau da, adibidez arriskuaren irudikapenean edo pertsonen erantzun emozionalean eragin zuzenik du?, noraino heltzen da diskurtso mediatikoaren eragina? Eta puntu hau hurrengo galderarekin lotuaz, komunikabideen diskurtsoaren eragin horrek jakintzaren transformazioa abiarazten du maila zientifikotik egunerokotasuneko pentsamendura gehiago hurbilduaz?

3) “Zein eragin du gizartea osasun izurriteak egunerokotasuneko pentsamenduan txertatzean?”

Esan bezala, tesi honen aztergai nagusia osasun izurriteei buruzko jakintza zientifika mendebaldeko gizarteetako egunerokotasuneko pentsamenduan nola integratzen den aztertzea da. Hau ikertzeko, gizartea bera testuinguru izatetik haratago elementu aktibo gisa ere kontuan izan beharra dago. Hasteko, arriskuaren gizartearen markoak ere nolabait bideratzen ditu osasun izurriteei buruzko irudikapenak eta berari buruzko diskurtso mediatikoa? Hala balitz, hortik eratorritako kontsentsuzko unibertsoek zein eragin dute gure egungo gizartean eta zein implikazio etorkizuneko gizarteeek osasun izurriteei era eraginkorragoan erantzuteko?

Bestalde, gizartearen analisiari jarraiki egungo gizartearen ikur garrantzitsuenetariko bat era digitala dela ere presente izan behar dugu. Komunikazio era monologikoetan oinarritutako orain arteko komunikabide tradizionaletatik haratago, komunikazio dialogikoan oinarritutako komunikatzeko era digital berriak (adibidez, sare sozialak) bor-bor egiten ari dira. Hauek ere osasun izurrite berrien gizarte irudikapenen eraldaketan aztertu beharra direlarik ondorengo galderak plazaratuaz: zein garrantzia dute sare sozialek gizartearen isla gisa?, diskurtsoa bera eraldatuz doa komunikabide tradizionaletatik sare sozialetara, hau da, komunikazio maila zientifiko batetatik kontentsuagotu batera igarotzea ahalbidetzen dute sare sozialek?, hala balitz, diskurtso horiek jakintza irudikatzeko eta barneratzeko era desberdinena isla dira?.

Beraz, eta esandako guztiaren laburpen gisa, azken hamarkadetan azaleratutako osasun izurrite berrien bidez gizartean sortutako mehatxua areagotuz doa. Maila mediku-zientifikotik at, izurrite berri hauek maila psiko-sozialean eragin nabarmena dute gizartea ulertzeko era baldintzatzen baitute. Horregatik, ezinbestekoa da osasun izurrite berriak eguneroko bizitzako kontentsuzko unibertsoetan integratuaz nola ulertzzen diren aztertzea, komunikabideak prozesu horretan gako izango direlarik. Guzti honengatik doktoretza tesi honetan osasun izurrite berriei buruz ditugun gizarte irudikapenak nola sortu, barneratu eta gizartean zein eragin duten aztertuko dugu.

Tesiaren alderdi epistemologikoa

Gizarte irudikapenen ikerkuntza metodoak

Gizarte irudikapenak enpirikoki ikertzeko orduan metodo kualitatibo zein kuantitatibo anitz erabiliak izan dira, bai bakarka eta baita metodo ezberdinak konbinatuaz ere (Flick, Foster, & Caillaud, 2015). Guztien artean aukeratzeko, aztertu nahi den gai eta ikerkuntza erarekiko hausnarketa burutu beharra dago. Izan ere, ez dago bereziki gizarte irudikapenak aztertzeko sortutako metodorik, ezta gailentzen denik ere. Honenbestez ikerlariak noren gizarte irudikapenak eta zein mailatan aztertu nahi dituen erabaki beharko du egokiena zaion metodoa aukeratzeko (Flick, Foster, & Caillaud, 2015). Esku artean dugun doktoretza tesi honen kasuan ere ikerketa metodo ezberdinak nahastu ditugu, azterketa kuantitatibo eta kualitatiboak elkarlanean erabiliaz. Alabaina, bereziki aipatu nahiko genuke kluster analisi hierarkiko beherakorrean oinarritutako analisi lexikalerako Alceste metodoa, izan ere metodo hau tesiko ikerlan gehienetan erabili baitugu.

Zer da Alceste metodoa?

Gizarte irudikapenen arloan sarritan kluster analisi hierarkikoa erabili izan da. Alceste (Reinert, 1983, 1990, 1996) kluster analisi beherakorrean oinarritzen den analisi lexikal estatistikozko metodo bat da. Bere helburua hizkuntzaren patroi errepikakorrak identifikatzeko hitzen arteko antzekotasun eta ezberdintasun estatistikoak aztertzea da (Wagner & Kronberger, 2003).

Zehazki, softwareak egiten duen lehenengo gauza hiztegi bat osatzea da; horretarako “lanabes hitzak” baztertu (artikulu, izenorde, juntagailu) eta “hitz osoak” (izen, aditz, adjektibo, izenlagun) soilik edukitzten dira

kontutan. “Hitz osoak” maiztasun minimo batekin errepiatzen badira (gutxienez lau aldiz lehenetsita dagoelarik) Alcestek erroetara laburtuko ditu. Analisiaren lehenengo urratsa corpora Testuinguruko Oinarrizko Unitateetan (Elementary Contextual Units -ECU-) banatzea izan da, zeintzuek esaldi batez edo bitaz osatuak dauden (30-50 hitz inguru) (Kronberger & Wagner, 2000). ECU-ak eta hitz erroak gurutzatu egin dira kontingentzia taula bat sortzeko, zeinek hiztegiaren banaketa azalduko duen ECU-ekiko. Kontingentzia taula horretatik abiatuta, distantzia karratuen matrize bat sortzen da, non, bi ECU hurbilekoak izango diren aztertutako hitzen bat partekatzen badute (ikus Reinert, 1996).

Ondoren, kluster analisi hierarkiko beherakor bat burutzen du Alcesteak aipaturiko distantzia karratuen matrizearekin. Estrategia honen bidez, testuen interpretazioa errazten da, klaseak batera ematen diren hitzetatik ateratzen baititu. Klase bakoitzak gutxienez ECU-en %5-a izan behar du. Estrategia honek ikertzailea corpusean dauden unibertsotik lexikal garrantzitsuenak identifikatzen lagunduko du (Reinert, 1996).

Metodo hau erabiliaz eratorritako hitz klase bakoitza gai konkretu bati lotuta egongo da, eta ikertzailean interpretatu beharko du. Interpretazio lan horretan laguntzeko, programak Ahi karratu balio bat esleitzen dio klase bakoitzari lotutako hitz tipikoei (Kronberger & Wagner, 2000; Lahlou, 1996a). Klase lexikalak identifikatu ostean, aldagai “pasiboekin” (aldagai askeak) lotura esanguratsua duten azter daiteke. Gainera Chi-Karratu estatistiko bat ere kalkulatzen du Alcestek klase bakoitzak aldagai askekin duen lotura mugatzeko.

Alceste metodoa sarritan erabilia izan da gizarte irudikapenak aztertzeko orduan (Idoiaga, Gil de Montes, & Valencia 2015, 2016a, 2016b; Kalampalikis, 2005; Klein & Licata, 2003; Lahlou, 2001), lortutako emaitzak iker lerro honetan erabilitako beste metodologia batzuekin bat

datozela ondorioztatuaz (Lahlou, 1996b). Izan ere, unibertso lexikalak aztertuaz gizarte irudikapenetan funtsezko diren hizkuntzaren esanahi partekatuak identifikatzea ahalbidetuko du Alcestek (Gilles, Bejaoui, Courvoisier, & Clémence, 2014).

Zergatik alceste metodoa gizarte irudikapenak aztertzeko?

Reinertek (1983) Alceste metodoa nolabait asoziazio askean oinarritu sortu zuen, bereziki bere oinarri psikoanalitiko Freudiar eta Jungiarrean (Allum, 1998). Psikoanalisi Freudiarrean (Freud, 1917) subjektuari libreki gai bati buruz hitz egiteko eskatzean ideia eta pentsamendu inkontzienteak azaleratzen dituela babesten da. Beraz, pertsonaren inkontzientea nolabait asoziazio askean esandakotik ondoriozta daiteke. Jung (Jung, 1999), ideia horretatik haratago joan zen eta baiezttu zuen bazela inkontzientearen parte bat, inkontziente kolektiboa, zeinek mundu kultura zehatz batetako oinarrizko mito, ideia eta pentsamenduak barneratzen zituen (Bertine, 1967). Beraz, asoziazio askeak gizakiaren izaera sozial eta kulturalaren ulermen sakonagoa probestu lezake. Honenbestez, testu baten barnean emandako hitzen asoziazioen edo batera agertzeen analisiak erabilkortasun nabaria du pentsamendu kolektiboa aztertzeko orduan, eta hori da preseski Alcestek egiten duena. Hau da, bere aztergaia ez da testuaren esanahi semantikoa, baizik eta hizkuntzaren edo diskurtsoaren analisia partekatutako irudikapen gisa.

Gizarte irudikapenen alorrean Alceste erabilitako ikerlanek (Idoiaga, Gil de Montes, & Valencia 2015, 2016a, 2016b; Kalampalikis, 2005; Klein & Licata, 2003; Lahlou, 2001) maila enpirikoan frogatu dute metodo honek gizarte irudikapenak aztertzeko duen gaitasuna, mundu lexikalen eta irudikapen partekatuen artean sortutako simetriren bidez. Azken finean, hizkuntzak pertsonentzako erreferentzi unibertso partekatuak sortzen ditu.

Honenbestez, Alceste erabiliaz ez dira gizarte irudikapenak hizkuntzan aztertzen, baizik eta gizarte irudikapenak hizkuntza gisa. Izan ere, gizarte irudikapenen hizkuntzak edota diskurtsoak hitz eta ideiak, imajina eta kontzeptuak, pertzepzio eta kognizioak, behaketa eta interpretaziok barne ditu eta bateratzen ditu jakintza eta komunikazio funtzioak aldi berean beteaz (Kalampalikis, 2005). Azken finean, hizkuntzaren eta diskurtsoaren bidez gure errealtitatea eraikitzen dugu eta horregatik bere azterketak gizarteko adierazpen kultural partekatuak ikertzea ahalbidetzen du (Geertz, 1986).

Alceste vs. eduki analisi klasikoa

Alceste metodoa eduki analisi klasikoarekin konparatu izan denean (Allum, 1998) ondorioztatu izan da metodo biek konstruktu baliozkotasun maila bera erator zezaketela. Izan ere, Alcestek potentzialki errepikagarriak diren emaitzak lor ditzakeen arren, ez du inolaz ere ikertzailearen rola baztertzen. Nolabait software honek interpretazio prozesua analisi estatistikoa burutu ostera mugitzen du, eduki analisi klasikoan aurretiaz burutzen delarik, kodetze markoak eraikitzean (Allum, 1998). Honenbestez, emaitzen interpretazio desberdinak egon daitezkeen arren (metodo kuantitatibo guztieta bezalaxe) Alceste metodoak, beste metodo batzuei leporatzen zaizkien fidagarritasun eta baliozkotasun arazoak saihesten ditu (Klein & Licata, 2003; Reinert, 1996). Azkenik, aipatu beharra dago testu kantitate handiak aztertzeko metodo ezin hobea dela, testu luzeetan bestela identifikatzeko zailak liratekeen patroiak errez antzematen baititu.

Kapituluuen gainbegiratua

Ikerlan honen mamian barneratu baino lehen, doktoretza tesiari buruzko zenbait oinarritzko gako argituko ditugu ondorengo lanen ikusmira orokorra izateko eta zer, non eta nola ikertuko den jakiteko gainbegiratua baten bidez.

Ikerketa objektuari dagokionez, doktoretza tesi honek, jada aipatu dugun bezala, hiru jomuga nagusi ditu. Lehenik, pertsonak (beti ere taldeen partaide gisa), haien gizarte irudikapenak eta baita osasun izurriteekiko erantzun kognitibo-emozionala ere. Bigarrenik, komunikabideen diskurtsoa, diskurtso hau nolakoa den aztertuko dugu, dituen patroi komunak eta baita zein ondorio dituen ere. Azkenik, gizartea bera ere ikertuko da, testuinguru izatetik haratago aurreko biekin elkarrekintza aktiboa izango duen elementu gisa.

Ikerketa testuinguruari dagokionez ere hiru testuinguru ezberdin bereiziko ditugu. Gainera, testuinguru hauen bereizketak doktoretza tesia hiru ikerketa-bloke nagusitan banatuko du. Lehenengo blokean, jada bukatua dagoen osasun izurrite bat aztertuko dugu, 2009-2010 urte arteko txerri gripea (H1N1), A gripe deiturikoa, hain zuzen ere. Txerri gripeak berau sortu zen herrialdean, hau da Mexikon, eta Spainian izandako inpaktu mediatiko eta soziala izango dugularik lehen bloke honen jomuga. Bigarren blokean testuinguru esperimental bat sortuko dugu, horretarako osasun izurrite hipotetiko bat sortuaz eta zenbait pertsona talderi plazaratuaz beraien erantzunak behatzeko asmotan. Sortutako testuinguru “artifizial” honen bidez osasun izurriteek gizarteratzeko diskurtso mediatikoak pertsona talde ezberdinengan izandako eragina modu esperimental batean ikertuko da. Azkenik, hirugarren blokean egungo osasun izurrite baten erdian, “krisi-momentu” nagusian, kokatuko gara,

2014an bereziki nabarmendutako ebola izurritean preseski. Osasun krisi erreal honen zurrubiloaren erdian kokatuta, gizartean eta komunikabideetan arreta gehien sortu zuen hilabetetan zehar aztertuko dugu. Ondorioz, osasun krisi momentu gordinenak aztertzea izango dugu jomuga, bai diskurtso mediatukoa aztertuaz (komunikabide tradizionalena eta baita sare sozial berriena ere), baita pertsona taldeetan ebolari buruzko gizarte irudikapenak eta hauei loturiko erantzun emozionala ikertuaz, eta ondorio gisa baita gizartean izandako inpaktuari buruz hausnartuaz ere.

Halere, hiru iker blokeak ez ditu beraien testuinguruak soilik bereizten, noski, bakoitzak tesia den ikerlanaren ildoan funtsa garrantzitsua baitu. Lehenengo blokearen bidez osasun epidemia baten bilakaera eta bere estaldura mediatikoaren deskribapen sakona burutuko dugu. Hau da, osasun izurriteek komunikabideetan izandako isla sakonki aztertuko dugu. Behin deskribapena errrotuta, bigarren blokera pasatuko gara eta berak duen izaera esperimentalaz baliatuz osasun izurriteen eta beraien diskurtso mediatikoaren eragina erdietsiko ditugu. Hau da, jakintza unibertsio zientifikotik egunerokotasuneko pentsamendura komunikabideen bidez nola transformatzeten doan aztertuko dugu. Azkenik, hirugarren blokean osasun izurriteek gizartearren garapenean duten eragina eta beraien esanahi soziala landuko ditugu aurreko bloke deskriptibo eta esperimentalala borobilduaz. Hau da, osasun izurrite berrien kontsentsuzko unibertsoei buruzko gogoeta burutuko dugu.

Bukatzeko, ohar txiki gisara, aipatu nahiko genuke doktoretza tesi honetako ikerlanen atala sei artikuluk osatzen dutela. Tesi hau defendatutako unean sei artikulu horietatik lau jada argitaratuta daude, eta beste biak errebisio prozesuetan murgilduta. Honenbestez, eta iker objektu berari buruzko sei lan diren heinean, bakoitza bere osotasunean

Social Representations of EID

ikerlan bat izanik, eduki batzuk (bereziki alderdi teoriko eta metodologikotakoak) errepika daitezke.



OSASUN IZURRITEAK
KOMUNIKABIDEETAN

1. Kapitula: Komunikabideek osasun izurriteak plazaratzeko duten era (*framing*) eta honen isla gizartean

Idoiaga N., Valencia, J., Gil De Montes, L., & Ortiz, G. (2012). Framing effects and social representations of health epidemics: The case of influenza A. *Escritos de Psicología*, 3, 31-42. doi:10.5231/psy.writ.2012.0211

Idoiaga, N., Gil De Montes, L., & Valencia, J. F. (2015). Osasun-krisiei buruzko gizarte irudikapenak: A gripearen kasua Mexiko eta Espainiako hedabideetan [Social representations about health crisis: Influeza A in Spanish and Mexican mass media]. *Uzgarri*, 94, 69-89.

Abstract

The present paper analyzes mass media coverage designed to inform about A influenza pandemic and its influence on the social representation of the illness. To explain mass media influence on social representation both, framing theory and a model of collective symbolic coping were used. The research study mainly of analyzing the information about A influenza provided by national newspapers in Mexico and Spain from 2009 to 2010. Results showed that that the development of the crisis affected the prevalence of different kinds of frames to capture the information in the media. The prevalent use of the diverse types of frames led to processes of collective symbolic coping. Theoretical implications of this research are explained by relating framing, social representations and the role of media.

Keywords: Media; Influenza A (H1N1); Framing, Collective Symbolic Coping; Social Representations.

Social Representations of EID

Inguratzen gaituzten gertakarien artean, arrisku egoerek (pandemiak, hondamendiak, mehatxu kimiko edo nuklearrak etab.) leku garrantzitsua dute sinbologia sozial kolektiboan. Horrela, egungo mundu globalizatuari “arrisku gizarte” izena eman diote (Beck, 1992, 1999b, 2006). Izan ere, nahiko argi dago, komunikabideek gai hauei buruz eginiko kontaketak aktiboki eragiten duela eraikuntza sinbolikoan, batzuetan arrisku egoerak krisi egoera bilakatze arte (Altheide, 2010; Gonzalo & Farré, 2011).

Ikerkuntza honek azken urteetako inpaktu mediatiko eta sozial handienetarikoa izan duen arrisku egoera bati buruzko hausnarketa plazaratu nahi du, hain zuzen ere, A Gripeari (H1N1) buruzkoa. Osasun izurrite honen eraketa sinbolikoan komunikabideek izan duten eragina aztertzea da preseski lan honen jomuga nagusia. Analisi horretarako bi ikuspuntu teoriko garrantzitsu erabiliko ditugu: *Framing-a* eta *Colective Symbolic Coping* (CSC) eta erreferentzi geo-sozial bezala Mexiko (pandemia hau sortu zen herrialde gisa) eta España hartuko ditugu.

A Gripea (H1N1) 2009-2010eko pandemia

A Gripea (H1N1), txaurreko gripe gisa ere ezagutua, 2009ko martxoan antzeman zen lehenengo aldiz Mexikon, ondoren EEBBetara zabaldu zelarik. 2009ko apirilean, Ipar Amerikan sortutako izurritearen eraginez, gripe birusa oso arin zabaldu zen mundu osoan zehar. Momentu horretatik aurrera, mundu mailako komunikabideak gripearri buruzko informazioa barreiatzen hasi ziren eta Osasun Mundu Erakundeak (OME) berak ere onartu zuen historian lehen aldiz pandemia baten garapena unez une jarraitu ahal izango zuela.

Mundu osoan zeharreko herrialdeek neurri bereziak hartu zitzuten gripeareen kutsatzea ekidin edo gutxitzeko, besteak beste, osasun alertak aktibatuz edo leku publikoak itxiz. Gainera, neurri hauen osagarri gisa eta

gripe berriari aurre egiteko baliabide nagusitzat antibiral eta txertoak ere erosi zituzten. 2009ko ekainean, OME-k gripea pandemia izendatu zuen, birusa kutsagarria zela eta pertsonen artean eta herrialde batetik bestera erraz barreiatzen zela onartuz. Momentu horretan, 30.000 kasu zeuden baieztatuta 74 herrialde ezberdinetan.

Halere, 2009ko uda aldera OME kritikak jasotzen hasi zen, batez ere komunikabideen eskutik, besteak beste, gehiegizko alarma sortzea, gardentasun falta, pandemiaren definizioa aldatzea edota industria farmazeutikoarekin interes gatazka izatea leporatzen zioten. OME-k erantzun zien beraiak burututako erantzunak aurrezarritako protokoloei erantzuten zietela, baina, halere, ikerketa-mekanismoak aktibatu behar izan zituen, hots, Azterketa Komitea martxan jarri, edota Europar Kontseiluan pandemiaren aurrean buruturiko kudeaketari buruz azalpenak emanaz.

2010eko abuztuaren 10ean, OME-k A Griparen (H1N1) pandemia bukatu zela esan zuen, zeinek zabalkunde handia izan arren heriotza tasa baxua izan zuen. Gaixotasun honek eraginda, guztira 18.449 pertsona hil ziren 214 herrialdetan (WHO, 2010).

***Framing* eta komunikabideak**

Hedabideek gertakariak eta giza arazoak enkoadratzen edo enmarkatzen duten kontakizunerako era zehatzak, pertsonek horiei buruz duten joeran eta interpretazioan eragina du. Halere, maila indibidualetik haratago enmarkamendua maila sozialean ere beha daiteke sozializazio politikoan, erabaki hartzeetan, edo ekintza kolektiboetan duen eraginagatik (De Vreese, 2005; Reese, Gandy, & Grant, 2001). Dena dela, *frame* edo markoak ez dira soilik testuetan agertzen, baizik eta mezua agertzen den igorle, hartzale eta kulturan ere (Entman, 1993). Hau da, *framing*-ari buruzko literaturak bere izate bikoitza planteatzen du: markoak bai

Social Representations of EID

diskurtsoan eta baita banakoen kognizioan baitaude, *framing-a* biak batzen dituen influenzia sozialeko prozesua delarik (Pan & Kosicki, 2005). Gizarte Psikologiako zenbait artikulu zientifikoetan “enmarkamendua” edo “marko” adierak erabiltzen dituzte, baina, beste zenbaitetan, hain zuen gehiengoan “framing” eta “frame” angloizmoak erabili ohi dituzte. Artikulu honetan, batez ere ingelezko hitzak erabili dira.

Nahiz eta zuzenean ez erabili komunikabideen eraginari erlazionatuz, Goffman-en *framing-ari* buruz eginiko ekarpena (1974) onartuenetarikoa izan da komunitate zientifikoan. Autore honen aburuz, markoak edo *frameak* “interpretazio eskemak” dira, eta jendeari bizitzako gertaerak “zentzu edo esanahia duen zerbaite bezala” antolatzeko aukera ematen diote. Beraz, *frameak* oinarriz antolatzaleak dira, sozialki partekatuak eta denboran iraunkorrik, gizartea antolatzeko eta egituratzeko sinbolikoki dihardutenak (Reese, Gandy, & Grant, 2001) . Hau da, beste era batean esanda, *frameak* egoera *definitzeko* era dira (Pan & Kosicki, 2001). Ikuspuntu honi jarraituz, Entman-en arabera (1993) markoek ondorengo ezaugarriak betetzen dituzte: a) arazoak definitzen dituzte, b) arazoaren kausak aurkitzen dituzte, c) arazoaren iturriari buruzko judizioak egiten dituzte edota d) arazoentzako konponbideak proposatzen dituzte.

Onartu beharra dago *framing-aren* teoriak nahasmen kontzeptual eta terminologikoa izan duela ezaugarri gisa (De Vreese, 2005; Entman, 1993; Pan & Kosicki, 2001; Scheufele, 1999; Scheufele & Tewksbury, 2007) . Horrela, nahiz eta autore batzuk *framing* teoria *agenda-settingaren* bigarren mailako analisiari dagokiola pentsatu (McCombs, 2006), komunitate zientifikoaren artean onartuta dago *framingaren* teoriak *agenda-setting* eta *priming*-arekiko duen nolabaiteko autonomia, nahiz eta era berean onartu, bere izaera osagarria eta maila aplikatuaren gehigarrian erabiltzeak duen komenigarritasuna. (Kosicki, 2001; Scheufele, 2000; Scheufele &

Tewksbury, 2007). *Agenda-Setting* teoriak defendatzen du komunikabideek iritzi publikoari ez diotela inposatzen zer pentsatu baina bai ordea, zein gai publikori buruz pentsatu. Komunikabideek gai bat plazaratzean, honek gizartean gai hau garrantzitsua dela pentsarazten du. Bestalde, *priming*-ak iradokitzen du komunikabideek zein albiste argitaratu eta zein ez aukeratzean jendeak gai horiei buruz duen iritzian eragiten dutela (Iyengar & Kinder, 1997). Pertsonek gaiak ebaluatzeko orduan hedabideek landutako azken gaiak kontutan hartzean, *priming* prozesua gertatzen da. Horrela, *agenda-setting* eta *priming* teoriek komunidabideek “zer” argitaratzen duten dute oinarri gisa; *framing*-ak berriz hedabideek gaia “nola” aurkezten duten (Pan & Kosicki, 2005). Hau da, *agenda-setting* eta *priming* teoriak hedabideek gertaerei ematen dieten garrantzi edo gailentasunean oinarritzen dira eta *framing*-a kausa egozpenetan (Scheufle, 2000). *Journal of Communication* aldizkari ospetsuak bere 57 zenbaki osoa (2007) erabili zuen *Agenda*, *Framing* eta *Priming*-a aztertzeko eta gai honetan prestigiotsuen diren ikertzaleek (Robert Entman, David H. Weaver, David Tewksbury eta Dietram A. Scheufele) autonomia eta osagarritasunaren ikuspuntu bikoitz hori azpimarratu zuten.

Framing kontzeptua era anitzetan definitua izan den arren (Scheufele, 1999; Tankard, 2001), edo aniztasun horri esker, lortu du maila batean *framing*-ak komunikazioa lantzen duten diziplinetan bultzada (Vicente & López, 2009), bai eduki analisia (*frame-building*) eta baita komunikabide eta iritzi publikoaren arteko erlazioa (*frame setting*) jorratzen duten ikerketen marko teoriko bilakatuz (De Vreese, 2005).

Framing eduki-analisia egiten duten ikerketetan *frame* mediatikoei buruzko bi korronte nagusi desberdintzen dira (De Vreese, 2005; De Vreese, Peter, & Semetko, 2001). Alde batetik, marko edo *frame*-en ikuspuntu generiko bat dago (*generic approach*) eta bestetik, ikuspegi tematiko

Social Representations of EID

konkreto bat (*issue-specific approach*). Marko edo *frame* generikoak gai konkreto batetik edo ikuspegi tematiko batetik haratago doaz eta gertaera ezberdinak, momentu eta testuinguru ezberdinetan aztertzeko erabil daitezke. Bestalde, marko edo *frame* tematikoak gertaera konkretuei egiten diete erreferentzia bereiziki beraiek aztertzeko sorturiko kategoriekin. Semetko eta lagunzaileen (Semetko & Valkenburg, 2000; Valkenburg, Semetko, & De Vreese, 1999) marko generikoei buruzko ikerketa lerroak lan honetan erabiliak izango diren bost *frame* nagusi identifikatzen ditu: gatazka, pertsonekiko interesa, ondorio ekonomikoak, moraltasuna eta erantzukizuna egoztea. Hainbat ikerkuntzetan Semetko eta Valkenburg (2000) proposaturiko bost *frame* hauek erabili dituzte eta baiezztaturik gelditu da baliagarriak direla hainbat gai politiko eta sozial aztertzeko, hala nola immigrazioa, krisiak edota genero berdintasuna (Ann & Gower, 2009; Igartua et al., 2004; Kenix, 2008; Valencia, Gil De Montes, Ortiz, Larrañaga & Idoiaga, 2010).

Gatazka frame-ak pertsonen, taldeen edota instituzioen artean gerta daitezkeen gatazkak adierazten ditu, audientzia mailarik altuenak lortzeko asmotan. Adibidez, El País egunkarian: “Txinak nahiago du huts egin ardura gehiegi jartzeagatik eta Mexikok bere biztanleak oinarririk gabe baztertzea leporatzen dio (Reinoso, 2009)”. Semetko eta Valkenburgek (2000) azaltzen duten bezala, historikoki *gatazka frame*-a EE.BBtan gehien erabilitako *frame*-a izan da, batez ere politika arloan, non, adibidez, komunikabideak klase politikoarekiko zinismoa eta mesfidantza bultzatzeagatik kritikatuak izan ziren. Autore hauen ikerketan gehien erabilitako bigarren *frame*-a izan zen eta media serioagoetan neurri handiagoan.

Pertsonekiko interesaren frame-ak gertaera, albiste edo arazo baten lanketari “gizatasuna edo aspektu emozionala” ematen dio. Esate baterako,

El País egunkarian: “H1N1 Gaixotasunagatik Españañ lehenengo pertsona hil da. Dalila Mimouni, 20 urteko marrokiarra. Haurdun zegoen. Aurreko egunean ume bat erditu zuen. Bere alargunak larrialdietara egindako hiru ikustaldietan jasotako arreta eskasa salatu du (Naranjo & Sahuquillo, 2009)”. Komunikabideek duten lehia komertzialaren eraginez, publikoaren interesa lortu eta mantendezakeen produktua sortarazten ahalegintzen dira. Honenbestez, arreta bereganatzea litzateke *frame* honen helburu nagusia horretarako, albisteak personalizatz, drama indartuz eta emozioak barneratuz. Izan ere, pertsonon erantzun emozionalean *frame* honek eragin nabarmena duela frogatu da, gaiaren zergatietara edo arazoetara atxikitutako erruaren edo erantzukizunaren iragarle esanguratsua izanik (Cho & Gower, 2006)

Moraltasun frame-ak gertaera edota arazoa moraltasun edota preskripzio sozial edo erlijiosoen ikuspuntutik aztertzen du. Adibidez, El País egunkarian: “Dakienak edo nahi duenak oroit egin dezake (Ordaz, 2009)”. Kazetariekin izaten duten objektibotasun beharrak eraginda, *frame* hau zeharkako moduan agertu ohi da. Batik bat, beste norbaiti egindako aipamen edota inferentziaren bidez.

Ondorio ekonomikoen frame-ak gertaera edo arazo batek pertsona, talde, instituzio, herrialde edo lurralte bati ekar dakizkiokeen ondorio ekonomikoak lantzen ditu. Esate baterako, El Universal egunkarian: “Mexikon, H1N1ren birusak eragindako izurriteari aurre egiteko presupuesto 4.306 milioi pesokoa da (Rodriguez, 2009)”. Hedabideetan *frame* honen erabilera ere oso ohikoa da.

Eta azkenik, *erantzukizunak egoztearen frame*-ak dugu (Iyengar, 1990). Honek arazo edo gertaeraren kausa edo konponbidea gobernu, pertsona edo talde bati egozten dio. Adibidez, El Universal egunkarian: “Hezkuntza Publikoko Idazkaritzak eskoletako ziklo bukaera uztailaren 3tik 14ra luzatu

Social Representations of EID

du, A gripea edota H1N1 birusaren izurritearen arriskuari aurre egiteko, agindutako bederatzi eguneko eskola ematearen etenaldiagatik (Martínez, 2009)”. Semetko eta Valkenburg (2000) ikerketak frogatu zuen *framing* hau erabilienetako dela, bereziki komunikabide fidagarrien artean. Berriz, telebistak eta hedabide sentsazionalistagoek neurri txikiago batean erabiltzen zuten.

Faridah, Normah eta Chang (2010)-ek Malasiako egunkarietan A Grippearri buruzko *framing*-a ikertu zuten, Semetko eta Valkenburg-en (2000) eskalan oinarrituz. Egunkariak bere salneurri eta eskuragarritasunagatik krisi egoeretan erreferentzia iturri direla baiezttatu zuten. Bereien ikerketak frogatu zuen, erantzukizunaren egozpenaren *frame*-a izan zela gehien erabilitakoa eta gutxien *frame* ekonomikoa, beraien artean hurrenez hurren moraltasun, pertsonekiko interes eta gatazka *frame*-ak gelditu zirelarik.

Collective symbolic coping

CSC-aren ereduak ordena soziala mehatxatzen duten egoera berriei taldeek zentzua nola ematen dieten azaltzen du. Hau da, une horretara arte izandako mundua ulertzeko era mantentzeko ahaleginean, gertaera berri baten aurrean kolektiboak burutzen duen jarduera da (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002).

Gizarte Irudikapenen Teorian oinarritura (Moscovici, 1988; Wagner & Hayes, 2005) eta *Agenda-Setting* teoria euskarri gisa erabiliaz (McCombs, 2006), *coping* terminoaren (Lazarus & Folkman, 1984) maila kolektiboa nabarmentzen du. Izan ere, *coping*-a normalean banakoena portaerarekin lotu egin da eta ez maila kolektiboan eman daitezkeen gertaerekin, nahiz eta banakoaren *coping* esfortzuak osagai kolektibo indartsuak izan (Davison & Pennebaker, 1996). Eedu honetan erabiltzen den *coping*-ak jatorrizkotik zenbait aldaketa izan ditu (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002): hasteko,

coping kolektiboak norbanakoa eta kolektiboa barneratzen ditu; bigarren, norbanako *coping*-a bezala aurre-intentzioz eta esfortzurik gabe lan egiteko pentsatuta dago; hirugarren, edozein eskaerari erantzun sinboliko bat eskaintzen dio, funtzionatzeko duen egokitasunetik haratago; eta laugarren, dinamikoa izateko pentsatuta dago eta ideiei etengabeko ebaluazioan aldatzen uzten die (Lazarus & Folkman, 1984).

CSCak *coping* kolektiboa hedabideek sortutakoa dela planteatzen du, une horretara arte gizartea izaniko bizitzeko era mehatxatzen duten “zenbait gauza” eraiki eta berriak bailira bezala hedatzean. Komunikazio sarean barneratuta egonda, pertsonek, bai banako gisa eta baita talde gisa ere, *item* berrieik sortutako erronka baloratzen dute (Orr, Sagi, & Bar-On, 2000; Wagner, 1998).

Gizarte modernoetako esfera publikoa hedabideen komunikazio ekintzen bidez sortua eta mantendua da (Thompson, 1995). Pertsonen gehiengo zabal batek bere uste, jarrera eta irudikapenek egunkari, aldizkari edota liburuak irakurria zein telebista edota irrati saiotara joaz eraikitzen ditu. Fenomeno batek geroz eta hurbiltasun gutxiago izan norbere bizi espazioarekiko, geroz eta menpekotasun handiago izango dugu hedabideek esanikoarekiko eta gutxiago fidatuko gara pertsonarteko komunikazioaz. Honenbestez, komunikazio mediatikoak pertsonarteko komunikazioa menperatzen du zientzia, teknologia eta berrikuntza ekonomikoak jorratzen diren gaietan (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002). Nahiz eta publikoa banakoez osatua dagoen, *coping* sinbolikoa, taldearentzako erronka izanik, batez ere gertaera kolektiboa da, norbanakoaren ideien gainetik nabarmenzen dena. Esfera publikoa, zirkulazio sinbolikoko gunea da eta berrikuntza sinbolikoa eratzen den lapiko bezala uler daiteke (Jovchelovitch, 1995).

Social Representations of EID

Beraz, *CSC*-aren bidez sortutako irudikapenek baliabideak ematen dizkiete banakoei gertaera berriei interpretatzeko eta aurre egiteko (Gilles et al., 2013). Halere, prozesu honek zenbait baldintza edo maila betar behar ditu (Wagner, Kronberger, & Seifert., 2002): lehenik, *coping* sinbolikoa martxan jartzeko, gertaera berri bat garrantzitsu eta ordura arteko egoeraren edo lortu nahiko litzatekeen egoeraren eraldatzaile gisa aurkeztua izan behar da; bigarrenik, gertaera berria errotu ahal izateko interpretazio, irudi eta metafora ulergarri bihurtu behar dute komunikabideek; hirugarrenik, interpretazio ezberdinek bateratzeko bidea hartu behar dute gertakari berriaren oinarrizko ezaugarriak definituz; eta laugarrenik, interpretazioek, epe luzera, ulerpen zientifiko zehatzagoa eskainiko dute. Honenbestez, azal ditzagun puntu hauek banan bana.

Kontzientzia hartzea (Awareness):

Gertaera baten kontzientzia hartze publikoa egoteko beharrezkoa da sozialki garrantzitsutzat hartua izatea (Wagner, Kronberger, & Seifert., 2002). Hau da, *agenda-setting* (McCombs, 1981) prozesuaren bidez, komunikabideek gertaerak garrantzitsu bilakatzen dituzte pertsonen kontzientzia hartzea bideratuz.

Desadostasuna (Divergence):

Fase honetan, gertaera berriari buruzko interpretazio ezberdinak sortzen dira anbiguotasuna eta nahasketa sortuz. Definizioz gertaera berri batek ordura arte izandako jakintza eraren batean aldatzen du. Gertaeraren berritasunaren arabera, une horretara arte edukitako eskemen bidezko interpretazioak huts egin dezake eta interpretazio berri baten beharra dago. Hasieran behintzat, interpretazio berriak metaforikoki lotuta daude aurre jakintzei, zeintzuek jakintza iturri gisa jokatzen duten (Lakoff, 1987; Wagner, Elejabarrieta, & Lahnsteiner, 1995). Jakintza iturri dibertsitate

handia dagoen neurrian, hasieran eraikitzen diren metaforen artean desadostasunak egon daitezke.

Konbergentzia (Convergence):

Bai komunikabideetan eta baita norbanakoko mailan komunikazio beriek interpretazio ezberdinaren arteko lehia sortzen dute. Horietako batzuk baztertuak izaten dira eta beste batzuk gehiengoaren onarpena jasotzen dute (Sperber & Wilson, 1986), azkenik, taldeak hitzarmenezko interpretazio berri bat sortzen duelarik (Bartlett, 1932).

Normalizazioa (Normalization):

Laugarren fase honetan, gertaeraren azalpena jakintza komunean integratzen da arrunt bilakatuz. Halere, CSC-aren teorian azpimarratzen den bezala (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002), *coping* sinbolikoa kolektiboak bere errotutako bizi estiloa arriskuan jartzen dutenen kontra sorturiko larrialdiko erantzuna da. Taldeak larrialdi une horietan sortutako irudiak ez ditu zertan egonkor eta nagusi bilakatu behar denbora luzez. Irudiak ahul daitezke baldin eta agendatik ateratzen badira edota beraien alderdi emozionala soil bihurtzen bada komunikabideen diskurtsoa normalizatzuz. Alabaina, normalizazio egoera hau ez da itzulezina, eztabaidea politikoak berriro piz baitezake prozesua (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002). Gainera, kontutan izan behar dugu, normalizazioa hamarkadak iraun ditzakeen prozesu konplexua dela eta beraz, batzuetan zaila dela bera aztertzea (Bauer, 1998).

Honenbestez, CSC-aren teoria erabilgarria da orden soziala mehatxatzen duten gertakariak deskribatzeko. Izan ere, jada burutu diren ikerketetan behatu da (Hibino & Nagata, 2006; Wagner, Kronberger, & Seifert., 2002) gaiak komunikabideetan presentzia handia izatea eta zenbait marko edo *frame* interpretatziale erabiltzea kontzientzia hartze eta desadostasun faseen ezaugarriak direla (Hibino & Nagata, 2006). Bestalde,

Social Representations of EID

konbergentzia fsea gaiari buruzko estalduraren beherakadarekin eta funts gabe edo gutxiko markoen desagerpenarekin lotu ahalko genuke. Bukatzeko, normalizazio fsea, behatzeko zaila izaten da, izan ere, jada aipatu dugun bezala, denbora asko iraun ohi duen eta korapilatsua den prozesua da (Bauer, 1998).

Bestalde, eta faseen ezaugarriekin jarraituaz, aipatu beharra dago CSC-eko zenbait fsek (batez ere desadostasun fseak) ziurgabetasuna sortzen dutela, pertsonek duten mehatxagarria den gertakariarekiko babes sinbolikoaren beharra handiagotuz. Ziurgabetasunak “besteekikotasuna” (*othering*) bezalako aurre hartze (*coping*) estrategien sorkuntza ahalbidetzen du. Ideia hau Norbere Kategorizazioaren Teoriatik (Turner, Hogg, Oakes, Reicher, & Wetherell, 1987) eratorria den Ziurgabetasun Subjektiboaren Gutxitze Ereduak babesten du (Grieve & Hogg, 1999; Hogg, 2000). Eredu honek ziurgabetasuna gutxitzea eta gertakariei zentzua ematea pertsonon bitzako bi motibazio indartsu direla argudiatzen du. Ziurgabetasuna egoera ezatsegina da (Mullin & Hogg, 1999), kontrol pertzepzioa gutxitu eta beldurra bezalako sentimendu negatiboak sortzen dituena. Ziurgabetasuna pertsonek haien taldean desadostasunak eta bat etortze falta behatzean agertzen da, une horietan pertsonak ziurgabetasuna gutxitzen saiatzen dira norbere talde identifikazioa areagotzen edo talde arteko desberdintasunak nabarmenduaz (Hohman, Hogg, & Bligh, 2010; Mullin & Hogg, 1999; Reid & Hogg, 2005). Honenbestez, Ziurgabetasun Subjektiboaren Gutxitze Ereduak CSC-a zehaz dezake (Gilles et al., 2013). Izan ere, desadostasun fsearen ezaugarri tipikoa dugu ziurgabetasuna, bertan agertzen diren diskurtso ezberdinek sortua, eta honenbestez zenbait autorek (Gilles et al., 2013) “besteekikotasuna” fase honetako ezaugarria dela proposatu dute.

Hasiera batean, *CSC* eredua bioteknologiarekin zerikusia zuten gertaerak aztertzeko erabili bazen ere, badago osasun izurriteak aztertzeko erabili duenik ere. Hain zuen ere, hegazti gripearri buruz eginiko ikerketa batean (Gilles et al., 2013) aurkitu egin zen *CSC* eredua erabilgarria zela osasun izurriteen azterketarako, berauek mehatxu fisiko bat aurkezteaz gain gizartearentzako mehatxu sinboliko bat ere aurkezten zuelako (Joffe, 1999). Gilles eta kideek buruturiko ikerketa horretan ondorioztatu zuten izurriteek eta bioteknologiak antzeko eragina zutela ezarrita zegoen orden soziala jakintza maila zientifikotik mehatxatzeko orduan. Halere, ikerlari hauek, hegazti gripearren kasuan, kontzientzia hartze eta desadostasun faseen zantzuak aurkitu zituzten arren, ezin izan zuten normalizazio faserik antzeman.

Ikuspuntu antzeko batetatik, eta izurriteak inguratzen dituzten aktore kolektiboak aztertuaz. Wagner-Egger eta lankideek (2011) Suitzan txerri gripearren inguruko gizarte irudikapenak aztertu zituzten. Beraien lanak ondorioztatu zuen horrelako osasun grideen aurrean pertsonek zenbait heroi, biktima eta bilauen irudikapen kolektiboa eraikitzen zutela. Adibidez, kasu honetan adituak (ikertzaile, mediku, etab.) heroi gisa definitu zituzten sinesgarritzat joaz. Bestalde, osasun agintari edota politikoak hasieran positiboki baloratu ziren arren, gero ez-eraginkortzat jo ziren. Bilauei dagokienez, alde batetatik komunikabideak aipatu zituzten parte-hartzaileek, beldurraren erabilera interesatua egitea leporatuaz, edo are okerrago, mailarik altueneko botere gaizkileen txotxongilo huts izateaz. Bestalde, farmazeutikak eta antzerako enpresa pribatuak ere bilautzat joak izan ziren. Bukatzeko, gripearren biktima gisa herrialde behartsuak edota gutxiengarrik garatutakoak jo zituzten, nahiz eta guztiz errugabetzat ez jo, garbitasun falta izatea leporatu baitzieten. Honenbestez, autore hauek talde ezberdinei esleitutako ezaugarriek gizarteari osasun izurriteen aurrean

Social Representations of EID

sortutako gatazka eta bat ez datozen aldeei zentzia emateko (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002) irudikapen sinbolikoak sortzeko balio dutela ondorioztatu zuten.

Helburu eta hipotesiak

Beraz, eta aurreko guztian oinarrituz, lan honen helburua A Gripeak osasun izurrite gisa Mexiko eta Spainiako egunkarietan izan zuen trataerak gizartearren irudikapen kolektiboan izandako ondorioak aztertzea da. Horretarako, jorraturiko garapen teorikoan oinarrituaz ondorengo hipotesiak plazaratzen ditugu:

H1.- Hasteko, herrialde bakoitzeko gertakari historikoek A Gripeak egunkarietan duen agerpen mailan eta eran eragingo dute. Alegia, herrialdean egondako A Gripe kasu eta heriotza-tasa indizeek publikapen kantitatearekin erlazio zuzena izango dute.

H2.- Erantzukizunaren, pertsonen koko interesaren eta gatazkaren *frame*-ak izango dira hedabideetan erabilienak, nahiz eta *frame* desberdinak erabilera aldatzen joango den denboran zehar eta aldakuntza hau era desberdinean emango delarik Mexiko eta Spainian.

H3.- Izurrite honek komunikabideetan izandako trataerak CSC-a abiaraziko du osasun izurriteei buruzko gizarte irudikapenetan. Honenbestez, hipotesitzat dugu CSC osatzen duten fasesak behatu ahalko ditugula A Gripearen garapenean zehar. Halere, nahiko probablea da normalizazio fasesak gizartean ezartze arazoak izatea hautematearen eta izurritearren benetako errealtitate epidemiologikoaren artean dagoen aldeak eraginda.

H4.- Desadostasun fasean batez ere “besteekikotasuna” behatu ahal izango dugu, hau da, talde arteko desberdintasunak indartzea eta norbere taldearekiko identifikazioa areagotzea

H5.- Bukatzeko, aldez aurretik pertsonen gizarte irudikapenetan txerri gripearren aurrean aurkitutako biktima, heroi eta bilauen patroia komunikabideen estalduran ere errepikatzea espero dugu.

Hau da, burututako lanaren bidez frogatu nahi dugu diskurtso mediatikoak erabilitako *framing*-ak CSC-aren bidez A Gripeari buruz konkretuki, baina baita osasun izurriteei buruz ere era zabalago batean, dugun irudikapen kolektiboa baldintzatu zuela.

Metodoa

1) Lagina eta analisi unitatea

Lagina hautatzeko Mexikon eta Espanian hedatuenak diren egunkariak erabili ziren, hau da, El Universal eta El País hurrenez hurren.

Denbora aldiari dagokionez, 2009ko apirilaren 24etik, OME-eko Zuzendari Orokorrak, Margaret Chan-ek, Larrialdi Komitea batu zuenetik eta “Nazioarteko Interesdun Osasun Publikoko Larrialdia” piztea gomendatu zutenetik, 2010ko abuztuaren 10era, zeinetan beronek pandemia bukatutzat jo zuen arte, aztertu ziren egunkariak.

Hiru analisi unitate bereizi izan dira: Lehenik eta behin, A Gripeari erreferentzia egiten zieten portada guztiak; bigarrenik portada horiek erreferentzia egiten zieten egunkari barneko A Gripeari buruzko artikuluak, hau da, A Gripeari buruz portadan izendatuta agertzen ziren artikuluak; eta azkenik, A Gripeari buruzko editorialak. Guztira 142 portada, 142 artikulu eta 25 editorial aztertu ziren.

2) Diseinua eta kodifikapena

Ondoko hiru lan-mota bereizi egin dira elkarren artean:


- A. Portaden azterketa. Lehenik eta behin, El País eta El Universal egunkariek eginiko A Griparen krisiaren jarraipena denboran zehar aztertu zen, bere testuinguru epidemiologikoan kokatuaz.
- B. Artikulu eta editorialen *framingaren* azterketa Semetko eta Valkenburg-ek (2000) proposatutako bost *frame*-en erabilera neurtu da artikulu eta editorialetan (guztira 167 artikulu eta editorial) hiruhilabetekoko bi egunkarietan. Eskala honen kodifikapenean aldez aurretik trebatutako bi epailek hartu zuten parte. Kodifikapen horren epaileen arteko adostasun-indizeak egokiak izan zirelarik (Cohen-en Kappa > 0,70).
- C. Artikulu eta editorialen edukien azterketa. Landutako gai nagusienak zehaztu ahal izateko bai artikulu zein editorialak aztertu ziren. Testu-azterketak izan zitzakeen fidagarritasun eta baliagarritasun arazoak ekiditeko Alceste software-a erabiltzea erabaki zen, honek testu sailkapen automatikoa egiteko gaitasuna baitu (Bauer, 2000; Klein & Licata, 2003; Reinert, 1996). Software honen helburua testua kuantifikatzea da, honen egitura garrantzitsuenak ateraz, datu-testu horietan dagoen oinarrizko informazioa profitatu ahal izateko. Frogatu izan da egitura hauek estuki lotuta daudela testu batean egiten den hitzen banaketarekin eta banaketa hau, oso kasu gutxitan, zoriaren menpe uzten dela (Reinert, 1996). Alcesteren interesak testuak automatikoki deskribatu, sailkatu, asimilatu eta sintetizatzea dira.

Emaitzak

1) Denboran eta testuinguruan kokatu

Lehenik eta behin, bi egunkariek osasun krisiari emaniko erantzuna aztertu zen. Ondorengo irudian (Ikus 1 irudia) El País egunkari Espainiarrean argitaratutako A Gripeari buruzko portada eta artikulu

kopuruak eta Spainian egondako A kasu eta beronetik eratorritako heriotza kopurua beha ditzakegu. Baita CIS-ak (Centro de Investigaciones Sociológicas) buruturiko inkestetan¹ arabera espanyarrek osasun arazo gisa hautematen duten maila ere.



Irudia 1: 2009ko apiriletik 2010eko abuztura Spainian egondako kasu, heriotza, portada, artikulu kopurua A Gripengatik eta CIS-ak buruturiko inkestetan arabera espanyarrek osasun sistemari ematen dioten garrantzia.

Spearman-en korrelazio indizea aztertuta esan dezakegu korrelazio esanguratsua dagoela El Paíseko artikulu kopuruaren eta Spainiako A Gripe kasuen artean $r(17) = 0,565, p < 0,05$. Halere, grafikoan bertan beha dezakegun bezala artikulu gehiengoa A Gripa Espainiara heldu baino arinago argitaratu zela. Bestalde, aipatu beharra dago korrelazioa positiboa topatu zela publikatutako artikulu kopuruaren eta espanyarrek osasun sistemari emandako garrantziaren artean eta $r(17) = 0,578, p < 0,05$, baita CIS-eko emaitza horien eta kasu $r(17) = 0,605, p < 0,05$ eta heriotza $r(17) = 0,518, p < 0,05$ kopuruen artean ere.


Bukatzeko, aipatzeko da A Gripak komunikabideetan presentzia handiena izan zuen hilabeteetan (2009ko apiriletik 2009ko abendura arte)

¹ CIS-eko barometroen denborazko serieen “Percepción de los principales problemas de los españoles” barnean “El problema de la Salud”-eko indizeak hartu izan ziren (CIS (2012) “Percepción de los principales problemas de los españoles”. http://www.cis.es/export/sites/default/-Archivos/Indicadores/documentos_html/TresProblemas.html)

Social Representations of EID

osasunaren arazo gisako hautematea 4,6-koa izan zela, aurreko denboraldian (2009ko martxotik 2009ko maiatzera arte) 4 puntuoa izan zenean, eta honen atzekoa, (2009ko abendutik 2010eko urtarrilera arte) 3,5 puntuakoa. Beraz, zenbat eta A Gripea hedabideetan gehiago agertu, espiniarrek orduan eta gehiago hautematen zuten osasuna arazo gisa.

El Universal egunkariko A Gripeari buruzko portada eta artikulu kopuruak eta Mexikon egondako A kasu eta beronetik eratorritako heriotza kopurua aztertua, ondorengo irudian (Ikus 2 irudia) beha dezakegu^{*2}:




Irudia 2: 2009ko apiriletik 2010eko abuztura Mexikon egondako kasu, heriotza, portada eta artikulu kopurua A Gripeagatik.

Spearman-en korrelazio indizea aztertuta behatu da korrelazio esanguratsuak daudela artikulu kopuru eta A Gripe kasuen artean $r(17) = 0,850, p < 0,01$; baita artikulu kopuru eta heriotza kopuruaren artean $r(17) = 0,898, p < 0,01$. Korrelazio esanguratsuak aurkitu dira baita portada kopuru eta A Gripe kasuen artean $r(17) = 0,799, p < 0,01$ eta portada kopuru eta heriotzen $r(17) = 0,751, p < 0,01$ artean. Beraz, Mexikon artikulu eta portada kopurua zuzenki lotua zen herrialdeko gaixotasun errealtitatearekiko.

² Mexikon ez zen hilez hileko inkesta soziologikorik aurkitu eta horregaitik ez da gehitu puntu hori atal honetan

2) Portaden deskribapen orokorra

Guztira 142 portada aztertu ziren, horietatik 52 (%36,6) El País egunkarikoak eta 90 (%63,4) El Universalekoak. Publikapen datei dagokionez, albisteen %79,6-a 2009ko urrirako argitaratua izan zen, ondorengo banaketari jarraituaz (Ikus 3 irudia):



Irudia 3: 2009ko apiriletik 2010eko abuztura El País eta El Universal egunkarietan A Gripearen portada kopurua.

Izenburuetan aipatutako aktore edo pertsonaia nagusiei dagokionez desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira aztertutako egunkarien artean. Izan ere, hiritarrei proportzionalki erreferentzia gehiago egiten zitzaien El Universalen (%56,6), El Paísen (%43,4) baino $\chi^2(1) = 3,26, p < 0,05$; norbere herriko agintariei EL Universalen (%75,9) El Paísen baino (%24,1) $\chi^2(1) = 6,58, p < 0,01$ eta munduko mandatariei El Paísen (%70,6) El Universalen (%29,4) baino $\chi^2(1) = 9,60, p < 0,002$.

3) Artikuluen eta editorialen *framing* analisia

Guztira 142 artikulu (zeintzuei egunkarietako portadetan erreferentzia egiten zitzaien) eta 25 editorial aztertu dira, horietatik %39,5-a El País egunkarikoak eta %60,5 El Universalekoak. Lehenik eta behin, 1. taulan beha dezakegun bezala A Gripea aztertzeko orduan artikuluek erabilitako *frame* nagusia interes gizatiarrekoa izan zela ($M=1,75$), erantzukizunezkoaz jarraiturik ($M=1,64$), ondoren gatazka *frame*-az

Social Representations of EID


($M=1,59$), moraltasunezkoaz ($M=1,54$) eta bukatzeko *frame* ekonomikoaz ($M=1,46$).

FRAME-A	Batazbestekoa	Desbiderapen tipikoa
Interes gizatiarra	1,75	0,66
Erantzukizuna	1,64	0,50
Gatazka	1,59	0,63
Moraltasuna	1,54	0,51
Ekonomikoa	1,46	0,75

Taula 1: *Frame* nagusien erabileraren bataz bestekoa eta desbiderapen tipikoa.

Framing-a, denbora (hiruhilabeteko) eta egunkariekiko aztertuta

ANOVA bereziak egin dira El País egunkarian *frame* mota bakoitzarekiko eta aurkitu da Interes gizatiar *frame-a* $F(4,61) = 5,10, p < 001$ ($\eta_p^2=0,25$), Gatazka *frame-a* $F(4,61) = 2,40, p < 05$ ($\eta_p^2=0,136$) eta *frame* Ekonomikoa $F(4,61) = 4,13, p < 001$ ($\eta_p^2=0,213$) esanguratsuki ezberdinak direla hiruhilabeteko. Kontrako eran, Erantzukizun *frame-a* $F(4,61) = 1,30, p > 5$ eta Moraltasun *frame-a* $F(4,61) = 89, p > 5$ ez ziren esanguratsuki ezberdinak izan hiruhilabeteko arteko konparazioan (Ikus 4. Irudian).



Irudia 4: *Frame* nagusien erabilera hiruhilabeteko El País egunkarian.

Interes gizatiarraren DSM frogek adierazi dute lehenengo hiruhilabetekoa esanguratsuki ezberdina zela bigarren ($p \leq 001$), hirugarren ($p \leq 01$), laugarren ($p \leq 01$) eta seigarrenarekiko ($p \leq 01$). Hau da, hasieran interes gizatiar *frame*-aren erabilera oso altua izan zen, eta lehen esan bezala,

kaltetuen egoera unez une jarraitu baitzen gaixotasun honen ondorio larrien esperoan. Halere, bigarren hiruhilabetekotik aurrera, ikusi zen Spainian ondorioak ez zirela hain larriak izaten ari eta horregatik *frame* honen erabilera maila jaitsi zen.


Gatazka *frame*-an, DSM frogen arabera, esanguratsuki desberdina da laugarren hiruhilabeteko lehenengoarekiko ($p \leq 001$), bigarrenarekiko ($p \leq 001$) eta hirugarrenarekiko ($p \leq 01$). Honen arrazoia zera da: Spainia mailan A Gripearen inguruko eztabaidea nagusia krisiaren bukaera aldera sortu zela (laugarren hiruhilabetekotik aurrera). Gatazka horretan, gripearen aurrean emaniko erantzun instituzionalaren egokitasuna, eta batez ere, bertan inbertitutako diru kantitatearen egokitasuna eztabaidatu ziren.

Bukatzeko, *frame* ekonomikoan buruturiko DSM frogek adierazi dute laugarren hiruhilabeteko esanguratsuki desberdina zela lehenengoarekiko ($p \leq 001$), bigarrenarekiko ($p \leq 001$) eta hirugarrenarekiko ($p \leq 001$). Izan ere, *frame* hau bereziki lotuta dago aurretiaz aipatu dugun gatazka *frame*-arekin, zeren eta gizarteko sektore askoren ustez, enpresa interes partikularrei erantzunez gehiegizko diru publiko kopuruak gastatu ziren A Gripearen krisian. Halere, azken datu hauek interpretatzerakoan, kontuan hartu beharko genuke laugarren hiruhilabete honetan agertu ziren A gripearen artikulu kopurua aurreko hiru hilabetekoekin alderatuz nahiko baxua izan zela eta honenbestez, emaitza hauek baldintzatuta egon daitezkeela.

El Universal egunkariaren kasuan ere, ANOVA bereziak egin dira hiruhilabeteko eta esanguratsuki ezberdina zen bakarra gatazka *frame*-a zela ondorioztatu, hau da, $F(4,96) = 3,74, p < 001$ ($\eta_p^2=135$). Buruturiko DSM frogek baiezta dute gatazka *frame*-an lehenengo hiruhilabetekoa

Social Representations of EID

esanguratsuki desberdina izan zela bigarren ($p \leq 0,00$) eta hirugarrenarekiko ($p \leq 00$). Izan ere, jada aipatu dugun bezala, Mexikon bi gatazka une bereizi ziren: batetik, lehenengo hiruhilabetekoan hainbat naziok bere aurka buruturiko bazterketagatik (EE.BB eta Ertamerikako lurralteek planteatu zituzten muga-itxialdiak, Frantzian eta Singapurren Mexikotik heldutako hegazkinak lurreratzeko arazoak, e.a.) eta bigarrena, laugarren hiruhilabetekotik aurrera, Espanian eta munduko beste herrialdeetan bezala, gripeareen aurrean emandako erantzunaren egokitasunaren eta honen kostu ekonomikoaren eztabaidagatik.




Irudia 5: Frame nagusien erabilera hiruhilabeteko El Universal egunkarian.

4) Artikulu eta editorialeen eduki analisia

Artikulu eta editorialeen eduki analisia Alceste programaren bidez burutu da. Aztergai izan den korpusean (129462 hitz zeuden, zeintzuetatik 11561 hitz ezberdinak ziren) A Gripearri erreferentzia egiten dizkioten artikuluak eta editorialak barneratu dira.

Alceste-ren prozesua jarraiki (ikus Boudes eta Cellier, 1998), azpiklaseetan banatu da, baina soilik 5 baino maiztasun handiagoko hitzak erabiliz. Konkretuki, analisi hierarkiko beherakorrak korpusa 3142 ECU-tan banatu du zeintzuetatik 1933 landu ziren (%62) eta 5 ECU klase eratorri diren. Lehenengo klaseak 364 ECU izan ditu (%19), bigarren klaseak 505 ECU (%26), hirugarren klaseak 484 ECU (%25), laugarren klaseak 201 (%10) eta bosgarren klaseak 379 ECU (%20) (Ikus 6. Irudia).

Irudia 6: *Cluster* banaketa. Sailkapen hierarkiko beherakorra.Klaseen edukia

Alceste-ren aurretiazko erabilerak jarraiki (Boudes eta Cellier, 1998) eratorritako klase bakoitzeko hiztegia azpiklaseetan banatu da bere aurkezpena errazteko (hitz bakoitzaren maiztasuna parentesi artean agertzen da). Ondorengo klaseak lortu dira:

- 1 Klasea: A Gripeaz babesteko prebentzio jarduerak
- 2 Klasea: Pandemia globala eta OME-aren erantzuna
- 3 Klasea: Txertoen sorkuntza eta aplikazioa
- 4 Klasea: Hildakoak eta kaltetuak A Gripeareen ondorioz
- 5 Klasea: Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa

1 Klasea: *A Gripeaz babesteko prebentzio jarduerak* (ECUen %19).

1. *Gorputz atalak*: esku (144), sexual(52), aho (48), bere (45), muxu (39), doministikua (38)...
2. *Prebentziorako lanabesak*: maskarila (80), garbitu (48), gaixotu (45), aho-estalki(42), eskularru(41), musuzapi (39)...
3. *Enpresak*: enpresa (85), lan (84), langileri (76), langile (63), bezero (58)
4. *Beste*: plan (59), kontingentzia (50), maiztasun (38), ekidin (37)...

Social Representations of EID

Garrantzia berezia eman zitzaion A Gripearen kasuan prebentzioa lantzeari. Horretarako, lehen azpiklasean batuta ditugu babes mailan bereziki zaindu behar ziren gorputzeko atalak eta bigarrenean prebentzio horretarako lanabesak. Bereziki famatu bihurtu ziren bigarren azpitalde honen barnean agertzen diren aho maskarak, A Gripearen ikur bihurtuaz. Hirugarrenean, enpresa munduari egiten zaio erreferentzia prebentzioaren aplikapen esparru nagusia izan baitzen. Jada aipatu dugun bezala, Alcestek klase bakoitzeko zenbait ECU tipiko eratortzen ditu, ondorengoak dira lehenengo klaseko adibide batzuk:

ECU966 Khi2 = 54 (El País, 2009-9-5): Laster izurriterako kit bat eskuratu ahal izango da: maskarila, eskularru, termometro eta eskuetarako desinfektantea dituena. Edozein neurri gutxi da. Dena dago pentsatua eta protokolizatua. La Caixa eta Bankinterrek bere bezeroak bezeroei eragiketak internet bidez burutzen aholkatuko diete. Eta A gripea enpresaera ere helduko da lanlekuetan distantzia soziala bultzatuko delarik.

ECU526 Khi2 = 39 (El País, 2009-7-10): Auzia ez da hain erraza. Alarma handituz doa eta Mexikoren inguruko herrialdeak kutsatu ditu. Bai EEBB-ak eta baita Erta-Amerikako zenbait herrialde ere arreta biziko neurriak hartzen ari dira eta DF-tik datozen hegaldiak kontrolatzen.

2 Klasea: Pandemia globala eta OME-aren erantzuna (ECUen %26)

1. *A Gripearen jatorria:* birus (207), izurrite (138), mutazio (107), txori (87), infekzio (69) h5n1 (66), berri(58), gripe (49)...
2. *OME:* OME (215), chan (86), fukuda (64), adierazi (46)...
3. *Maila globala:* zabalkuntza (66), fase (51), alerta (46), mundu (44)...
4. *Beste:* kausa (56), arin (56), dirudi (48)...

Lehenengo azpiklasea A Gripeari buruzkoa da eta bigarrena OME, bere zuzendariei (Margaret Chan, Keiji Fukuda) eta berauek erabilitako

diskurtsoei buruzkoa. Ondorengo adibideetan OME-ek A Gripea lantzeko eta plazaratzeko erabilitako zenbait adierazpen biltzen dira:

ECU386 Khi2 = 34 (El País, 2009-5-16): Atzo, OME-ko zuzendari orokorrak, Margaret Chan-ek, gripe berriaren hedapenaren aurrean erlaxatzeko arinegi zela adierazi zuen eta birusak duen izurrite potentziala azpimarratu zuen.

ECU503 Khi2 = 28 (El País, 2010-1-13): OME-ari alarmismoa eta laborategi farmazeutikoen onuran jokatzea leporatu diote gripearen eraginaren bukaerarekin bat, zein izurrite izendatua izan zen igarotako ekainean.

3 Klasea: Txertoen sorkuntza eta aplikazioa (ECUen %25)

1. *Sortutako bakunak*: txerto (703), dosi (246), miloi (163), txertatze (99), jarri (86), produktu (68), sorta (57), urtaroko (53), eros (56), medikamendu(50), farmako(44)...
2. *Farmazentikak*: laborategi (206), talde (83), farmazeutika (56), sanofi (54), entsegu (51), birmex (47), ikerlari (44)...
3. *Beste*: abendua (46), arrisku (43), urria(41)...

Lehenengo azpiklaseak *bakunen* sorkuntza prozesuari egiten dio erreferentzia eta bigarrenak sorkuntza prozesu hori aurrera eraman zuten farmazeutikoei. Ondorengo esaldietan beha daitekeen bezala, egunkariek bereziki jarraitu zuten txertoen eskaera, sorkuntza eta banaketa prozesua eta baita laborategi farmazeutikoeik jarduera hauetan izandako lekua ere. Ondoren ikus ditzakegu klase honen zenbait adibide:

ECU2229 Khi2 = 59 (El Universal, 2009-8-16): Honela, laborategia txertoen ekoizpenaz arduratzen den bitartean Birmex-ek, sinatutako kontratuaren arabera, antigenoaren fabrikazio eta banaketa lanak ikuskatu beharko ditu

4 Klasea: *Hildakoak eta kaltetuak A Gripearen ondorioz* (ECUen %10)

1. *Hildakoak:* heriotz (152), hildako(95), hil (90), zentze (80) zendu (71), herio (78)...
2. *Kaltetu erregistroa:* kasu (307), erdietsi (253), erregistratu (171), zenbatu (155), baieztago (152), zenbaki (126), zifra (115), pneumonia (82), azken (75), guztira(58), igo (55), kutsatu (47), piku (46)...
3. *Beste:* ssa (106), hazi(104), abuztua (79)...

Lehenengo azpiklaseak, A Gripearen ondorioz gertaturiko heriotzei egiten die erreferentzia eta bigarrenak, A Gripearen kaltetuaren erregistroaren isla da. Gogora dezagun, ondorengo adibideetan ikusiko dugun bezala, kaltetuaren erregistroa etengabe eguneratua izan zela, bereziki hildako kopuruari erreferentzia eginaz (baita A Gripearen heriotza tasak oso baxuak ziren herrialdeetan ere, adibidez, Spainian).

ECU2638 Khi2 = 53 (El Universal, 2009-11-26): Nazioko heriotza zifra 589 hildakotakoa da, gaitz honekin kutsatutako baieztagatutako 64.585 kasurekin. (*Pasa den*) Azaroaren 18tik azaroaren 23-ra 1020 pertsona gehiago daude kutsatuta.

5 Klasea: *Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa* (UCEen %20).

1. *Geldiarazi ziren jarduerak:* eskola (195), ikastetxe (173), hezkuntza(140), geldiarazi (133), jarduera (119), ikasle (101), ekintza (63), zaintza (59), neurri(55)...
2. *Agintariak:* idazkari (190), angel (131), cordova (122), jose (99), calderón (99), felipe (79), ebrad (70), ahued (56), villalobos (55)...
3. *Beste:* mintegi (66), epidemiolo (66), itzuli (55)...

Lehenengo azpiklaseak geldiarazitako jarduerei egiten die erreferentzia eta bigarrenak alor ezberdinak agintari eta erakundeak batzen ditu zeintzuek ekintza horiek gelditzearren ardura hartu zuten.

Gogora dezagun, A Griperearen hasierako uneetan Mexiko, eta bereziki bere hiriburu den DF, guztiz geldiarazi zutela agintariekin, bereziki jarduera publiko oro bertan behera utziaz ondorengo adibideetan ikus dezakegun bezala:

ECU2112 Khi2 = 50 (El Universal, 2009-7-26): Eskola guztiak ixteko erabakia ez da momentuko erabakia, dio Armando Ahued-ek. Programa hau DF-ko ikuskaritza epidemiologikoko komite zientifikoak diseinatua izan zen, zeinek agintari lokal eta federalak biltzen dituen, baita Osasun Mundu Erakundeko ordezkariak ere.

ECU1274 Khi2 = 41 (El Universal, 2009-4-27): Garraio publikoan hartu beharreko neurriak zehazteko bere gobernu taldekoekin bildu ostean hiriburuko administrazioko titularrak irratian eginiko elkarritzetan jarduerak masiboki eteteari buruz hitz egin zuen.

Aldagai askeekiko erlazioak

Independentzia testen bidez Alcestek klase lexikal eta aldagai askeen mailen arteko loturak zenbatzen ditu. Baldin eta klase baten barne diren ECU maila esanguratsua mailaren bateko aldagai aske bat esanguratsuki lotuago agertzen bada beste mailetako konbinazioak baino, klasea maila horri lotua dagoela baloratzten du. Programak analisi berbera bideratzten du beste klase eta aldagai askearen maila guztiekin.

Gure kasuan, artikuluak argitaraturiko egunkariekin sailkatu dira, El País egunkariari lehenengo (A Griperez babesteko prebentzio jarduerak) $X^2(1) = 26,81, p < 0,001$ eta bigarren klasea $X^2(1) = 211,70, p < 0,001$ (Pandemia globala eta OME-aren erantzuna) lotu zaizkio. El Universal egunkariari berriz, hirugarren (Txertoen sorkuntza eta aplikazioa) $X^2(1) = 15,22, p < 0,001$, laugarren (Hildakoak eta kaltetuak A Griperearen ondorioz) $X^2(1) = 41,11, p < 0,001$ eta bosgarrena (Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa) $X^2(1) = 126,81, p < 0,001$. Beraz, era batean beha daiteke El

Social Representations of EID

	1 Hiruileabetea	2 Hiruileabetea	3 Hiruileabetea	4 Hiruileabetea	5 Hiruileabetea	6 Hiruileabetea
Klaseak	Api09 Mai09 Eka09	Uzt09 Abu09 Ira09	Urr09 Aza09 Aben09	Urt10 Ots10 Mar10	Api10 Mai10 Eka10	Uzt10 Abu10
1 Klasea: A						
Gripeaz babesteko prebentzio jarduerak	136	82	65			
2 Klasea:						
Pandemia globala eta OME-aren erantzuna	78	186	57			20
3 Klasea: Txertoen sorkuntza eta aplikazioa						
	88			66	31	20
					48	22
4 Klasea:						
Hildakoak eta kaltetuak A Gripearen ondorioz		27	37	22	13	
5 Klasea:						
Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa	142		58		15	
Taula 2: Klaseen banaketa hilabeteko. Oharra: Kasu guztietaan: $\chi^2 (df = 1); p = .001$						

Universalen diskurtsoa A Gripearen krisiari Mexikon emandako erantzunean oinarritu zela batik bat eta El Paísekoa, berriz, maila globalago batean A Gripearen zabalkundeaz.

Beste aldagai aske bat artikuluaren eta editorialen publikapen hilabetea izan da, 2. taulako emaitzak lortuaz (ikus 2. Taula). Honenbestez, beha daiteke 2009ko apiriletik 2010eko otsailera diskurtso jarioa nabarmena zegoela. Izan ere, hilabete horietan klase guztiak dute presentzia, behin eta berriro agertuaz. Otsailetik aurrera ordea, A Gripeari buruzko diskurtso maila nabarmenki txikitzen joan zen abuztuan, pandemia bukatutzat jo zenean, aldez aurretik egoniko klase guztiak bat bakarrik (Pandemia globala eta OME-aren erantzuna) azaleratu zelarik.

Honez gain, Alceste programaren bidez burututako korrespondentzia anitzun analisi faktorialaren bidez 3 faktoreko banaketa bat erdietsi zen, non lehen faktoreak bariantzaren %57,5-a zuen, bigarrenak %27,5-a eta hirugarrenak %15-a. Grafikoki 7. irudian ikus dezakegun banaketa lortu zen, non ardatz horizontalak lehenengo faktorea adierazten duen eta ardatz bertikalak bigarrena.

Beha dezakegun bezala ardatz horizontala izurritearen tokiko mailatik mundial edo globalera doa. Ezkerraldean, batez ere Mexikon (Chiapas, Yucatan, DF, Felipe Calderon...) hartutako salbuespen (eten, klase, ekintza, etenaldi...) eta prebentzio (aho, zapi, eskularru, ekidin...) neurriak ageri dira. Eskuinaldean berriz krisiaren izaera mundiala (mundial, mundu, ipar, herrialde, hedatze...) eta OME-ak egindako kaltetuen zenbatzeak eta deklarazioak (OME, zenbatze, Margaret Chan, registro, hildako, pandemia...). Bestalde, ardatz bertikalak osasun krisi honetako pertsonaiak banatzen ditu. Punturik gorenean enpresa farmazeutikoak ageri dira (farmazeut, laborategi, salmenta, sanofi...), erdialdean agintari politikoak (Margaret Chan, Fukuda, Felipe Calderon...) eta medikuak

Social Representations of EID

(erizain, mediku, osasun,...). Azkenik, behe aldean biktimen (hildako, kutsatu, heriotza, zentze...) eta kaltetuak (ikasle, hezkuntza, neurri, publiko, etete...).

18 | garapen
17 | fabrik+ salmenta medikamendu ikertzaile urtaroko
16 | eros+farmako produktu talde entsegu txertatze birmex
15 | parlamentar+ sorta arrisku laborategi txert+ firm+dosi antigeno
14 | Sanofi milioi aplik+ farmazeut+ aventis
13 | banatzaire abendua urria
12 | pisul
11 | pertsonal |
10 | bere |
9 | |
8 | | berri
7 | |
6 | | fase ome mundu
5 | mediku enpresa | mundial+ pandemiat+
4 | langile osasun | margaret fukuda
3 | erizain bezero zirkulatu ipar deklarat+aldaket+itxura txori
2 | emplega+lang+municipal komunitate esku aurresan Chan h5n1 gripe+iturri
Hong mutazio herrialde momentu birus
1 plan aho zapi estalaho politika musu maskarilla pertsona hedatze hong
0 +zerbitzu sexual frekuentzia eskularru garbitu arik+ arin txarrago infekt+
1 sozial+ kontingentzia doministikua kaus+ egungo
2 |
3 aho-estalkari | pikut+
4 | total ekain gehikuntza+alert
5 ekidin batzen zenbaki kontabiliz neumonia ospi hil
6 abuztua data hil hildako erregistr+ baietzatut+
7 | heriotz+ azken azkenengo
8 aste+ssa intents+zifra kasu
9 Angel | labur+zenbat+ hil+
10 Chiapas Yucatan | gehitzet+ eremu
11 Felipe Calderon ahued kutxatu+ zentzet+
12 publik+federal+hezkuntza talde |
13 neurri+ lerroburu villalobos
14 president+jose ekonom+ hezkuntz+
15 +eskola+ idazkari apirila
16 sep klase ekintza maiatza
17 etete etenaldi ikasle zaintza ekintza buelta+
18 lokal+df epidemiolog+
19 berragertzear

Irudia 7: Korrespondentzia anitzun analisi faktoriala.

Eztabaida

Burutu berri diren analisietan lortutako emaitzetan oinarriturik, komunikabidee diskurtsoak A Gripearen (H1N1) garrantzi eta eraketa sinbolikoan ondorio garrantzitsuak izan dituztela frogatu da. Izan ere, ikerketa-arazoa bermatuz, ikerlan honek emaitza interesgarriak plazaratzen ditu komunikabideek A Gripeari buruz helarazten duten esanahiari buruz.

Beraz, gure oinarri teorikoekiko garapenean hedabideek errealtitate sozialaren errepresentazioaren sorkuntzan eta transmisioan duten garrantzia berresten dute.

Krisiaren aurkezpena egunkarietan.

A Gripearen krisiak prentsan izandako isla bereziki garrantzitsua izan zen 2009ko apiriletik 2009ko urrira arte, momentu horretatik aurrera ordea, A Gripearen inguruko eztabaidea publikoa presentzia galtzen joan zen egunkarietako portaden azterketaren arabera. Beraz, *agenda-setting*-aren (McCombs & Shaw, 1972) teoriari jarraiki esan dezakegu aipaturiko hilabete horietan zehar, berebiziko oihartzuna izan zuela gripeak gizartean eta arazoaren agerikotasuna (Etnman, 1993; McCombs, Lopez-Escobar & Llamas, 2000), hau da, gripearen inguruko eztabaidea alor publikotik desagertzen joan zela denboraren poderioz. Gainera, korrelazio analisiek frogatu zuten artikulu-kopuruen helarazpenak erlazioa zuela mehatxu objektiboarekin. Beste era batera esanaz, korrelazio adierazgarria eta positiboa aurkitu zen artikulu-kopuru eta aurkitutako A Gripe kasuen artean bai El País eta El Universalen kasuan: Zenbat eta kasu-kopuru handiago orduan eta artikulu-kopuru gehiago ematen zen. Era berean, korrelazio horiek handiagoak ziren El Universalen kasuan ($r = .85$) El Paísen kasuan baino ($r = .56$), hau da, mehatxu objektibo areago gertatzen den testuinguruan, Mexikon gure kasuan, komunikabideen jarraipen zehatzagoa ematen da.

Gai honek El País (España) eta El Universal (Mexiko) egunkarietan izandako jarraipenak erkatzen baditugu aztertu beharreko lehen gauza publikapenen testuingurua dugu. El País egunkarian artikulu gehienak A Gripea Españiara epidemia gisa heldu baino lehenago argitaratu ziren, Mexikon, berriz, korrelazio zuzena eta altua egon zen kasu kopuru eta

Social Representations of EID

artikulu zein portada publikapenen artean. Beraz, nolabait esan daiteke Mexikoko hedabideak momentuan bizitzen ari ziren osasun krisialdi bati estaldura eman ziola bereziki. Spainiakoak ordea, gerta zitekeen krisialdi hipotetiko baten aurrean publikatu zuen gai honi buruz. Honenbestez lehenengo hipotesia baiezttatua geratzen da.

Mass medien bitartez sortu nahi den iritzi publikoan goi elite politikoek izandako eragina aztertzean ere (Entman, 1993) desberdintasunak aztertu ziren bi egunkarien artean. Izen ere, Mexikoko diskurtsoa gehiago lotzen zen norbere herrialde, hiri edota nazio mailako agintariekin eta Spainiakoa berriz lotuago zegoen nazioarteko agintarien eta erakundeen diskurtsoarekin, A Gripearen krisia mundu mailako arazo gisa aztertuaz. Beste era batera, gaixotasun-krisiaren bi ikuspegi kulturalak agertu ziren Mexiko eta Spainian. Laplantine-k (1999) eritasun eta osasunaren antropologian oinarrituz bereizten du eritasun lehen pertsonan eta eritasun hirugarren pertsonan. Nahiz eta frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz hitz bakarra dagoen kontzeptu hau adierazteko, ingeleraz gehiago daude: “illness” eta “disease”. Lehenengoa erabiltzen du pertsonaren esperientzia subjektiboa adierazteko eta bigarrena eritasuna pertsonatik kanpo dagoen objektua adierazteko. Esate baterako, HIES-aren inguruko ikerketek frogatu dute subjektu implikatuek, hau da seropositiboek eta HIES-aren aurkako gobernuz kanpoko erakundeetako kideek, lehen pertsonako eritasunaren irudikapena babesten dutela; subjektu ez implikatuek, aldiz, hirugarren pertsonarena (Aguirrezzabal & Valencia, 2004). Ikerketa honetan, berrien aktore eta espazio adierazien analisiak frogatu duenez ikus daiteke nola Mexikok hobesten duen A Gripearen lehen pertsonako irudikapena eta Spainiak hirugarren pertsonarena.

Framing-a: A Gripeari buruzko diskurtsoa egunkarietan.

Aztertutako bigarren arazoa A Gripearen krisialdiari buruz egunkariek egindako trataera izan da. Hasteko, Semetko eta Valkenburg (2000) autoreek definitutako *frame*-ak aztertuz erabilera baldintzatua egiaztatu da. Emaitzetan ikusi ahal izan dugun bezala *frame*-rik erabiliena interes gizatiarrarena izan da, erantzukizun egozpen *frame*-az jarraituz, ondoren gatazka, moraltasun eta *frame* ekonomikoa izan dira erabilienak hurrenez hurren. Beste era batera esanda, *framing*-aren erabilera frogatzen du A Gripea hiritarrengan ondorio larriak izan ditzakeen eta horren aurrean agintariei erantzukizuna eskatzen dien gertaera gisa definitzen dela, horrela gure bigarren hipotesia baieztatuz.

Nahiz eta gure ikerketako *frame* erabilienen ordena ez datorren bat arlo honetan egindako beste ikerketekin (Faridah, Normah, & Chang, 2010) badu ikerketa horiekin patroi partekatu bat: erantzukizun egozpenaren erabilera nabarmena eta *frame* ekonomikoaren erabilera baxua. Izan ere, bereziki krisiaren hasieran gizatiar interesaren *frame*-ak oso erabilera altua izan zuen. Adibidez, El Universal egunkarian: “Mariak bere 5 urteko alaba sukarrez eta giharretako minez bi ospitalera eraman zuen, non paracetamol-a eman eta femur haustura diagnostikatu zioten, ordu gutxi geroago, umea hil zen (Piña, 2009)”. Halere, *framing* mota hau hileen poderioz gutxituz joan zen beste *frame* batzuei lekukotza utziaz. *Frame* honek pertsonen erantzun emozionaletan eragina duela aurkitu dute zenbait ikerketak, jorratutako gaiaren kausarekiko erantzukizun eta erru egozpenaren aurresale garrantzitsua izanik (Cho & Gower, 2006). Honenbestez, zilegi da erabiliena den bigarren *frame*-a erantzukizun egozpena izatea, interes gizatiarrak sortutako egoerari erantzuteko nahi gisa. Gainera, gogora dezagun aktore nagusiek (Gobernuak, nazioarteko

Social Representations of EID

agintariek, OME-ak...) kontrol maila altuak dituztenean, komunikabideek kausen egozpenean arreta jartzea ohikoa dela (An & Gower, 2009).

Erantzukizuna egozpenaren *frame*-ak sarritan mobilazio-informazioa (Tanner, Friedman, Koskan, & Barr, 2009) barneratzen du, honek pertsonei A Gripearen arriskuaren aurrean erabaki edota prebentzio jarduera egokiak hautatzen lagun diezaiek larik. Adibidez El Universal egunkarian: “DF-en jarduera guztiak etetea aurreikusten ari dira. Haurtzaindegi eta auzitegiak ixten dute (Archundia, 2009)”. Emaitza hauak bat datoaz Faridah, Normah eta Chang-ek (2010) aurkeztu zuten lanarekin, krishi edo hondamendi egoeretan, bereziki berehalako erantzun bat eman behar denean, *frame* honen erabilera herritarrei beharrezko informazioa helarazteko erabakigarria izan daitekeela baieztaua. Gainera, deigarria da erantzukizunaren egozpenaren *framing*-aren erabilera hilabetteen poderioz ez aldatzea. Izan ere, *frame* honen erabilera maila altuak osasun izurritean zehar OME bezalako erakundeek garrantzia berezia izatea ahalbidetu zuen (Rocamora, 2012). Horrez gain, *frame* hau Mexiko eta Spainian antzeko maila batean eman zen, bietan erabilpen maila altua izan zuelarik.

Gatazka *framea*-ri dagokionez jada aipatu den bezala bi unetan agertu zen. Hasierako une batean Mexikon, beste herrialdeengatik jasotako bazterketagatik. Esate baterako, El Universal egunkarian: “Mexikarren aurkako joera mundu osoan nagusitzen ari da (Rosas, 2009)”. Krisialdiaren bukaeran berri, gatazka maila global bat sortu zen bereziki OME-ak A Gripeari buruz egindako kudeaketagatik. Hots, El País egunkarian: “Zatiketak OME-ren kausaren aurka. Europako Kontseilua A Gripearen aurrean ez dator bat (De Benito, 2010)”. Bigarren gatazka une hau zenbait autorek (Rocamora, 2012) krishi komunikazio baten hasierarekin lotzen du, non OME-ren diskurtsoa bere ekintzen justifikazioan oinarritu zen A Gripeari buruzko komunikaziotik haratago.

Azkenik, interesgarria da azpimarratzea egunkariekin ez dietela hainbesteko garrantzia ematen A Gripearen ondorio moral zein ekonomikoei. Ondorio moralei garrantzia baxua ematea beste ikerketetan ere ohikoa izan den arren (Igartua et al., 2004; Semetko & Valkenburg, 2000; Valencia et al., 2010), ondorio ekonomikoen kasuan joera desberdinak daude. Izan ere, immigrazioa (Igartua et al., 2004) bezalako gaietan ohikoa da ondorio ekonomikoak nabarmentzea, ez aldiz genero berdintasuna (Valencia et al., 2010) bezalakoetan.

Bestalde, *framing*-aren esanahian sakonduz, Semetko & Valkenburg-en (2000) proposamenaren emaitzez gain, Alceste programak eskainitako analisian pareko emaitzak lortu ziren. Izan ere, software hau erabiliaz frogatu da klase guztiak interes gizatiar *frame*-arekin (Hildakoak eta kaltetuak A Gripearen ondorioz, Pandemia globala eta OME-aren erantzuna) edo erantzukizun esleipen *frame*-arekin (Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa, Txertoen sorkuntza eta aplikazioa, A Gripeaz babesteko prebentzio jarduerak) lotuak daudela. Gainera, azterketan aurkitutako eran, interes gizatiarra adierazten zuten klaseak lehenengo bi hiruhilabetekoekin lotzen ziren, gero gutxituz joan zirelarik. Bestalde, Alcestearen bidez era zehatzagoan beha daiteke erantzukizun egozpenaren kasuan OME-ak izandako protagonismoa egunkarien diskurtsoan. Honek jada aipatutakoa berresten du, botere maila altuek *frame* mota honetan eragin nabarmena dutela baieztauaz (An & Gower, 2009).

Collective Symbolic Coping-a (CSC) egunkarietan

Bai Mexikon eta baita Spainian ere, lehenengo hiruhilabetekoan (2009ko apirila, maiatza eta ekaina) berebiziko nabaritasuna izan zuen A Gripeak egunkarietan, bi egunetik behineko maiztasunarekin gaia portadetan agertu zelarik. Honek *agenda-setting* prozesua jarraituaz gertaera

Social Representations of EID

gizartearentzako garrantzitsu bilakarazi zuen beronekiko kontzientzia hartza bultzatuaz. Izan ere, Spainian CIS-eko ikerketek eskainitako indize objektiboek (hilero plazaratzen dituen Barometroak) adierazi zuten korrelazio positiboa zegoela komunikabideek A Gripeari emandako estalduraren eta gizarteak osasun sistemarekiko zuen arduraren artean, beraz, hementxe dugu kontzientzia hartze prozesuaren isla nabari bat. Hortik aurrera, 2009ko uztailetik hasi eta 2010eko otsaila arte, *desadostasun fasearen* ezaugarriak beha ditzakegu ideia dibertsitate handia beha baitaiteke sasoi horretan. Izan ere, artikuluetan aipaturiko klase guztiak, hau da, egunkarietako testuetatik eratorritako ideia nagusi guztiak azaleratzen dira: Gobernuen kudeaketari lotutakoak, mundu mailako erakundeei lotutakoak, txertoei buruzkoak, enpresen inguruak etab.

Desadostasun fase horren barruan deigarria da, 5. irudiko multzokatu analisian ikus dezakegun bezala, bigarren eta laugarren klasea elkarloturik agertzea. Hau da, “Pandemia globala eta OME-aren erantzuna” eta “Hildakoak eta kaltetuak A Gripearen ondorioz” *cluster* banaketan lotuak agertzen dira diskurtso gisa. Diskurtso hauek A Gripea arrisku edo beldur egoerekin lotzen dute, *pandemia* edo *hildakoak* bezalako hitz-mugen erabilera bultzatuaz. Honekin bat datozen, gizarte igurikapenetan beldur edo arriskuaren transmisioaren eraginari buruz egindako ikerketak (Altheide, 2010; Gonzalo & Farré, 2011)

Bestalde, lehenengo klasea eta bosgarrena ere elkarloturik daude *cluster* banaketako dendograman, hau da, “A Gripeaz babesteko prebentzio jarduerak” eta “Gobernuak eginiko krisiaren kudeaketa”, hain zuzen ere, erantzukizun egozpenaren *frame*-arekin nabarien lotutakoak, batera agertzen dira. Aurretiaz aipatu dugun bezala, A Gripearen krisialdi honetan erakundeei egotxitako erantzukizuna, bereziki OME-ari, oso garrantzitsua eta aldi berean eztabaidatua izan zen. Izan ere, zenbait ikerketek OME-k A

Gripearri buruz eginiko adierazpenak “arrisku komunikaziotik” haratago “krisi komunikazio” gisa ere definitu dituzte (Rocamora, 2012).

Bukatzeko, desadostasun fase honetan “besteekikotasuna” behatu izan dugu. Izan ere, fase honen barruan, eta osasun krisia mundu mailara zabaltzen hasi zelarik, gaixotasuna Mexiko edo mexikarrekin lotzea nahiko ohikoa izan zen. Horren adierazle El País egunkariarekin lotutako lehen bi klaseetan agertutako zenbat UCE: “Mexikoren inguruko herrialdeak kutsatu ditu”; “DF-tik datozen hegaldiak kontrolatzen”; “Mexikotik datozen hegaldiei betoa jarri die (...) ez du jarrera berdina EEBB-ekiko ezta Kanadarekiko ere ez”; “Hartuak ziren H1N1-aren erruz neurri komertzialak, baina beti Mexikoren kontra”. Honenbestez, gure kasuan ere baiezta dezakegu laugarren hipotesian planteatzen genuen bezala “besteekikotasuna” bereziki desadostasun fasearen ezaugarria dela (Gilles et al., 2013).

Gainera “besteekikotasunarekin” lotutako emaitza hauek bat datoz kategorizazioa eta barne taldearen babes estrategiak ziurgabetasunarekin lotzen dituzten lanekin (Hogg, 2000). Honenbestez, CSC-ak eta ziurgabetasuna gutxitzeko motibazioak talde arteko fenomenoak desadostasun fasean gertatzeko duten probabilitate nabariagoa azaltzen dute. Gainera, kanpo-taldea erruduntzat jotzea sarritan jada existitzen diren talde horiekiko irudikapenetan oinarritzen da (Joffe & Staerklé, 2007). Irudikapenak material sinbolikoa eskaintzen duten heinean, desadostasun fasean erabilia izan daiteke egoera berri eta mehatxagarriari zentzua aurkitzeko (Gilles et al., 2013).

Konbergentzia faseari dagokionez, eta beste ikerketa batzuetan gertatzen zen (Gilles et al., 2013) bezala, ez da aurreko faseak bezain argi islatzen. Halere, esan daiteke 2010eko martxotik aurrera agertzen dela gaiari buruzko estalduraren beherakadarekin eta marko edo *frame*

inkonsistenteen desagerpenarekin. Garbiago oraindik, 2010-eko abuztuan, OME-ak pandemia bukatutzat jo zuenean agertutako diskurtsoan nolabaiteko adostasuna aurki zitekeen A Gripearen izateari edota erasokortasun mailari buruz. Aipagarria da, baita ere, sasoi horretara arte iraun zuen diskurtso bakarra “Pandemia globala eta OME-aren erantzuna”, aurretiaz aipatu bezala, arrisku edo beldur interpretazioekin lotua dela. Beraz, diskurtso mota honek “arrisku gizarte globalaren” (Beck, 1999b, 2006) eraketan izan litzakeen eraginei buruz sakonago ikertzea beharrezko deritzogu.

Bukatzeko, beste krisi epidemiologikoen azterketetan bezala (Gilles et al., 2013) ez zen *normalizazio* faserik antzeman. Honen arrazoia pandemiaren aurretik eginiko iragarpenerak edota izurrite arriskua maiztasun erlatiboz pairatzea izan daiteke. Horren ordez, behatutako fasea “paradoxikoki normalizatutako egoera” (Rosenbrock et al., 2000; Setbon, 2000) izan zen, non desadostasunak agertu ziren gizartearen arrisku pertzepzioaren eta izurritearen errealtitate epidemiologikoaren artean. Izañ ere, aurretiazko izurriteetatik sortutako irudikapenek gertaera berrien kontzientzia hartze fasean eragin dezakete (Gilles et al., 2013). Beraz, hirugarren hipotesia bere osotasunean baieztatzen da.

Osasun izurriteen esanahi soziala.

CSC-aren bidez frogatu dugu prentsak osasun izurriteei buruz dugun esanahiaren eraikuntzan parte aktiboa duela. Gainera, emaitzetan ikusi ahal izan dugun osasun izurriteen deskribapena bat datorren Wagner-Egger eta kolaboratzaileek (2011) Suitzan txerri gripearren inguruau aurkituriko gizarte irudikapenekin, gure azken hipotesia ere baieztaua. Izañ ere, gure kasuan korrespondentzia anitzun analisi faktorialak frogatu zuen nola

bereizirik agertzen ziren medikuen, agintarien, farmazeutiken eta biktimen paperak heroi, bilau eta biktima gisa definituaz.

Hasteko prentsaren aburuz, eta batez ere osasun izurritearen konbergentzia fasearen isla gisa, izurrite honetako bilauak farmazeutikak eta interes ekonomikoen mesedetan hauei men egin zieten agintariak lirateke. Konbergentzia fasean gailendu zen bigarren klaseko ondorengo UCE-a horren adierazle: “(El País, 2009-1-13) OME-ari alarmismoa eta laborategi farmazeutikoen onuran jokatzea leporatu diote gripearen intzidentziaren bukaerarekin bat, zein izurrite izendatua izan zen igarotako ekainean”. Bestalde, mediku eta osasun langileak prebentzio hitzakin (maskarila, aho, zapi sexu, esku, osasun...) nola lotzen diren ikus dezakegu korrespondentzi analisian bertan. Izañ ere, krisian zehar osasun erreferente bihurtu ziren agintariekin baino jarduera gardenagoa izanaz, beraz sinesgarritasunak heroi bihurtu zituela ondoriozta daiteke. Azkenik, biktimak batez ere herritarraak izan ziren kasu honetan, bereziki mexikarrak, bai heriotza tasa altuekin lotuta eta baita herrialdean izandako jardueren eteteekin ere. Bukatzeko, korrespondentzi aniztun analisi faktorialak krisiaren izaera globala biziki nabarmendu du. Argi ikusten da bertan, nola hasieran tokiko izaera (Mexiko) izatetik arin mundu mailako arazo izatera pasa zen. “Mundu-global-pandemia” hitzak elkar loturik agertzen dira, honek arestian aipatutako “arrisku gizarte globalaren” (Beck, 1999b, 2006) teoria indartzen duelarik.

Beraz, eta azterturiko guztia elkarloturik, baiezta dezakegu komunikabideek erabilitako *framing*-aren bidez sortutako diskurtsoek eragin zuzena dutela gizarte irudikapenen sorkuntza prozesuan CSC-aren bidez. Gainera, CSC teoriak osatu egiten du *agenda-setting*-aren teoria, argitaratutako artikulu kopuruak iritzi publikoan duen eragina azalduaz (CIS-eko “osasuna arazo gisa” galderarekin neurtuaz). Zentzu berean,

Social Representations of EID

emaitza hauek *agenda-setting* teoriaren hipotesi nagusiaren sendotasuna balidatzen dute. Hau da, hedabideek transferitzen diotela gizarteari zein arazotan jarri behar duten arreta, eta nolako garrantzia duen gertaera bakoitzak. Bestalde, mehatxu subjektiboaren (osasun arazoa) eta mehatxu objektiboaren arteko harremana (kasu-kopuru, heriotza tasa eta herrialde bitako korrelazio desberdinekin).


Honenbestez, maila aplikatu batean, *framing*-aren erabilerak pertsonek duten arriskuaren pertzepzioan eta honi erantzuteko jokabidean eragina izaki, berebiziko garrantzia izango luke osasun komunikazio eraginkorragoetarako politikak bultzatzeak. Gainera, gure ustetan oso positiboa litzateke komunikazio horiek CSC-ean aipaturiko normalizazio fase batera heltzea gizarteari osasun izurriteen aurrean irudikapen berriak eraikitzeko jakintza iturriak emanaz.

Lan honetan plazaratutako ikerketa estrategia lagungarri izan daiteke giza irudikapenen teoriari esleitzen zaizkion determinismo sozial eta erreduktionismo kognitiboaren arazoak gainditzeko (Voelklein & Howarth, 2005). Baita *framing*-aren teoriari atxikitako bertsio deduktiboaren (ikuspegi generikoa) eta induktiboaren (ikuspuntu tematikoa) arteko harremanen arazoak saiaesteko ere (De Vreese, 2005). Gainera Semetko eta Valkenburg-en estrategia eta Alcestearen bidezko analisi lexikala batera erabiltzeak alde batetik maila teorikoan marko biak bateratzen lagun dezake. Bestalde, hedabideen diskurtsoaren eta publikoaren hautematearen arteko harremanak giza irudikapenen teoriari ikuspegi dinamikoago eta sozialagoa ematen lagun dezake.

Zentzu honetan, eta bukatzeko, etorkizuneko ikerketei begira, *framing*-aren ondorioei buruzko hausnarketak berebiziko garrantzia izango luke. *Framing*-a mundu soziala transmititzen, interpretatzen eta ebaluatzen laguntzen duen lanabesa da (Van Gorp, 2007) eta bere bitartez, “arazoei”

buruzko informazioa emateaz gain, berauek nola interpretatu ere mugatzen digute komunikabideek. Iker lerro honi jarraipena emateko orduan, batetik, *framing*-a aldagai aske gisa aztertzea ekarpen interesgarria litzateke (Ikus esate baterako, De Vreese, Boomgaarden, & Semetko, 2011), diseinu experimentallean sartzea alegia. Hau da, jendeak osasun izurriteekiko duen ikuspuntuaren aurrean nolako eragina daukan prentsak argitaratutakoak aztertzea (*frame-setting*) eta baita izurrite edo krisi-mota desberdinek nolako eragina daukaten ere (De Vreese, Boomgaarden, & Semetko, 2011). Bestetik, interesgarria litzateke baita, Semetko eta lagunek deduktiboki sortutako *frame*-ak, *framing* induktiboarekin osatzea. Hain zuzen ere, *framing* horiek (*generic frames*) osatzea *framing* induktibotik eratorritako (*issue-specific news frames*) emaitzekin. Honek ahalbidera dezake alde batetik, *framing*-aren esanahia (aktoren eta espazioaren ezaugarriak aztertzeko) eta bestalde, gizarte irudikapenen eta *framing* -aren (hemen burututako Alceste programaren bitartez) elkarrarteko harreman teorikoa sakontzea.

FROM SCIENTIFIC KNOWLEDGE TO EVERYDAY THINKING THROUGH THE MASS MEDIA



2. Kapitulua: Nola eraikitzen da arriskuaren irudikapena ?

Idoaga, N., Gil De Montes, L., & Valencia, J. F. (2016). Communication and representation of risk in health crises: the influence of framing and group identity. *Revista de Psicología Social: International Journal of Social Psychology*, 31(1), 59-74. doi:10.1080/02134748.2015.1101313

Abstract

Based on the Theory of Social Representations and regarding the social construction of risk and the role played by group identities, the present study examines risk construction created by the mass media in health epidemics. An experimental design with split-ballot questionnaire and 319 participants was used where message framing (human interest vs. attribution of responsibility) and proximity (high vs. low) were manipulated for a high invulnerability identity (youth) vs. a low invulnerability identity (elderly) population. Results showed that the human interest framing increased risk perception, especially when the proximity of the epidemic was high. This effect was explained by the emotional response of the people. Furthermore, youth projected the risk toward 'the others' in order to protect their identity of invulnerability. Finally, the importance of the TSR in a theoretical and applied level for risk communication in health crises is emphasized.

Keywords: emotions, framing, group identity, risk perception, Social Representations Theory.

Social Representations of EID

Komunikabideek gaixotasun kutsakorrei buruzko albisteak sarri askotan plazaratzen dituzte. Biztanleriak hautemandako arriskuaren eraikuntzan, hedabideek mehatxuari buruz egiten duten komunikazioa gakoa da. Gizarte Irudikapenen Teoriak (GIT) gizartea fenomeno berri bati, adibidez osasun izurrite bati, aurre egin behar dionean arriskuaren hautematea gaiari buruzko ideia partekatuen bidez eraikitzen dela iradokitzen du, horrela arazoari aurre egitea ahalbidetuaz (Washer, 2006). Gainera, arriskuak talde soziokultural bakoitzean era ezberdinean eraikitzen dira. Horregatik, arrisku hautematea, hau da, arriskuaren onarpena, talde edo kolektibo bakoitzaren ezaugarri propioen araberakoa ere bada (Douglas, 1986; Douglas & Wildavsky, 1982). Honenbestez, gizarte irudikapenen eraikuntzan bai arriskua komunikatzen den testuinguruak eta baita komunitatearen balio soziokultural edo identitatezkoek ere eragiten dute.

GIT-ak azpimarratzen du komunikabideek esfera publikoan zabaldutako diskurtso eta enmarkamenduak bideratzen dituztela, bereziki, gertakari mehatxagarri berriei buruzko ideia partekatuak. Komunikabideek burututako arrisku komunikazioak arriskuaren errealitate sozialak ahuldu edo indar ditzake. Amplifikazio Sozialaren Teoriak ere (Kasperson, et al., 1988) defendatzen du arriskutsu gisa hautemandako gertakarietan hainbat faktorek hartzen dutela parte. Besteak beste, faktore psikologikoek, sozialek, kulturalek edota instituzionalek (eta honen barnean komunikabideen ekintzek). Faktore arteko elkarrekintza horrek arriskuaren hautematea amplifikatzea bideratuko du.

GIT osasun izurrite ezberdinaren arrisku testuinguruetan erabilia izan da, besteak beste HIES-a (Joffe, 1999; Marková & Wilkie, 1987), Ebola virusa (Joffe & Haarhoff, 2002), Airezpen Sindrome Akutu Larria (Washer, 2004), Metizilinari Erresistentea den *Staphylococcus Aureus* (MRSA)

(Washer & Joffe, 2006), Behien entzefalopatia espongiformea edo behi eroen gaitza (Washer, 2006) edota Txerri Gripea (Idoiaga, Valencia, Gil de Montes, & Ortiz, 2012) ikertu direlarik. Ikerlan honetan oinarri teoriko hau ikuspegi esperimental batean landuko dugu ustezko gripe izurrite bat plazaraturik.

Komunikabideek gertaerak interpretatzeko markoak sortzen dituzten prozesuari *framing* deritzo. Gai konkretu batzuk plazaratu edo ezkutatzetik edota garrantzi gehiago edo gutxiago ematetik haratago, *framing*-ak albisteak enmarkatzen ditu, gizartean beraiei buruzko eskema interpretatiboak sortuaz. Ondorioz, bere eragina banakoaren mailatik haratago maila sozialean ere zabaltzen da, garrantzia nabarmena izanik sozializazio prozesuen sorreran, erabaki-hartzeetan edota ekintza kolektiboak bultzatzean (De Vreese, 2005; Reese, Gandy, & Grant, 2001; Valencia, Gil de Montes, Ortiz, Larrañaga, & Idoiaga, 2010). Izan ere, komunikabideek gertaerak edota arazo sozialak barreiatzen dituzten era konkretuak pertsonek eta kolektibo sozialek beraiekiko dituzten interpretazio eta jarreretan eragiten dute. Haatik, gizarteak gai gehienei buruz duen jakintzaren iturri nagusia komunikabideen bidez helarazi zaiena izan ohi da.

Framing-ak osasun izurriteetan izandako eraginari dagokionez, aurreko ikerketek (Faridah, Normah, & Chang, 2010; Idoiaga, Valencia, Gil de Montes, & Ortiz, 2012) gai hau lantzeko markorik erabilienak erantzukizun egozpen eta pertsonekiko interesarenak izan ohi direla frogatu dute. Erantzukizun egozpenaren markoak arazo edo gertaeraren kausa edo konponbidea gobernu, pertsona edo talde bati egozten dio (Iyengar, 1990). Bestalde, pertsonekiko interes markoak gertaera, albiste edo arazo baten lanketari “gizatasuna edo aspektu emozionala” ematen dio (Semetko & Valkenburg, 2000). Gainera, *frame* honek pertsonon erantzun emozionalean eragin nabarmena duela frogatu da (Cho & Gower, 2006).

Social Representations of EID

Azkenik, azpimarratzeko da, gertakariaren hurbiltasun maila ere albistetasun irizpide gisa definitua izan dela (Túñez & Guevara, 2009). Komunikabideek albiste gisa beraien eremu geografikoan gertatutako gertaerak lehenesten dituzte, faktore hau bereziki garrantzitsu izanik osasun izurrite berriak aztertzerakoan.

Gizarte irudikapenak landu dituzten ikerketek (Smith & Joffe, 2012) komunikabideek sortutako pentsamendu sinbolikoan emozioek duten inpaktu eta berauek gaia ezagun eta ulergarri izateko duten garrantzia ere azpimarratu dute. Teoria honen arabera, emozioek sarritan mezu mediatikoa bortizki bideratzen dute. Izan ere, GIT-ak proposatzen du emozioek ez dutela kognizioa distorsionatzen, biak baitira arriskuaren erantzunaren fazeta anizkoitzak (Höijer, 2011; Joffe, 2003). Guzti honengatik, GIT-ak eta baita beste teoria batzuk ere (DeSteno, Petty, Wegener, & Rucker, 2000; Johnson & Tversky, 1983, Waters, 2009; O'Neill & Hulme, 2009) emozioak eta arriskuaren hautematea lotzen dituen kateak pertsonen osasunean berebiziko garrantzia duela defendatzen dute, arrisku egoeren aurrean jokabidea moldatzeko oinarrizkoa baita. Gainera, arrisku informazioaren prozesamenduak emozio edo sentimenduak izan behar ditu berau garrantzitsutzat jo dadin (Slovic, 2010) eta hautemandako arriskua altua denean altua izango da baita ere pertsonen erantzun emozionala (Millstein, 2003).

Beraz, komunikabideak arrisku hautemate kolektiboen hedapenerako bide nagusiak dira (Renn, 1991). Izan ere, beraien bidez arriskuei buruzko gizarte irudikapenak eraikitzen dira, mezu mediatikoa orokorki eta *framing*-a partikularki gako izanik prozesu horretan. Gainera, guzti honek gertakariaren hurbiltasunarekin batera pertsonen erantzun emozionala bideratuko du.

Halere, ezin dezakegu pentsa komunikabideek arriskuaren eraikuntzan duten eragina gizarteko kolektibo guztientzako homogeneoa denik. GIT-ak preseski krisi momentuetan espazio publikoan maila sozialean partekatutako eta eraikitako ideiak berez sortzen direla planteatzen du (Wagner & Hayes, 2005; Washer, 2006), talde identitatea arriskuaren eraikuntzan oinarrizkoa delarik (Joffe, 2003). Elkarrekintza honetan gizarte irudikapenek aparteko garrantzia dute, bereziki banako edo talde identitatearen aurkako arriskuei erantzuteko sortzen baitira, ondorioz irudikapenaren helburu garrantzitsuenetarikoa mehatxutik babestea delarik (Moscovici, 1961).

Arriskuaren eraikuntzan talde identitatearen elementu garrantzitsu bat kolektibo sozial ezberdinek duten hunkiezintasun identitatea da. Izan ere, osasunari buruzko gizarte irudikapenei dagokienez, hautemandako talde hunkiezintasun edo zaurgarritasun identitate mailak berebiziko garrantzia du norbanakoa babesteko (Rossetto, Joffe, & Solberg, 2011), pertsonek krisi baten aurrean erantzuteko duten gaitasuna muga baitezake (Delor & Hubert, 2000). Ikuspuntu honi jarraiki, ikerketa honetan planteatzen den gripeagatiko osasun krisi bati aurre egiteko orduan, adina oso faktore garrantzitsua da hunkiezintasun identitatearen irudikapena eraikitzeko. Osasuna arloko beste ikerketa batzuk frogatu dute gazteek ez dutela gaixotasunekiko arriskua hurbilekoa den zerbait bezala hautematen, gaixotasunak bereziki “beste batzuei” eragingo diela pentsatuaz (Joffe, 1999) eta ez *self*-ari. Horregatik, gazteak pertsona nagusiak baino hunkiezinago sentitzen dira gaixotasun batzuen ondorio negatiboekiko (Arrivillaga, Salazar, & Correa, 2003). Bestalde, zahartzaroa sarritan osasun txarraren sinonimotzat jo izan da (Coupland & Coupland, 1990), arrisku hautematean eta osasun izurriteen ondorio negatiboak jasotzeko antzemandako probabilitatean eragina izanik.

Helburu eta hipotesiak

Ikerlan honek gripe izurrite batean arrisku hautematearen eraikuntzan gako diren bi faktore aztertu nahi ditu: albistea enmarkatzeko era eta irakurlearen talde identitatearen babeskuntza.

Ikerlanaren lehenengo helburua gripe izurrite batean albisteko mezua enmarkatzeko erak biztanleriak arriskua eraikitzeko duen eran nola eta zergatik eragiten duen definitza da. Bigarren helburua gripe izurrite batekiko hunkiezintasun talde identitate maila ezberdina duten kolektiboren erantzuna aztertzea da, mehatxutik babesteko arriskuaren irudikapena nola bideratzen duten ikertuaz.

Objektibizazio emozionala deritzo prozesu honek osagarri emozional handia du. Hau da, osasun izurriteak azaltzean irudi konkretu eta beldurgarriak behin eta berriz errepikatzen dira (Höijer, 2010, 2011). Adibidez, ebolaren kasuan lurrean botatako hilotzen argazkiak edo goitik behera astronauta janzkeraz jantxitako zientzialarienak kutsatzeko beldurtuta edota txerri gripearenean maskarak jantzita zebiltzan hiritarren karga emozional nabarmendun erretratu, ikono bihurtu dira epidemiak asimilatzeko orduan. Irudi hauek komunikabideek bereziki arrisku gertaerak plazaratzeko erabiltzen dituzte eta horrela, komunikabideetako zenbait ilustrazio objektibizazio emozionalaren bidez gertaera abstraktuagoen ikono bihurtzen dira (Höijer, 2010; Smith & Joffe, 2009).

Bukatzeko, osasun izurriteei dagokienez, gure ikerketek, bereziki bigarren ikerlanak, baieztatu dute berauek asimilatzeko gizarte irudikapenak eraikitzean erantzun emozionalak arriskuaren irudikapena baldintzatzen duela. Beraz, Gizarte Irudikapenen Teoria osatu batean

Social Representations about EID

ainingura eta objektibizazio emozionalen garrantzia eztabaidea ezina da, bereziki osasun izurriteak bezalako arrisku gertaerekin lotuta. Honenbestez, gizarte irudikapenen ikerketan emozioek garrantzia hartu beharko lukete beraien implikazioak sakonago aztertuaz.

Komunikabideak osasun izurriteen gizarte irudikapenak eraikitzeko oholtza gisa

Epidemien psikologian (Strong, 1990) izurriteekin batera, aldi berean garatuz doazen beste hiru epidemia identifikatzen dira: beldurraren, errezelaren eta estigmatizazioaren epidemia; interpretazio, azalpen eta moralizazio epidemia; eta proposamen eta ekintzen epidemia. Gizarteko partaide guztiak epidemiekiko zaurgarriak diren heinean, beldurrarekiko, azalpenak jasotzearekiko eta ekintza eskakizunekiko sentikorrik ere badira. Komunikabideek izurriteetan joera metakomunikatiboa dute (Nerlich & Koteyko, 2011), beldur sorrazle eta hedarazle izanik aldi berean. Horregatik, osasun izurrite berriak sarritan “media pandemia” gisa izendatzera ere heldu dira (Staniland & Smith, 2013).

Gizarte Irudikapenen Teoria osasun izurriteak bezalako fenomeno garaikide eta soziopolitikoak komunikabideek nola eraikitzen dituzten aztartzeko lanabes aproposa da. Alde batetatik, komunikabideak, beraiek, gizarte irudikapenen isla direlako, eta, bestalde, baita gizarte irudikapenen dinamismoaren eta transformazioaren abiarazle ere, horrela errealtitate berrien sortzaile izanik.

Osasun izurriteetako komunikabideen diskurtsoaren analisia: *framing-a*

Gure ikerlanetan 2009-2010eko txerri gripearen eta 2014- urteko ebola izurritearen estaldura mediatikoaren analisia burutu da. Bi kasu hauek, 4-5 urteko tartearekin gertatu diren arren, haien diskurtso mediatikoaren analisian patroi komunak aurkitu ditugu.

Hasteko, aurreko atalean aipatu dugun bezala, badaude errepikatzen diren zenbait gai; besteak beste, krisien ikuspegia globala edota erruduntze

Social Representations about EID

prozesuak. Baino are gehiago, diskurtsoa enmarkatzeko eran ere, hau da *framing*-ean, antzekotasunak topa ditzakegu.

Gure ikerlanetan frogatu ahal izan dugu garrantzitsua ez dela soilik komunikabideek zein gai plazaratzen duten, baizik eta gai hau nola enmarkatzen duten ere kontutan eduki behar dela. Gogora dezagun osasun izurriteen kasuan erantzukizun egozpen eta pertsonekiko interes markoak izan ohi direla erabilienak (Faridah, Normah, & Chang, 2010; Idoiaga, Valencia, Gil de Montes, & Ortiz, 2012). Baita bigarren eta hirugarren ikerlanetan ikusi dugun bezala, bata zein bestea erabiltzeak implikazio zuzenak dituela arriskuaren irudikapenaren eraikuntzan, emozioetan eta orokorki gizarte irudikapenetan.

Pertsonekiko interesaren markoa aztertuaz intrintsekoki lotu behar dugu mendebaldeko gizartek ikusmira urrutiko krisietan jartzeko duen joera politikoarekin. Kasu hauetan, komunikabideek urrutiko herrialdeetako pertsonen sufrimendu gordina ikustarazten duten irudiak masiboki plazaratu ohi dituzte, giza sufrimenduari publizitatea emateko orduan oinarrizko rola izanik. Honen aurrean, irakurleek errukia eta konpromiso arrazionala sentitzea espero da “hiritar on” bezala erantzunaz (Höijer, 2004). Izan ere, gure ikerketek baiezta dute pertsonekiko interes markoa duten albisteek erantzun emozional handiagoa sortzen dutela -eta baita arriskuaren irudikapen sendoagoa ere- eta, beraz, errez ondoriozta daiteke pertsonen atentzia eta konpromisoa eskuratzeko gako izan daitezkeela. Horregatik, pertsonekiko interes markoaren erabilera politikoa anitza da. Alde batetik, gure laugarren eta bosgarren ikerlanetan ikusi dugun bezala, egunkariei beraiei leporatu izan zaie arriskuaren diskurtsoa areagotzeko marko bezala erabili izana, pertsonen arreta lortuaz audientzia erakartzeko instrumentu gisa. Baino bestalde, ezin dugu ahaztu badituela beste erabilera politiko batzuk ere, adibidez ebolaren kasuan Gobernuz

Kanpoko Erakundeek erabiltzen zuten (MSF, Gurutze Gorria etab.), bai sare sozialetan eta baita komunikabide tradizionaletan ere Afrikako errealitatearen berri ematen zuten kontakizunak zabaldua, mendebaldeko herritarren arreta erakartzeko eta beraien lagunza eskatzeko.

Halere, zein puntu arte da *framing* hau arreta erakartzeko bide egokia? Zein ondorio ditu bere erabilera? Izan ere, komunikabideen ikerketan sarritan azpimarratu izan da hauek eginiko sufrimenduaren merkantilizazioak urrutiko gaitzekiko audientziaz ikusle pasibo bihurtzen duela, inolako konpromiso moralik gabe (Höijer, 2004). Hots, pertsonekiko intereseko markoko diskurtsoak bultzatuta ematen diren diru-laguntzak subjektibitate kapitalistako seinale nartzisisten isla lirateke, karitate bidez “besteen” gaitzetatik gure *self*-ak babesteko tresna (Zizek, 2001). Honen ildora, baliteke pertsonok komunikabideen sufrimendu diskurtsoak eraginda nolabaiteko “errukiarekiko nekea” edukitzea (Tester, 2001). Alegia, aspertuta egotea komunikabideen bidez pertsonen sufrimendu irudiak jasotzeaz (gerra irudiak, pandemien irudiak, hondamendien irudiak etab.); ondorioz errukia igartzeari uzten diogularik, biktimekiko distantzia hartuaz. Beraz, pertsonekiko interes *framing*-ak gizartearen arreta ahalbide dezakeen arren bere erabilera tentuz neurtua izan beharko litzateke konpromiso moral gabeko erantzunak edota “errukiarekiko nekea” saihesteko.

Erantzukizun egozpen *framing*-dun diskurtsoari dagokionez, duen erronka nagusia osasun izurriteetan gobernu, agintari zein mundu mailako erakundeek izan duten gizarte irudikapen negatiboari aurre egitea da. Izan ere, gobernu, OME eta antzekoei osasun izurriteen agerraldien aurrean behar gisa erantzuten ez jakitea eta jendartea behar bezala informatzen ez jakitea leporatu izan zaie (Cohen & Carter, 2010; Doshi, 2011; Enserink, 2010; Flahault & Zylberman, 2010; French & Mykhalovskiy, 2013).

Social Representations about EID

Mundu mailako agintariei arriskuaren komunikazioa burutu beharrean, krisi komunikazioa burutzea egotzi izan zaie (Rocamora, 2012). Zehazki, ikerketek aurkitu dute (Idoiaga, Valencia, Gil de Montes, & Ortiz, 2012; Rocamora, 2012; Wagner-Egger et al., 2011) osasun izurriteen hasierako faseetan arrisku komunikazioa burutuaz agintariak arazoen soluzio iturri gisa identifikatu izan direla, haiengandik arriskuaren aurrean babesteko baliabideak, informazio eta aholkuak komunikatzea esperoaz. Baino osasun izurriteak aurrera joan ahala, eta izurritez izurrite komunikazio-kanalen eraginkortasunik eza agerian geratzean, agintarien diskurtsoaren fokua beraien buruak babestean jarri dute, krisi komunikazio bidez. Agintarien autodefentsa horretan ez dago komunikazio gardenik audientziarekin, berauen konfiantza gutxituaz eta ondorioz mesfidantzatik agintarien bilau ikuspegia eta goranzko erruduntze prozesuak berrelatuaz. Horregatik, erantzukizun egozpenaren *framing*-a krisi bukaeretan bereziki erabilia da.

Deskribatu berri dugun patroi hau oso kaltegarria izan daiteke. Izan ere, agintariei krisiei aurre egiteko eraginik eza egoztea behin eta berriz, krisi amaieretan errepikatzen den *framing*-a dela behatzen gaude, osasun krisiak aingura daitezkeen gizarte irudikapen bihur daitekeelarik. Hau da, osasun izurriteetako gizarte irudikapenenen osagai intrintseko bihurtu da (edo bihurtzean dago) gobernu eta OME-aren diskurtsoaren helburua ez dela gizarte arriskua (jendartea jasoko dituen kalteak) gutxitzea, beraiek erakunde gisa izan ditzaketen kalte sinbolikoak samurtzea baizik, honela arriskuaren komunikazioa izan beharko litzatekeena edukiz hustuaz (Gonzalo & Farré, 2011).

Honenbestez, epidemien psikologiaren teoriak planteatutako erara, guk ere osasun izurriteetako lehen faseetan alarmismo edota sentsazionalismo *framing*-ak identifikatu ahal izan ditugu, beldur

epidemiaren erakusgarri. Bestalde, agintarien jokaerak eta erantzukizun egozpen *framing*-ak azalpen eta ekintza epidemien adierazgarri gisa identifikatu ahal izan ditugu. Bukatzeko, komunikabideen diskurtsoak eta, bereziki, erabilitako *framing* motek gizarte irudikapenen prozesuan duten garrantzia azpimarratu nahiko genuke eta, baita, *framing*-a bera eredu kognitibo indibiduala izatetik haratago doala aldarrikatu ere (Farré I Coma, 2005), pertsonatik haratago doan prozesu psikosozial gisa birdefinituaz eta osasun izurriteen kasuan arriskuaren kultura kolektiboak eraikitzeko lanabes bihurtuaz.

Sare sozialak, komunikabideak eta gizarte irudikapenak.

Osasun izurriteen gizarte irudikapenen azterketaren ikuspuntutik tesi honetako azken bi ikerlanek balio erantsidun materiala eskaintzen digute, gai zehatz hau aztertzeaz gain, krisi konkretu berean (2014-2015eko ebola krisialdia), hiru eremu ezberdinatan, komunikabide tradizional, sare sozial eta pertsonei asoziazio aske bidez, burutzen baita azterketa. Hau da, momentu kritiko berean hiru hizkuntza maila landu ditugu: erakundeetako hizkuntza, interakzio sozialetako hizkuntza eta norberak sortutakoa.

Hasteko, interesgarria da, espero genuen bezala, hiru eremuetan ebolari buruzko eduki komunak eratortzea, gizarte irudikapenen isla. Beraz, metodologikoki hiru oholtza hauek gizarte irudikapenen azterketarako duten baliozkotasun frogatu ahal izan dugu eratorritako gaiak, hein batean, parekoak direla behatuaz.

Gainera, gizarte irudikapenen analisian sare sozialen erabilpenaren garrantzia ere azpimarratu nahiko genuke. Izan ere, azken bi hamarkadetan internetak eta azken urteotan sare sozialek goitik behera aldatu dute gertaera politiko eta sozialei buruz pertsonok komunikatzeko eta informatzeko dugun era (Bargh & McKenna, 2004). Halere, sare sozialak,

Social Representations about EID

edota internet bera ere, gutxitan erabilia izan dira gizarte psikologian eta bereziki gizarte irudikapenak aztertzeko orduan (Holtz, Kronberger, & Wagner, 2012; Rech, Vizeu, Bezerra, & Vieira de Lima, 2011; Skitka & Sargis, 2006). Sare sozialek, interneteko foro gisa, abantaila nabariak dituzte, besteak beste datu bilkura erraza, eduki eta talde espezifikoak edota datuen naturaltasun eta egiazkotasuna ahalbidetzen dutelako (Holtz, Kronberger, & Wagner, 2012). Honi, gizarte irudikapenen kasuan, komunikabide tradizionaletatik eta unibertso zientifiko edo reifikatutik (*reified universe*) haratago doan gizartearren eta kontsentsuzko unibertsoen (*consensual universe*) isla izatea ere gehi dakioka, gure ikerketek erakutsi duten bezala.

Hau da, sare sozialen azterketak interes bikoitza duela erakutsi digu gure ikerketak. Alde batetik eduki mailakoa: gizarte irudikapenen azterketan komunikabide tradizional eta pertsonei burututako galdetegien arteko erdibidean geratuko oholtzak liratekeelako sare sozialak. Preseski, guk aztertutako ebolaren kasuan komunikabide tradizionaletan ikusi ahal izan ez genuen eta asoziazio aske arketetan funtsezko izan zen gai bat islatzea lortu zuten, hain zuzen ere, komunikabide tradicionalek osasun izurriteekiko egiten duten estalduran konfiantza falta.

Baina, beste alde batetik, eta bereziki garrantzitsua dena, sare sozialak osasun izurriteei buruzko diskurtso zientifikoa kontsentsuzko unibertsoetan familiarizatzeko edo transformatzeko komunikazio esparru gisa ere identifikatu ditugu. Hau da, maila teoriko batean kontsentsuzko unibertso direla argudiatzetik haratago, maila aplikatu batean ere nabarmenki kontsentsuzkoa den komunikazio estiloa behatu dugu. Honen implikazioak nabariak dira, hasteko egunerokotasuneko bizitzan osasun krisiak gure pentsamenduan txertatzea ahalbidetzeko ezinbesteko lanabes bihurtu baitira sare sozialak. Gainera, eta iker maila batean, kontsentsuzko

unibertsoen azterketarako baliabide oparo eta bereziki interesgarriak direla baieztatzen da. Eta azkenik, mailarik aplikatuenean, etorkizuneko osasun izurriteak hobeto bideratzen lagun diezaguketen tresnak direla ere baieztatu dugu.

Halere, oraindik badaude, sare sozialen eta orokorrean interneteko foroen azterketan ikerketarako zenbait ahulezia, besteak beste erabiltzailee buruzko informazio txikia, ikertu nahi den populazioa aukeratzeko arazoak, ikergai den objektuarekiko motibazioak bultzatuta gehiegizko erantzunak jasotzea edota eskainitako datu masiboen analisia burutzeko arazo metodologikoak (Holtz, Kronberger, & Wagner, 2012; Rech, Vizeu, Bezerra, & Vieira de Lima, 2011).

Honenbestez, bai metodologikoki eta baita eduki aldetik ere, sare sozialetan gehiago sakondu beharra dagoen arren, funtsezko aztergai gisa ikusten ditugu hemendik aurrera gizarte irudikapenen arloan burutzen diren ikerketetan, gizarte irudikapenen komunikazio esparru berri argiak baitira.

Komunikabideak gizarte irudikapenak aztertzeko eta gizarte irudikapenak komunikabideak aztertzeko lanabes.

Burututako ikerketek eta berauetatik eratorritako ondorioek argi utzi digute komunikabide eta gizarte irudikapenen arteko lotura intrintsekoa. Alde batetik, komunikabideek orokorrean eta beraiek erabilitako *framing*-ak bereziki albiste bihurtzen dituzte gizartean eztabaидagai diren, emozio nahiz gatazkak pizten dituzten edota ideologikoki erronka diren mahaigaineratutako gertaerak. Komunikabideek gertaera zientifiko, politiko edota sozial “berriak” nola ainguratzzen eta objektibizatzen dituzten ikertuaz gizarteko pentsamendu sistemetan edo esanahi emate kolektiboetan jasotako transformazioak azter ditzakegu. Are gehiago, sare

Social Representations about EID

sozialak komunikabide berri gisa aztertuaz. Honenbestez, komunikabideetan islatuko diren aldaketa sozialak prozesu material estrukturalak izeateaz gain, sakonki emozional eta soziokognitiboak dira (Höijer, 2004).

Bestalde, Gizarte Irudikapenen Teoriak komunikabideen ikerketari ere ekarpen baliagarriak dakarzkio. Komunikazioa lantzeko teoria gisa gizartea, taldea eta banakoa, komunikabideak eta publikoa, lotzen baititu. Gainera, komunikazio mekanismo anitz zehazten ditu, ideiak nola komunikatzen diren eta aldi berean eguneroko pentsamenduan nola txertatzen diren azalduaz. Honenbestez, komunikabideen bidezko komunikazioaren sakoneneko puntura heltzea ahalbidetzen digu Gizarte Irudikapenen Teoriak, hedabideek pentsamendu soziala nola naturalizatzen eta ezagutza kolektiboa nola sortzen duten azalduaz.

Osasun izurriteen identitateak

Tesi honetako lan ezberdinatik erator daitekeen ondorio nagusienetariko bat da osasun izurriteak gizarte irudikapenen bidez sozialki eraikitzen direla. Hau da, izurriteen sailkapenak irizpide kliniko eta epidemiologiko objektibo eta diskretuetan soilik oinarrituz (Aronowitz, 1999) egiten direla dioen premisa herrena dela. Irizpide mediku klasikoei, gure ikerketetan azpimarratu dugun bezala, kolektibo ezberdinen artean negoziazio bidez eraikitzen diren gizarte irudikapenak gehitu behar zaizkio. Kolektibo horien parte izango dira, besteak beste, zientzialari edo medikuak, agintariak, komunikabideak eta, baita, gu geu gizarte talde bateko partaide gisa ere. Honela, gure talde identitateetik abiatuz, osasun izurriteetako identitateak eraikitzeak eta baita, gure identitate propioa identitate horiekiko kokatzeak ere, garrantzia azpimarragarria izango du.

Izurriteetako identitateen gizarte eraketa eragile politiko, profesional eta kultural anitzek eraikitako prozesu diskurtsibo konplexua da (Taylor, 2013). Adibidez, osasun izurriteetako biktima -edota biktima potentzial izan daitezkeenen- identitatea definitzean norbere *self*-ak biktima izaerarekiko duen gertutasuna gako garrantzitsua izango da. Izan ere, guk bigarren ikerlanean ikusi ahal izan genuen bezala, norbere talde identitateak osasun izurritearen arriskuarekiko duen gertutasun mailak eragina izango du epidemia barneratzeko eta eguneroko bizitzan integratzeko dugun eran. Gainera, gure talde identitateak gaixotasunarekin duen loturak, komunikabideengandik edo agintariengandik jasotako kanpo informazioaren bidez eraikitzen dugun arriskuaren irudikapenena ere baldintzatuko du. Istan ere, pertsona bakoitzak gizarte irudikapenak eraikiko ditu, hein batean, bere talde identitateek ematen dioten jakintzaren bidez (Moscovici, 1984). Horrela, osasun izurrite baten aurrean, gure

Social Representations about EID

taldeko *self* identitatea biktimen edota eritasunaren identitateetatik urrundu nahi izatea ohikoena da, horretarako eskura ditugun baliabide sinboliko zein materialak erabiliaz; adibidez, gaixotasuna “besteen” (Joffe, 1999) talde identitate batekin lotuaz.

Osasun izurriteetako identitateek epidemiei aurre egiteko eran ere eragina dute (Taylor, 2013). Hau da, gaixotasuneko identitateak ahoskatu eta onartuak direnean negoziazio sozialeko sare konplexu batetako aktore bilakatzen dira (Rosenberg, 2002). Honela, “gaixotasuna dutenak” epidemiari berari lotuta agertzen dira biztanleriaren eta agintarien ikusmiran, ondorioz gaixotasuna “kontrolatzeko” erabakietan nabarmenki eragingo dutelarik. Hau da, izurritearen identitate dira biktimak, izurritearen izateari intrintsekoki lotuta dauden protagonista izatetik haratago. Honen adierazle dugu, 2014-2015eko ebola izurriteetan Afrika mendebaldeko hainbat biztanlek sortutako kanpaina “Afrikarra naiz, ez birusa”; “Liberiarra naiz, ez birusa” edota “Sierra Leonarra naiz, ez birusa” zioena, haien talde identitatea gaixotasunaren identitatetik banantzeko eskuaz eta mundu mailako biztanleei birusaren kontra jokatzeko eskuaz eta ez birus horrekin lotzen dituzten identitateen aurka. Izurritea zein talde identitaterekin lotua den erabakigarria izango da, ez soilik izurriteei aurre egiteko baita pertsonen askatasuna baldintzatzeko ere, nori aske mugitzeko eskuidea geldiaraziaz edo koarentenan jarri baldintzatuaz (Taylor, 2013).

Osasun izurriteen aztarna arriskuaren gizartean

Arriskuaren gizartea gaur egun

Gure lan enpíriko ezberdinek Arriskuaren Gizartearen Teoriak (Beck, 1992, 1999a, 2006) gaur egun indarrean dagoen testuingurua deskribatzen digula baiezttatu dute. Izan ere, osasun izurriteek sortutako mehatxu globalek ikusarazi digute arriskuak, Beck-ek planteatzen zuen gisara, kontrolatzeko zailak diren elementuak direla eta ez kalkulagarriak. Izan ere osasun izurriteek gaur egungo gizarteetan segurtasunaren oinarrizko mugariak apurtzen dituzte, zaila delarik erantzule zuzen bakarra topatzea eta baita kutsatzaileak guztiz zehaztea ere. Gainera, osasun izurriteek sortutako kalteak ezin dira konpentsatu, eta ondorioz ez dago mundu mailako egitasmorik hondamendirik handienaren aurrean erantzen global bat izateko.

Honenbestez, gure ikerketek behin eta berriz azaleratu dute biztanleriak (mendebaldekoak bereziki) segurtasun oso baterako edo arriskuen aurrean iragazgaitz izzareko beharra eskatuz deiadar egiten duela, hori arriskuaren gizartean ezinezkoa den arren. Ondorioz, arriskuaren gizartea bereziki gizarte politiko bat denez, (Beck, 1999a), osasun izurriteei emandako erantzuna kolapsatuta geratu da gizartearen eskaerak, erantzun politikoa eta izurriteak kontrolatzeko aukera bera, maila ezberdineta baitaude.

Halere, kontutan izan behar duguna da arriskuaren gizartea, bereziki guk gure lanetan garatu dugun bezala, mendebaldeko ikuspuntutik eratorritako teoria dela. Garrantzitsua litzateke beraz, osasun izurrite globalei aurre egiteko arriskuaren gizartearen teoriatik haratago joan eta Beck-ek berak proposatu bezala arrisku globalaren teoria abiaraztea (*World at Risk Theory*) (Beck, 2009; Beck & Grande, 2010). Teoria honetan,

Social Representations about EID

modernitate kosmopoliten kontzeptua barneratzen da mundu mailako nazio bakoitzaren kultura eta historiak eragindako modernitate era ezberdinak eta haien interdependentziak azaltzeko. Arrisku globalaren teoriak jasotako eztabaidegai nagusienetarikoa da munduko nazio ezberdinek, arriskuaren irudikapen ezberdinekin, partekatutako arrisku globalei aurre egiteko nola kooperatzen duten edo ez duten. Hau osasun izurriteei aurre egiteko gakoa izango delarik, bereziki zabalkuntza handidun pandemietan. Beraz, mundu mailako erantzun bateratu bat sortu nahi bada osasun izurriteei aurre egiteko, ulertu beharra dago arriskua kultura bakoitzari intrintsekoki lotuta dagoen kontzeptua dela eta ez soilik mendebaldeko ikuspuntutik ulertzten duguna. Honenbestez arriskuaren gizarteetan bizi garela esan dezakegu.

Osasun izurriteak gizartearentzako erronka

Gure ikerketek erakutsi digute osasun izurriteek gizarte ordena aldatzen dutela, eta ondorioz, XXI. mendeko gizarte modernoentzako erronka bihurtu. Gizarteak ez die soilik pandemiei aurre egin behar, bere egunerokotasuneko bizitzan ere barneratu behar ditu, bai kognitiboki eta baita emozionalki ere, horretarako gizarte irudikapenez baliatuko delarik.

Gizarte irudikapenetan oinarrituriko *Collective Symbolic Coping-a* (CSC) (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002) ezbairik gabe lanabes interesgarria da osasun izurriteak plazaratzean gizartearen erantzun patroiak aztertzeko eta berauek eguneroko pentsamenduan nola barneratzen diren azaltzeko. Konkretuki, CSC-aren bidez, osasun krisi berri bakoitzaren aurrean gizarteak jarraituko dituen faseak identifika ditzakegu osasun pandemiei buruzko gizarte irudikapen normalizatu sakonak eraikitzeko bidean. Tesi honen baitan burututako ikerlanetan, batez ere izurriteen inguruko gizarte

irudikapenen edukia lantzeko erabili den arren, interesgarria litzateke baita maila emozional batean ematen den CSC-a ere aztertzea.

Izan ere, burututako lanek berretsi dute badaudela osasun izurriteetan gizarte mailan errepiatzen diren patroi emozionalak. Baita gizartea emozionalki pandemiak nola barneratzen eta prozesatzen dituen jakitea eduki aldetiko barneratzea bezain garrantzitsua izan daitekeela. Ildo honi jarraiki, Gizarte Irudikapenen Teoriak azpimarratzen duemozioak ez dutela kognizioa itxuraldatzen, baizik eta biak direla arriskuaren erantzinaren ikuspegi anizkoitzak (Höijer, 2011; Joffe, 2003).

Osasun izurriteek gizartean sortutako patroi emozionalei dagokienez, gure ikerlanek epidemien psikologian (Strong, 1990) nabarmendu izan diren gizartearen beldur edota izu joerak hauteman dituzte, baina haratago ere joan gara. Lehenik, osasun izurriteetan beste gizarteeekiko pena sentimenduak nabarmentzen direla aurkitu eta estigmatizazio eta estereotipazio prozesuekin lotu ditugu. Baita, gizarte mailan orokortuak diren haserre sentimenduak ere, erruduntasun gizarte irudikapenekin irmoki lotuta. Eta, bukatzeko, bereziki azpimarratu nahiko genuke gizartean sortutako “izurriteekiko nekea” (*EID fatigue*) (Joffe, 2011). Izan ere, izurriteekiko nekea nabarmenki neke emozionala da, behin eta berriz osasun izurriteekiko alarmak bizi izanaren ondorio (Joffe, 2011; Sherlaw & Raude, 2013). Hau da, osasun izurriteen lehen faseetan bereziki komunikabideen bidez sortu eta barreiatutako beldur edota herstura sentimenduek (Idiaga, 2016) gizartea zurrubilo emozional sakonean sartu izan ohi dituzte (Strong, 1990). Baina, azkenean, ezerezean geratzen diren zurrubilo emozional horiek, behin eta berriz bizi izanak eta hauei erantzinaz agintari eta komunikabideek izan duten jarrerak, gizarte gisa nekatu egin gaitu (Joffe, 2011; Sherlaw & Raude, 2013). Honenbestez, pandemiek sortutako mehatxuak erantzun politiko eta sozialaren tamaina,

Social Representations about EID

forma eta denbora banaketan ere eragingo duenez, bereziki interesgarria litzateke osasun krisiekiko patroi emozionalek gizartean utzitako aztarna sakonago aztertzea.

Mugak eta etorkizuneko iker lerroak

Eskuartean dugun doktoretza tesitik abiatuz iker lerro garrantzitsua erein daiteke, bai tesi honek izandako mugak gaindituaz eta baita, gure ikerketetako ondorioetan sumatutako beharrizanak jorratuaz ere. Lan enpiriko bakoitzetik haratago, atal honetan maila teoriko, metodologiko eta aplikatuko gogoeta orokorretan bideratuko gara.

Hasteko, maila teoriko batean eta tesiko ondorio hauetan behin eta berriro azpimarratu den bezala, gizarte irudikapenen lanketanemozioen garrantzian gehiago sakondu beharra argi hauteman da. Etorkizuneko ikerketa lerro gisa ezinbestekotzat jotzen dugu, bai osasun izurriteen eta baita, beste edozein gertaera mehatxagarriren gizarte irudikapenak lantzko orduan, oinarri emozional batetatik abiatzea. Era berean, iker galderetan eta proposatutako datu bilketetan ere emozioen lanketari leku nabarmenago bat ematea. Gainera, osasun arloko ikerketa dagokionez, interesarria litzateke, modu berean, tesi honetan planteatutako iker teoria, oholtza eta metodoekin osasun izurriteetatik haratago beste gaixotasun mehatxagarri batzuk ere aztertzea bereziki gizartearentzako mehatxu iraunkor handia suposatzen dutenak, adibidez minbizia (Giraldo-Mora, 2009; Gonzalez, 2013; Llinares, Benedito, & Piqueras, 2010; Palacios-Espinosa & Gonzalez, 2015). Ildo honi jarraiki, etsenplu oraintsu Osasun Mundu Erakundeak kolon eta ondesteko minbizia haragi prozesatuarekin lotu izanak sortutako iskanbila. Haatik, horrelako kasuetan ere bai, OME-aren zein beste agintarien eta baita komunikabideen diskurtsoa egunerokotasuneko pentsamenduan nola txertatzen den aztertzea oso interesarria litzateke.

Bestalde, gure ikerketa enpirikoetan antzemandako muga nagusia erabilitako analisi estrategia izan daiteke. Izan ere, analisietan bereziki

Social Representations about EID

alderdi semantikoetan ardaaztu gara eta ez semiotikoetan. Erabaki hau hartu genuen osasun izurriteak egunerokotasuneko pentsamenduan komunikabideen eta zenbait pertsona talderen diskurtsoaren bidez nola txertatzen ziren azpimarratu nahi genuelako. Horregatik, Alceste softwarearen bidez lortutako emaitzen analisi pragmatikoaren aldeko hautua egin dugu, beste gizarte irudikapenetako ikerketek aholkatutako eran (Kalampalikis & Moscovici, 2005).

Halere, Alceste softwareak datuak analizatzeko era gisa baditu aipatu beharreko zenbait muga ere (Alba, 2004). Hasteko, ez ditu esaldien eraikuntza sintaktikoak kontutan hartzen, soilik maiatasun handienarekin elkar erlazionatzen diren hitz-erroak, eta ondorioz testuaren jatorrizko zentzua gal daiteke, interpretazio desegokiak egiteko arriskua garatuaz. Alcestearen beste muga bat klaseen eraikuntza edukiko testu kantitatean oinarritzen dela da. Hau da, eduki gehien duen sarrerak klase eraikuntzan pisu gehiago izango du, pertsonarteko ezberdintasunak era oso zolian ezingo direlarik hauteman. Azken finean, Alceste ez da programa doi bat, baina ez dago horretarako sortua ezta ere (Allum, 1998). Gainera, Alceste softwareak ez du zehazten bere analisiak fidagarri izan daitezen aztertu beharreko testuaren tamaina. Hau da, softwareak proposatzen du jasotako testu kantitatea geroz eta handiagoa den heinean orduan eta analisi hobea lortuko duela baina ikerlariaren esku uzten du gutxiengo beharrezko tamaina zein den erabakitzea (Alba, 2004). Gure ikerketaren kasuan, komunikabideetatik eratorritako testu kantitatea asoziazio aske bidez eratorritakoa baino handiagoa izan zen, bi oholtzetan lortutako emaitzak konparatzean arazoak sortu ahalko liratekeelarik. Honenbestez, ondoriozta genezake Alcestek bereziki testuen analisi exploratorioa burutzen duela hau muga bat izan daitekeen arren bere abantaila nagusienetariko bat ere badelarik, datuen interpretazio semantiko osatua burutzeko emaitza sorta

eskaintzen baitu. Halere, bai gure analisiak osatzeko eta baita etorkizunean Alceste softwarraren bidez eginiko beste lanek ikuspegi osatuago bat izateko ere posible litzateke emaitzak eduki analisi klasikoarekin ere osatzea, hitzen esanahiari ere lekua emanaz eta alderdi semiotikoa gehiago landuaz.

Bukatzeko, eta maila aplikatu batean guk eratorritako ondorio nagusiak komunikazioko maila diskurtsibo batean aplikatzeko gomendioetan iraultza oso praktikoa litzateke. Osasun izurriteei buruzko komunikazioak, bai komunikabideenak eta baita instituzionalak ere, gizarte irudikapenetan duen isla eta ondorioz eguneroko pentsamenduan duen indarrarekiko kontzientzia areagotzea beharrezkoa da. Gainera diskurtsoaren teoriatik abiatuz, komunikazio hori eraginkorragoa izateko jarraibideak plazaratuko balira eta hauek modu zuzen batean aplikatuko balitzkete komunikabide eta agintariekin, baliteke lehen pausu garrantzitsua izatea osasun izurriteen inguruau dagoen mesfidantza eta neke emozionala apaltzeko.

Tesian plazaratutako ekarpen nagusien laburpena

Tesi honek osasun izurrite berriak ikergai gisa harturik beraien gizarte irudikapenei buruzko gogoeta sakona plazaratzen du. Testuinguru horretan ekarpen teoriko zein metodologikoak proposatuaz.

Burututako lanek osasun izurriteei buruzko gizarte irudikapenak aztertu dituzte sei urtetan zehar (2009ko txerri gripea hasi zenetik 2015eko ebola izurrite arte). Epe horretan osasun krisiekiko gizarte irudikapenen eraldaketa behatu da, baita indarrean mantentzen ziren ideiak ere, bereziki nabarmentzekoak osasun izurriteen ikuspegia globala eta agintari eta komunikabideekiko goranzko erruduntze prozesuak. Beraz, hasteko esan dezakegu osasun izurriteak mundu mailan errebarriatzen diren mehatxu gisa irudikatzen direla gertatzen diren leku edo momentu konkretutik haratago eta, horregatik, haien erantzunak, arriskuaren gizarte global bat kontutan izan beharko lukeela. Bigarrenik, eta bereziki erantzun horrekin lotuta, instituzio edo agintarien eta komunikabideen papera osasun izurriteak maneiatzeko guztiz kolokan dagoela esan dezakegu. Gizartea ez du haiengan konfiantzarik eta behin eta berriro akats berberak errepikatzen dituztela uste du. Honen aurrean, ezinbesteko ikusten dugu instituzioen eta komunikabideen aldetik jarrera aldaketa bat, gardentasuna oinarrizko premisa gisa hartuaz eta komunikazio-kanalak eraginkorrago bihurtuaz.

Aurreko ildoari jarraiki eta hedabideak osasun izurriteetan gizarte irudikapen bidez landuaz, tesi honen beste ekarpen nagusietariko bat beraien izaera metakomunikatiboa da. Hau da, komunikabideak gizarte irudikapenen sortzaile dira komunikazioaren bidez eta aldi berean baita gizarte irudikapen horien eduki ere, komunikazioari buruzko komunikazioa ahalbidetuaz. Honenbestez, gure ondorioetan aipatu dugun bezala, Gizarte Irudikapenen Teoria komunikabideak aztertzeko eta komunikabideak

beraien gizarte irudikapenak ikertzeko lanabes aproposa direla berresten dute gure lanek.

Gainera, gizarte irudikapenen eta komunikazioaren lanketa esparruari beste oholtza bat gehitu diegu, sare sozialena hain zuzen ere. Interneteko foroak eta bereziki sare sozialak gaur egungo gizartearen parte eta isla dira, geroz eta era nabarmenagoan gainera. Gure ikerketek erakutsi dute lan esparru interesgarriak direla gizarte irudikapenak lantzeko eta XXI. mendeko gizartean derrigorrez kontutan hartu beharko ditugunak. Sare sozialek komunikazioa globalizatzen eta bizkortzen dute orain arte ezagutu ez den era batean eta ondorioz, gizarte irudikapenen eraikuntzan geroz eta pisu nabarmenagoa izango dute. Gainera, Twitter bezalako sare sozialetako komunikazioa hedabide tradizionaletako komunikazio reifikatutik haratago doan eta kontsentsuzko komunikazio bat ahalbidetzen duela nabarmendu dugu, ondorioz, osasun izurrite berriei buruzko kontsentsuzko unibertsoak edo egunerokotasuneko gizarte irudikapenak islatuaz. Honenbestez, iker maila batean, sare sozialak azter eremu irrikagarri direla berretsi du gure ikerketak eta maila aplikatu batean, diskurso zientifikoak jendartearen eguneroko pentsamendura transformatzeko edo familiarizatzeko prozesua aztertzeko nahiezean kontutan hartu beharreko lanabesa.

Maila metodologiko batean, gizarte irudikapenak Alcestea bezalako analisi lexikalerako software batekin testuinguru eta oholtza desberdinatan (komunikabide, sare sozial, asoziazio aske) landu dira. Gizarte irudikapenen barnean, eta dituen mugak onartuaz, *cluster* analisi beherakorrik eskain ditzakeen abantailak landu ditugu ikerkuntza metodo honen leku eta garrantzia aldarrikatuaz. Beraz, Alceste metodoaz burututako lan enpirikoak zimendu edo oinarri izan daitezke etorkizunean gizarte irudikapenak edo gizarte psikologiako beste alorrak ikerketa metodo honen bidez aztertu nahi dituztenentzat.


Social Representations about EID

Bukatzeko, bereziki azpimarratu nahiko genuke gizarte irudikapenen ikerkuntza kontuak izanik, alderdi emozionalaren papera. Landu berri ditugun ondorioetan behin eta berriz plazaratu zaigun gaia da emozioen garrantziarena, osasun izurriteak eta haien gizarteetan utzitako aztarna ulertzeko gako direla ohartaraziaz. Hasteko, aingura eta objektibizazio emozionala oinarri hartu beharko lirateke ez soilik osasun izurriteetan, baita gizarte ordena mehatxa lezaketen gertaera orotan ere. Eta, are gehiago, posible litzateke gizarte irudikapenen aingura emozionalaz baliatuz gertaera mehatxagarri ezberdinak, aldi berean, ikertzea. Izan ere, gure ikerketek baiezttatu dute emozioak arriskuaren irudikapenean gako direla. Gainera, osasun izurriteetako emozioez hitz egitean beldur edo izuaz haratago joan gara eta frogatu dugu pena, haserrea edota neke emozionalak ere berebiziko garrantzia dutela osasun izurriteek gizartean utzitako aztarna ikertzeko.

Beraz, Gizarte Irudikapenen Teoria oinarritzat hartuaz ikusmira osasun izurriteen inguruko gizartearen pentsamenduan jarri dugu, komunikazioaren bidez (bai komunikabideena, bai pertsona artekoa eta baita sare sozialena) nola garatzen eta eraldatzen den aztertuaz. Honela, osasun izurriteak gizartean zauri sakonak sortzen dituzten gertaerak direla ondorioztatu dugu, ez sortzen dituzten kalte fisiko edo bistakoengatik soilik, baita sortutako orbain sinbolikoagatik ere, bertan emozioek leku azpimarragarria dutelarik. Osasun izurriteek gizarte modernoei eragingo ez ziotela uste zutenak oker zeuden, gaur egungo arriskuaren gizarte globaletan behin eta berriz presente izango ditugun mehatxuak dira eta honenbestez, ezinbestekoa da pertsonok sinbolikoki nola eraikitzen ditugun eta gizarte irudikapenen bidez eguneroko pentsamenduan nola txertatzen ditugun jakitea. Tesi honen bidez prozesu hauek azaltzeko

zenbait ideia plazaratu ditugu etorkizuneko osasun izurriteei begira lanabes
gisa balioko dutela esperoan

DISCUSSION



The empirical research for this doctoral dissertation has made it possible to examine the social representations of Emerging Infectious Diseases (EID) in depth. Our main objective was to answer three questions derived from the theoretical basis of the doctoral dissertation's introduction: "Which are the social representations of EID?"; "What influence does the media have with regards to social representations of EID?"; and, "What influence does society have in introducing EID in everyday thinking?". Therefore, basing ourselves of the empirical work carried out, our objective in this last chapter will be to answer these research questions.

Social representations are tools which help us to introduce scientific knowledge and unknown scientific elements such as EID in everyday thinking. As we have been able to see in our empirical work, the pragmatic nature of social representations directed to everyday interaction makes them dynamic. So, social representations are structures of everyday thinking which are transformed continually, and it makes no sense to understand them as unique phenomena or mechanism because they are heterogeneous groups of empirical statements. Therefore, we will construct our conclusions from this starting point.

In order to guide this stage, we will start by reflecting on social representations of EID, in terms of both contents and process. Then we will examine the media as a platform for the construction of social representations of EID, in particular a discourse analysis drawn up using *Framing Theory*, and on the role of the social networks. Then we will link our conclusions with reflections about EID identities and, finally, we will reflect on the place which EID have in the risk society. Lastly, we will also state the limitations to this dissertation in our conclusions, directions for

Social Representations of EID

future lines of research and a summary of the main conclusions to this doctoral thesis.

Social representations of EID: Contents

In the research work for this PhD dissertation we have examined EID with different levels of existence, position and risk from the psychosocial perspective. We have analyzed social representations contents directly in the media or derived from groups of people using free association. In this way, we have been able to examine how when unknown events such as EID become familiar they are introduced into social agents' immediate reality following certain common patterns:

Blaming processes: Main actors in EID

In the way suggested by previous research work (Wagner-Egger et al., 2011), in each of the infectious diseases we examined social representations had assigned clear roles for the victims and the villains. Both groups had been blamed with regards to the epidemics, although in different ways. By examining the actors in EID in social representations, and linking them with the blaming process, a symbolic representation of epidemics is constructed. This process makes possible to assimilate the conflicting information received from the media and inter-personal daily communication with regards to EID (Wagner, Kronberger, & Seifert, 2002).

Passive culprits: victims in EID

The victims of health epidemics have been reflected in an ambivalent way in our research. On the one hand, they make us feel sorry

for them; on the other hand, they are seen as a source of danger because they could spread the disease (Wallis & Nerlich, 2005; Washer, 2010). As mentioned in our research work, that pity is an ambivalent emotion, comprising both compassion and sadness and in particular connected with the belief that victims are unable to face up to their situation by themselves. We have seen this figure of the victim unable to protect him/herself primarily associated with poorer countries, particularly linked with Mexico in the Swine Flu case and with Africa in the Ebola outbreak.

The process of blaming "the others" or downward blaming (Joffe, 1999, 2009) makes it possible to represent these remote victims as passive victims (Wagner-Egger et al., 2011). We believe that they are incapable of protecting themselves, compared with us, the citizens of Western countries, who represent ourselves as being impermeable to diseases (Idoiga, 2016; Joffe & Haarhoff, 2002). Furthermore, as we explained in our fifth research work, Africa as a whole (whichever country the epidemic is in, without differentiating between them) is particularly blamed for not being able to protect itself, reasserting that some victims are more to blame than others.

The victims themselves are also seen as a potential risk in connection with the danger of contagion. Somehow, the mere fact of being victims has converted them in culprits for the diffusion of the illness. However, in our research work, unlike in previous pieces of work, this blaming process has not been the result of people's malignant intentions (Joffe, 1999).

We have also seen different levels of attachment towards the victims of EID. With regards to Swine Flu, we found infected victims all over the world whose register was continually being updated. Moreover, the cases in our country (or in each person's country) were deemed to be particularly noteworthy. As far as Ebola was concerned, Western victims who had

Social Representations of EID

become infected became the illness' best-known actors. On the other hand, in our fourth and fifth pieces of research Africans were seen as a mass of victims. Africa, as a whole, is identified with illness and death. In other words, African infections are intrinsically linked with their own nature, in line with existential ideas (Wagner, Holtz, & Kashima, 2009). So, the more distant we feel them, the more we represent them as "the mass of others" (Joffe, 1999). And when the victims get closer (to the West, to our country, etc.), we tend to include them in our everyday thinking and our interest and attachment for them grows; firstly numbering them as individuals and, then, converting them into public personalities. In other words, the shorter the distance from an event is, the more specifically (rather than abstractly) it will be represented, which increases its impact on society (Trope & Liberman, 2003). In connection with the theory of a "Just world" (Furnham, 2003), society blames the citizens of the poorest countries, and particularly African countries, for their poverty and dirtiness and, in this way, sees infections which take place there as being justified. Therefore, the ambivalent nature of the victims and our level of interest (which depends on victims' proximity to us) lead us to often represent each disease according to its victims.

Active culprits: villains in EID

As put forward in our research work, when EID spread world-wide and began to affect Western citizens, three main types of villains often appear in social representations: the authorities, the pharmaceutical companies and the mass media. The upward blaming patterns we have found with regard to these villains are very strong and repetitive, as they have been continually accused in recent years of worsening epidemic situations due to their attitudes.

As far as the authorities are concerned, our research underlined that neither world nor national authorities have been capable of dealing with EID. As part of this upward blaming process, the World Health Organization (WHO) has received special attention, being connected with highly inappropriate management with regards to both Swine Flu and Ebola. Between 2009 and 2014 the image of the role of authorities managing EID has worsened, being continuously blamed for bad management and of only responding in answer to private interests (Cohen & Carter, 2010; Doshi, 2011; Enserink, 2010; Flahault & Zylberman, 2010; French & Mykhalovskiy, 2013; Rocamora, 2012). So, the authorities have not been a resource for efficient action against the loss of control created by EID (Kay, Whitson, Gaucher, & Galinsky, 2009). Given this situation, citizens do not have a reference for seeking help and, because of this, have problems managing their terror of negative consequences and fear of death (Solomon, Greenberg, & Pyszczynski, 1991).

The second group of villains – or upward blaming group – is composed of pharmaceutical companies. Their power, circumstantial connection with diseases and economic interests are reason enough for them to be frowned upon with regards to their role in EID. However, in our research work we have seen less direct criticism towards them, and more criticism towards the authorities for acting in a subservient manner towards them. The reason for this may be that the capitalist world we live where we do accept, in a sense, that pharmaceutical companies, being private companies as they are, work for their own private interests. But, in contrast, we do not accept the authorities prioritizing the interests of private companies over those of the general public.

Finally, our last villains are the media and, in particular, traditional mass media. They have been clearly seen as villains both in people's free

Social Representations of EID

association when asked about EID (as we did in our third and fifth pieces of research) and in Twitter research (in our fourth piece of research). The mass media are far from being seen as independent sources or "invisible inspectors of the environment" (Glessing & White, 1976). Instead of that, they are accused of being puppets of the voices of private companies or people with high social positions; and, also, of worsening situations of fear in order to promote their own interests. These results agree with research which has found a considerable and increasing degree of scepticism toward traditional mass media (Gronke & Cook, 2007; Wagner-Egger et al., 2011).

In a nutshell, victims and villains, being blamed passively and actively for EID, are remarkably important in the construction of social representations of EID and we must take them into account as key groups in order to face up to and cope with diseases.

The globalisation of the risk of EID

In all of our research EID are connected with global risks, even when an epidemic in itself is limited to a particular geographical area (for instance, in western Africa with regards to Ebola). In other words, EID break down the separation between the global and the local, to an extent, being both local and global at the same time (Robertson, 1992). In fact, EID risks do not keep within any frontiers and just knowing that they can be spread in the air, by contact or in water and food makes the dispersion of risks a matter without space or time limitations (Beck, 1992, 1994, 1999a, 1999b; Harvey, 1989).

Therefore, as we have seen in our research, knowing where the risk is situated specifically is of little importance. The globalisation of the risk, in itself, is what makes us feel, understand and assimilate the risk. After all, EID are risks which are ceaselessly transformed and it becomes impossible

